

---

Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia  
1996



Memoria  
1996  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---















Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia

1996

Bilbo, 1997

Testu-idazketa: J. L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde  
Testu gainbegiratzea: Endrike Knörr

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1.º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1747-1997



# AURKIBIDEA

---

<b>Hitzaurre gisa</b> .....	7
<b>I. Ekintza orokorrak</b> .....	9
I.1. Gertakari akademikoak eta beste .....	11
I.2. Hizkuntz Arauak .....	23
I.3. Zenbait erabaki garrantzitsu .....	33
<b>II. Sailak eta batzordeak</b> .....	41
Batzorde-lana, lan-metodologia, bilerak .....	43
II.1. <i>Iker</i> saileko batzordeak .....	45
II.1.1. Hiztegi gintza batzordea .....	47
II.1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH) .....	49
II.1.1.2. Hiztegi Batuko azpibatzerdea .....	55
II.1.2. Gramatika batzordea .....	59
II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea ( <i>Hizkuntz Atlas</i> ) .....	63
II.1.4. Onomastika batzordea .....	75
II.1.5. Literatura batzordea .....	83
II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzerdea .....	85
II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea .....	89
II.1.6. Batzorde suntsikorrak .....	93
II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea .....	95
II.1.6.2. Ahoskera azpibatzerdea .....	99
II.2. <i>Jagon</i> saileko batzordea .....	103
<b>III. Erakunde zerbitzu orokorrak</b> .....	109
Sarrera .....	111
III.1. Egoitza .....	113
III.2. Ordezkaritzak .....	119
III.2.1. Donostiakoa .....	123
III.2.2. Gasteizkoa .....	125

III.2.3. Iruñekoa .....	127
III.2.4. Baionakoa .....	131
III.3. Azkue Biblioteka .....	133
III.3.1. Azkue Biblioteka .....	135
III.3.2. Azkue Biblioteka batzordea .....	139
III.3.3. Azkue Bibliotekako katalogazio-lanak .....	141
III.4. Argitalpenak .....	143
III.4.1. Argitalpen batzordea .....	145
III.4.2. Argitalpenen banaketa zerbitzua .....	149
III.5. Ekonomi zerbitzua: 1996ko balantzea .....	151
III.6. Prentsa zerbitzua .....	157
<b>IV. Herri Administrazio eta erakundeekikoak .....</b>	<b>161</b>
IV.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia .....	163
IV.2. Udalak .....	167
IV.3. Euskal Herriko Unibertsitatea .....	171
<b>V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia .....</b>	<b>175</b>
V.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak .....	177
V.2. Euskaltzaindiko batzordeak .....	179
V.3. Euskaltzaindiko barne-organigrama .....	183
V.4. Aurkitegia .....	185

## **Hitzaurre gisa**

*Berriro ere eskuratzen duzu, irakurle, Euskaltzaindiaren Oroitidazkia, aldi honetan 1996an barrena burutu den lanaren laburpena.*

*Axola handiko urtea, zalantzarik gabe, zeinetan fruitu ugari eman baitu Erakundeak, hileko batzarretan, batzordeetan eta Bilboko egoitzaren, ordezkaritzen eta lan taldeen egunero-ko jardunean, nork bere betekizuna aurrera eramanez. Hori guztia diruz urri zebilela eta dabilela Euskaltzaindia; horregatik diruari ahalik eta etekin hoberena atera behar izan dio, bai eta zenbait proiektu, euskararen ikerkuntzarako edota haren gizarte-sendotzerako beharrezko edo interesgarritzat joak, baztertu behar izan ditu ere.*

*Zail da liburu honetan eskaintzen den informazio mukuruan hau edo hura bereiztea. Esan dezagun, haatik, mingostura poxi batekin bada ere, 1996an zaharsaritu dela Jose Antonio Arana Martija, 1978az gero Euskaltzaindiaren liburuzaina. Lekutan daude Erribera kaleko liburutegia eta artxiboa, Euskaltzaindiaren sortze garaikoak. Urrats ikaragarria egin da Arana jauna lanean hasi zenetik, edozein Akademia edo Unibertsitaterentzat lehen-lehen mailako eremu honetan. Liburu eta eskuizkribuetan aberatsa da liburutegia eta, banan-banan sailkatu da funts guztia. Ez da ahantzi behar, bestalde, mundu osoko erakundeekin sortu den sare handia, argitalpenak eta argibideak trukatzeko. Nahitaezko pausatze- eta ikertze-leku da aspaldiz gero Euskaltzaindiaren liburutegia, eta ez hizkuntza-eta literatura-ikerleentzat soilik. Merezimendua zor zaio, oroz gain, Jose Antonio Arana Martijari, zeinek aldamenean dohai bereziak erakutsi dituen taldea izan baitu. 1995eko ekainean lau berezilarirekin hasitako katalogatze lan neketsuan da orain liburutegia. Lehenago hasiko zatekeen katalogatzea, baina dirurik ezaz bertan behera utzi behar izan zen hori ere. Euskaltzaindi barruan eta kanpoan katalogora jotzea, modu bizkor eta erosoan, garrantzi handiko helmuga da. Ikerlariek egungo liburutegietan espero dezaketena izango dute gurean ere.*

*Beste hau ere aipatuko dugu laburpenaren laburpen honetan: 1996an ekin zitzaion Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko bandetan dagoen ondarea CD-ROM euskarrira pasatzeari. Bizkaiko Foru Diputazioa berehala ohartu zen honen beharraz eta eskuzabal eman zuen horretarako dirua. Ametsa beteaz, horri esker egokiro gordeko da altxor jori-joria, azken urteotan Euskal Herri osoan bildua, eta, denbora berean, interesatuei eskainiko zaie berme guztiekin.*

*Horra non, bada, Euskaltzaindia, ekintza bikoitzean: alde batetik, ahoz eta izkribuz heldu zaigun ondarea betiko galtzetik salbatzen saiatzen da, eta, bestetik, informazio multzo ederra ikertzen du, oraingo euskaldunari gida segurua eskaini nahiz, euskara bizi-bizirik baitago.*

*Azken puntu honi dagokiola, aurren ere ezin dugu aipatu gabe utzi 1995ean jaiotako Arauak sortak izan duen harrera ona. Atsegin handiz ikus daiteke jendearen interesa, ia bi mila harpidedun, dela gizabanako, dela elkargo, dituen argitalpen honekiko. Horren aldean, zorionez, gutxi dira hezkuntzan, Administrazioan, eta komunikabideetan diharduten profesionalak (?) eta erantzuleak (?), araugintzari muzin egiten diotenak; hauen ezaxola eta utzikeria ezin baita ulertu.*

*Zer esanik ez, Euskaltzaindiak ez du ahazten araugintza esparru honetan ahozko ereduaren beharra. Euskal Herri osoan, zein-nahi den norberaren sorlekua eta bizilekua, lokarri izango den euskara idatzirako arauekin batera, izan ere, proposatu behar da mintzatze eredu, maila eta ingurune jakinetarako egokiestekoa, adibidez, gure etxean norbait sartzen denean, irrati edo telebista ibilgailua duenak, edo toki jendetsu batean hitz egin behar duenean, eskolan, politikan edo elizkizunetan, batez ere, entzuleak ez badira denak bertako-bertakoak. M. Lourdes Oñederrak zuzentzen duen eta dozena bat adituk osatzen duten Lan Taldea ederki ari da sail honetan. Bere epean bukatuko ahal du.*

*1996ko udazkenean Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu dute, gure ustez eredugarria. Iruñeko Udalak eta Iparraldeko udalek etengabeko beren diru-laguntzekin egiten dutena egiten du orain Gasteizkoak. Aipatu behar da, honi datxekola, hitzarmen horren bitartez abiatu dela Gasteizko Toponimia Proiektua, bost laguneko talde batekin.*

*Esker ona agertuz bukatuko dugu. Eta esker ona guztiei, batez ere, beren karguengatik orrialde hauetan laburtzen saiatu garen lana diruz babesteko ahaleginak egin dituzten orori.*

Endrike Knörr,  
idazkaria (1992-1996)

## **I. Ekintza orokorrak**



## **I.1. Gertakari akademikoak eta beste**





## I.1. GERTAKARI AKADEMIKOAK ETA BESTE

### Urtarrila

#### *Gabriel Lertxundi urgazlearen hilberri txostena*

Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzainak Gabriel Lertxundi urgazle zendu berriaren hilberri txostena irakurri du, bere bizitzaz eta lanez xehetasun ugari emanaz. Psalmoak eta liturgia gaiak nabarmendu ditu eta baita eliz liturgiako testu eta musikak herri-hizkuntzara eraberritzean izan zuen eragina ere. Poesia eta prosako idatziak ere ez ditu ahaztu. Ondoren, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, J. Haritschelhar, E. Larre, J.L. Lizundia eta J. San Martinek parte hartu dute elkarrizketan.

#### *Jean Baptiste Etxeberri euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena*

E. Larrek irakurri du ondoren Jean Baptiste Etxeberri euskaltzain ohorezko zenaz bere txostena. Donostirin 1903an sortu zen eta *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Almanaka* aldizkarietan agertu izan dira bere lanak, azken honetan *Betegailua* zeritzan atalean. Honez gain, *Zeruari burua* (1960), *Michel Garicoitz sainduaren bizia eta bertuteak* (1962) eta *Frantziako Erregina* (1966) liburuak aipatu ditu Larre jaunak bere txostenean. P. Charritton eta J. Haritschelharrek hitz egin dute gero.



*Bilboko Udaletxean, 1996-2-11n; ezkerretik eskuinera: Josu Ortuondo, Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona.*

### *Orotariko Euskal Hiztegiari buruzko txostena*

Ibon Sarasolak aurkeztu du Orotariko Euskal Hiztegia egitasmoaren txostena. Orain arteko lanaz hausnarketa egin du eta azken lau liburukiek lehengoek baino sarrera gehiago dituztela azpimarratu; R. M. Azkueren eta Placido Mugicaren hiztegi handiekiko konparaketa ere egin du.

### *Bilboko eta Iruñeko alkateei bisita*

Urtarrilaren 11n Zuzendaritza Josu Ortuondo Bilboko alkatearekin eta Joseba Intxaurrega kultura batzordeburuarekin bildu da, Erakundearen berri emateko. Iruñean, Joaquin Pascal alkateordea eta Kultura batzordeburua Udalaren izenean eta Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak eta J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkaria bildu dira. Alkateak, azken orduko ezuste bategatik, bere ezin etorria adierazi du.

### *Linguae Vasconum Primitiae*

Jean Haritschelhar euskaltzainburua Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio berriari Nafarroako Jauregian egin zaion aurkezpenean, mahapuruko izan da. Berarekin batera, Federiko Tajadura Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza saileko kontseilaria, Jose M. Iza Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkaria eta Xabier Kintana argitalpen honen bultzatzailea.

### **Otsaila**

#### *Euskaltzain urgazle berriak.*

Azken bost urteetan urgazle berririk izendatu ez denez, eta lana ugalduz doala ikusita, Euskaltzaindiak jende berriari sarrera emateko parada dela ikusi du. Hogeita bederatzi hautagairen zerrenda banatu da. Hauetarik erdiak Akademiaren batzordeetan lan egiten dute honez gero. Aurkeztutako zerrendan bertoko euskalariez gain atzerrikoak ere agertzen dira.

#### *Liburu-aurkezpena Baionan eta Bilbon*

Iruñean bezala, Baionako «Trinquet moderne»n Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren aurkezpena egin da. J. Haritschelhar, P. Charritton eta X. Kintana euskaltzainak izan dira hizlari.



*Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 1996-2-5ean, Linguae Vasconum Primitiae liburuaren berrargitalpenaren aurkezpenean; ezkerretik eskuinera: Patxi Altuna, Pello Salaburu, Endrike Knörr, Rosa Miren Pagola, Xabier Kintana.*

Era berean, otsailaren bostean, Bilboko egoitzan ere aurkeztu da liburu hau. Aurkezpenean, hauek izan dira mahaiburuan: Endrike Knörr, Patxi Altuna, Pello Salaburu, Rosa Miren Pagola eta Xabier Kintana.

#### *Iparaldeko euskaltzainen urteroko bilera*

Urtero bezala, otsailaren 13an, Baionako «Trinquet Moderne»n bildu dira euskaltzain osoak eta zenbait urgazle. Besteak beste, 1995ean egindako lanen berri eman eta azken argitalpenen aurkezpena egin da batzar honetan.

#### *Boliviako Hizkuntza Politikarako arduradunaren bisita*

Luis Enrique López Boliviako Gobernuko Hizkuntza Politikarako arduradunak Euskaltzaindiaren egoitza bisitatu du Bizkaiko Kultura ordezkaria den Roman Berriozabalaren eskutik. Idazkariorde-kudeatzaileak Akademiaren atal desberdinak erakutsi dizkio.

#### *Gasteizko alkateari bisita*

Otsailaren 15ean, Zuzendaritzako kideak eta Arabako ordezkaria den P. Goenaga bildu dira Jose A. Cuerda Gasteizko Alkatearekin. Alkatearen eta euskaltzainburuaren sarrera-hitzen ondoren, Patxi Goenagak Erakundearen eginkizunak eta diru-premiagatik babesaren beharra azaldu ditu. Alkateak bere aldetik, Udalaren aurrekontuetan diru kopuru bat jarriko dela agindu du Euskaltzaindiak aurkez ditzakeen egitasmo desberdinak ordaintzeko.

#### *R. M. Azkue saria (1995)*

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz antolaturiko haur eta gazteentzako R.M. Azkue narrazio eta olerki sarien irabazleak jakinarazi ditu, Kutxa honek duen kultur aretoan. Honako hauek izan dira sarituak:

- Haurren olerki-saria: Gaizka Amondarain, *Natura eta gizakia*
- Haurren narrazio-saria: Irati Goikoetxea, *Tim kale txakurraren istoria*
- Gazteentzako olerki-saria: Leire Bilbao, *Zuri*
- Gazteentzako narrazio-saria: Maialen Zubeldia, *Beste urtebete oraindik*

#### *EUDELEkiko bilera*

Euskal Herriko Udalen Elkarteko kudeatzailea eta teknikaria diren M.<sup>a</sup> del Mar Zabala eta Sonia Fraile, batetik, eta Euskaltzaindiko diruzaina eta kudeatzailea bestetik, bildu dira otsailaren 21ean. Erakundeak hainbat udali eta herritarri ematen dien zerbitzuez (toponimia, bideseinaleak, tokian tokiko herri-hizkera, e.a.) eta aurrerantzean zerbitzu horiek emateari eutsi ahal izateko behar diren baliabideak izan dira bileran tratatutako gai nagusiak.

### **Martxo**

#### *Euskaltzain berrien hautaketaz*

Aurreko hilean aurkeztutako urgazle berrien hautaketa-zerrendaren arabera, bozketak egin da eta honako hauek izendatuak gertatu dira: Luis Baraiazarra, Jean Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Mikel Gorrotxategi, Antton Aranburu, Jesus M. Etxezarreta, Xabier Altzibar, Gorka Aulestia, Ana M. Toledo, Lourdes Oñederra, Iñaki Gaminde, Pilartxo Etxeberria, Erramun Bachoc, Sebastian Garcia Trujillo, Jose Agustin Arrieta, Joan M. Irigoien, Patziku Perurena, Dionisio Amundarain, Koldo Biguri, Xabier Kaltzakorta, Joseba Butron, Igone Etxebarria, Luzien Etxezaharreta, Manex Pagola, Koldo Zuazo, Jose R. Zubimendi, Natela Sturua, Salome Gabunia eta Suzuko Tamura.

### *Frantzisko Tirapuri omenaldia*

J. Cortes jaunak Tirapu euskaltzain urgazleari buruzko bere txostenaren lehen partean bere bizitzaz hitz egin du. Erasunen sortua, maisu ikasketak egin zituen Iruñean eta 20 urtetan (1950-1970) aritu zen euskarazko irakasle gisa, Zubiaur foru diputatuak eraginik hasitako eskolen arduradun. Tirapu jauna ikastolen sortzaile ere izan zela aipatu du hizlariak. Bigarren partean, Nafarroako ikastolen lehen urratsak eta gorabeherak azaldu ditu. A. Irigoien, J. M. Jimeno Jurio, F. Krutwig, J. M. San Martin eta J. M. Satrustegik parte hartu dute ondoko elkarrizketan.

### *Donostiako alkatearekin bilera*

Beste hiriburuetakoko alkateekin egin den bezala, martxoaren 6an, Odon Elorza Donostiako alkateari egin dio bisita Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak. Alkatea ez ezik, Ramon Etxezarreta alkateorde eta Kultura zinegotzia ere izan da bertan.

### *Jose Antonio Arana Martija*

Martxoaren 21ean, Zuzendaritzaren bilera egin ondoren Euskaltzainburuak Jose Antonio Arana Martijari, bere zahar saria dela eta, pergamu bat eman dio beste langileen aurrean, Azkue Bibliotekako liburuzain bezala Euskaltzaindian lan egindako urteengatik esker onez.

## **Apirila**

### *«Lizardi»ren omenezko ekitaldia*

Zarauzko Udaletxean, apirilaren 26an, Euskaltzaindiak ageriko batzarra egin du Jose Maria Agirre «Lizardi»ren mendeurrena ospatzeko. Ekitaldi honetan, Imanol Murrúa Zarauzko alkateaz eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuaz gain, honako hizlari hauek parte hartu dute:

Lourdes Otaegi: «Lizardiren kazetaritzaren inguruan»

Luis M<sup>a</sup> Mujika: «Paisaiaren trataera»

Juan Cruz Igerabide: «Herri lirika Lizardirengan»

Aurelia Arkotxa: «*Bultzi leiotik* olerkiaren azterketa»

Karlos Otegi: «Lizardiren ametsezko bidaia»

Jon Kortazar: «Orduko literatura eztabaida»

### *«Ahoz aho eta belaunez belaun» kanpaina*

Bilboko Artxiboko erakustaretoan, Federiko Krutwig, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundiak Euskaltzaindiaren izenean parte hartu dute «Ahoz aho eta belaunez belaun» izenarekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailek antolatutako kanpainaren aurkezpenean.

## **Maiatza**

### *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasarari buruzko txostena*

Beñat Oihartzabal Dialektologia-Atlasgintza batzordeburuak, informatika tresneriaren laguntzaz, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren egoera azaldu du. Dauden datuak bandetatik ordenagailuetara pasatzearen lana aurrera doala esan du, honen helburua erabiltzaileak behar duen informazioa laster eta modu errazean aurkitzea delarik. Bigarren pausua mapetara eramatea izango litzateke.

### *Hilberri txostenak: Aita Santi Onaindia, Juan Angel Etxebarria eta Jose Antonio Arkotxa*

Egoitzako aretoan, maiatzaren 31n, aipatutako zenduen omenez egin den ekitaldian honako euskaltzainek irakurri dute hilberri txosten bana:

- Santi Onaindia euskaltzain ohorezkoarena, Juan Mari Lekuonak eta Juan San Martinek, hitzaldi banaz.
- Juan Angel Etxebarria euskaltzain urgazlearena, Jose Antonio Arana Martijak.
- Jose Antonio Arkotxa euskaltzain urgazlearena, Juan San Martinek.

### *Urgazle berrien diploma hartzea*

Plaza Barriko egoitzan, ageriko batzarrean, euskaltzain urgazle berrien harrera ofizialari ekin zaio. J. Haritschelharrek Eskaltzaindiaren Barne-erregelek dagozkien eskubide-eginbideez diotena irakurri ondoren, Akademiaren lanetan gogotsu parte hartzea edo jarraitzea eskatu die guztiei, euskararen onetan.



*Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 1996-5-31n, urgazle berriei diplomak ematea.*

### *Iparraldeko ikastolen jaialdia*

«Herri Urrats» izenarekin Iparraldeko ikastoleen alde Laburdiko Senperen antolatu ohi den jaialdian Jean Haritschelharrek parte hartu du Euskaltzaindiaren izenean.

### **Ekaina**

#### *Euskaltzaindia eta BBK sariak*

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urtero antolatzen dituen literatura lehiaketaren iragarpena eta iaz saritutako liburuen aurkezpena egin da egoitzaren aretoan.

### *Arrasateko Toponimia*

Jose Luis Ormaetxea Lasagak prestatuturiko *Arrasateko Toponimia*, Onomasticon Vasconiae bildumako 15. liburukia aurkeztu da Arrasateko Udaletxean. Patxi Salaberri Onomastika batzordekideak egin du lan honen gainbegiratze-lana.

### *«Jautarkol» euskaltzain urgazleari omenaldia*

Jauregi'tar Koldobika «Jautarkol» idazle eta euskaltzain urgazlearen mendeurrenean, Errenteriako Udalak antolatu dituen jardunaldietan Juan Mari Lekuona, Jon Kortazar eta Elixabete Perez Gazteluk hitzaldi bana eman dute.

### **Uztaila**

#### *A. Belapeyren omenezko ageriko batzarra*

Sohütako kiroldegian, uztailearen 20an, bildu da Euskaltzaindia A. Belapeyren omenez egindako ageriko batzarrean. Mahaian, J.M. Beguerie auzapeza eta Zuberoako Sindikataren presidentea dena, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Tx. Peillen, J.A. Arana, J. L. Davant eta Pello Agirre hitzaldi-emaileak izan dira.

Jean Louis Davantek Athanase Belapeyren bizitzaren xehetasunak eman ditu eta, batez ere, 1696an argitaraturiko *Catechima laburra* goraiatu du liburuaren euskara klasikoa nabarmenduz.



*Sohütan, 1996-7-20an, A. Belapeyre-ren omenezko ageriko batzarrean; ezkerretik eskuinera: J. M. Beguerie, J. L. Davant, Pello Agirre.*

Pello Agirre irakasleak omenduaren euskara moldea aztertu du bere txostenean.

#### *Marcellin Hegiaphal jaunari buruzko saioa eta Jose Basterretxea «Oskillaso» urgazlearen omenez, hilberri txostenak*

Ekintza honetan, J. Haritschelharrek Marcellin Hegiaphal Sohütako pastoral errejenta, berriki zendua, gogorarazi du, eta, tamalez, haren heriotzagatik ezin izan dela

euskaltzain ohorezkoen mailara eraman, gaineratu du. Ondoren, Tx. Peillenek azaldu du Hegiaphal jaunaren bizia eta lana, pastoralak zor diona azpimarratuz.

Jose Antonio Arana Martijak irakurri du, aurten hil den Jose Basterretxea «Oskilaso» urgazleaz txostena. Literaturan eta doinu eta azentuaren eremuan Basterretxeak burututako lana aipatu du bereziki hizlariak.

#### *Euskaltzainburua ohorezko kidea «Sociedad Española de Sociología» elkartearen*

«Sociedad Española de Sociología» elkarteak Donostian egin duen XI Congreso Nacional de Sociología biltzarraren barruan, Jean Haritschelhar euskaltzainburua ohorezko kide izendatua izan da.

## **Iraila**

#### *«Lehen euskalegunak» ekitaldiaren 75. urteurrena*

Euskaltzaindiak 1921ean Durangon antolatu zituen euskalegunen 75. urteurrena ospatzeko asmoz, Durango Merinaldeko Gerediaga Elkarteak kultur ekitaldi bat antolatu du Durangoko Arte eta Historia Museoa. Euskaltzaindiaren izenean Xabier Kintanak parte hartu du, Alfonso Irigoyen eta Patxi Goenaga euskaltzainak ere bertan egon direlarik.

#### *Gerra osteko literaturaren erakusketa*

Zarauzko Sanz-Enea kultur etxean, bertako udalak eratuta eta Leopoldo Zugazaren gidaritzapean, gerra osteko literaturaren erakusketa ireki da irailaren 27an. Erakusketa horretarako Azkue Bibliotekak 21 aldizkari, 15 liburu eta 27 argazki utzi ditu.

#### *Gasteiz hiriko kale izendegia*

Patxi Goenaga Arabako ordezkaria Gasteizko alkatea den Jose Angel Cuerdarekin bildu da irailaren 5ean. Bilera honetan *Gasteiz hiriko kale izendegia* deritzon izen zerrenda eta txostena eman dio alkateari. Onomastika batzordearen gainbegirapean, aipatutako lana burutzeko urtebete eta gehiago aritu da horretarako sortu den lantaldea, honako kideez osatua: Euskaltzainditik E. Knörr, Patxi Goenaga eta Manu Ruiz Urrestarazu; Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzutik Patxi Mz. de Marigorta eta Imanol Zurutuza; GEU elkartetik Jose Luis Ormaetxea eta Patxi Salaberri Muñoz. Guztira, lehen zerrenda honetan, 534 izen desberdin aztertu eta finkatu dira.

#### *Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena*

Irailaren 27an Gasteizko Udaletxean egin den ekitaldi ofizial batean, hitzarmen bat sinatu dute Jose Angel Cuerdak Gasteizko alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Gai honi buruzko xehetasunak IV. atalean ematen dira.

## **Urria**

#### *Aitzolen omenezko ekitaldia*

Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak antolaturik, «Antonio M<sup>a</sup> Labaien» kultura etxean, Aitzolen jaiotzaren mendeurreneko eta heriotzaren 60. urteurreneko ekitaldia egin da. Ekitaldi honetan, Antton Gonzalez Tolosako alkateordeak, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzainak, Martin Ugalde ohorezko euskaltzainak, Xabier Altzibar euskaltzain urgazleak eta Lourdes Otaegi irakasleak, parte hartu dute.

### *Euskaltzaindia Real Academia Españolaren egoitzan*

Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta, Euskaltzaindiaren izenean, Real Academia Españolaren buruorde den Angel Martín Municio eta Lorenzo Gutiérrez kudeatzailearekin bildu dira. Bilera hau, batez ere bi Akademien kudeaketa eta lan-eraketa aztertzeko egin da.

### *Ondarearen Egunak, Irisarrin*

Euskal Kultur Erakundeak Irisarrin (Nafarroa Beherean) antolatu dituen «Ondarearen Egunak» ekitaldietan parte hartu du Euskaltzaindiak. Beñat Oihartzabalek eta Xarles Videgainek hitzaldi bat eman dute Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaz. Horrez gain, han egin den erakusketan Erakundearen argitalpenak erakutsi dira eta ordenagailuaren bidez Atlaseko zenbait datu nola kontsultatu azaldu da.


## **Azaroa**

### *Toponimia Batzordea*

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Aholku Batzordearen azpibatzerde moduan sortu den Toponimia Batzordea bildu da HABEren Donostiako egoitzan. EAEko herri-erakunde desderdinen ordezkariak osatzen dute Batzorde hau. Akademiaren izenean E. Knörr ordezkaria izan arren, M. Azkarate, J.L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu eta P. Salaberri ere batzordekideak dira.

### *Juan Mateo Zabalaren sermoiak (I) liburuauren aurkezpena*

Bizkaiko Diputazioaren Jauregian, Tomas Uribeetxebarria Kultura diputatuak, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta Luis Villasantek aurkeztu dute *Juan Mateo Zabalaren sermoiak (I)* liburua. Euskaltzaindikoko Lekukoak sailean argitaratu da Luis Villasantek paratu eta Bizkaiko Foru Diputazioak babesturiko lan hau.






## Abendua

### A. Jose Ignazio Aranari omenaldia

Azkoitian, Udaletxeko batzar aretoan, abenduaren 20an, arratsaldeko 6etan, eman zaio hasiera A. Jose Ignazio Aranaren heriotzaren mendeurrenkari ospatzeko Euskaltzaindiak antolatu duen batzarrari. Mahaian, Nerea Zubizarreta Azkoitiko alkatea, Juan Bautista Mendizabal kultura zinegotzia, eta egungo hizlariak: Jose A. Arana Martija eta P. Altuna euskaltzainak egon dira. Alkateak agurreko hitzak esan ondoren, J.A. Aranak hartu du hitza *Jose Ignazio Arana bibliografoa* izeneko txostena irakurtzeko. Ondoren, P. Altuna, Jose Ignazio Aranaren bizitzaz eta lanaz mintzatu da zehazki eta, haren egunkaritik jasotako zenbait berri emanez, alderdi ezezagunak erakutsi ditu. Nabarmentzekoak izan dira omenduaren garaiko zenbait euskalarirekin izan zituen harremanen aipamenak.

### Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak, paremiologiaz

Durangoko Arte eta Historia museoan, Euskaltzaindiaren I. Euskalegunak oroituz eta *Refranes y Sentencias* liburuaren lehen argitalpenaren IV. mendeurrena ospatuz, Herri Literaturaren IV. Jardunaldiak egin dira, gaia paremiologia, hots, errefrau, esaera eta atsotitzak, izan delarik.



*Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza, 1996-12-13an, BBK-Euskaltzaindiaren literatur sari-banaketa; ezkerretik eskuinera: Mattin Irigoien, Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona.*

### BBK-Euskaltzaindia sariak ematea

Abenduaren 13an BBK eta Euskaltzaindiak antolaturiko literatur sarien banaketa egin da. Mattin Irigoienek jaso du Toribio Altzaga Antzerki saria bere «Hautsi da kristalla!» lanagatik eta Julen Zabalok Mikel Zarate saio sariketarena «Europako (zein?) batasuna» lanagatik.

*Bilboko apezpikuen bisita*

Egun berean zuzendaritzak Ricardo Blazquez Bizkaiko apezpiku berria eta Carmelo Etxenagusia apezpiku laguntzailea hartu ditu egoitza akademikoan. Bigarrena euskaltzain urgazlea da gainera.

## **I.2. Hizkuntz Arauak**



## I.2. HIZKUNTZ ARAUAK

Jarraian ikusiko den bezala, 1996ko urtean, hiztegi batukoak eta onomastikari buruzkoak izan dira gehien eztabaidatu diren gaiak. Hona hemen, hilez hil, Euskaltzaindiak osokoen bilkuretan aztergai izan dituen txostenak eta hartutako erabakiak.

### Urtarrila

#### *Erabakiak*

— Euskara Batuko batzordekidea den Miren Azkaratek egin du, urtarrileko batzarrerara ekarri den «Munduko estatuetako hizkuntza ofizialen zerrenda» izeneko txostenaren azalpena. Zerrenda honetaz, A. Irigoien, J. A. Arana, E. Knörr eta X. Kintana euskaltzainek ekarri dituzte beren oharrak.

– *Arabe/arabiera* auzian, bigarren forma onartu da.

– *Gaztelania/espainera* bi hitzei maila bera ematea erabaki da aho batez.

– *Hebreera* onartu da *hebraieraren* kaltetan.

– *Urdu* hitza sartzea onartu da.

– *Gaeliko* formaren ondoan *gaclera* ere agertzea erabaki da.

— Abenduko batzarrean tratatu gabeko gaia mahigaineratu da: aurten indarrean jarriko den figura juridiko berriak, espainolez «Tribunal del Jurado» deritzonak euskal ordain zuzena behar duenez, Euskaltzaindiaren prosamena jakinaraztea beharrezkoa ikusi da. Batzartuek honako hau proposatzea erabaki dute:

Miembros del jurado: *Epai-zinpekoak*

Mesa o Tribunal del Jurado: *Zinpekoen epaimahaia*

Testuingurua garbia azaltzen denean, aski da *zinpekoak* erabiltzea, aurretik *epai* hitza kendurik.

— Hiztegi Batuari dagokion *-ari/-ario* bitasunaz eztabaidatu da gero, *bibliotekari/bibliotekario* hitza adibidetzat erabiliz.

#### *Erabakizunak:*

*Ba-belztura* hitz-zerrenda banatu da euskaltzainen artean. Ohiko prozedura jarraituz, hurrengo hilaren 20rako bidali beharko dira oharrak.

### Otsaila

#### *Erabakiak*

*Ba-belztura* hitz saila izan da ezбайдagai hil honetako batzarrean. Dagokion txostena P. Salaburu, Euskara Batuko batzordeburuak azaldu du. E. Knörr-ek bidali dituen

oharren artetik batzuk ontzat hartu dira, hala nola, *baita* (*zure baitan*, adibidez), *baratxe*, *barealdi* eta *basaran*.

- *Bailara* hitza dela eta, kezka agertu da *ibar* eta *haran* hitzak baztertuak geldituko ote diren lehenengoaren mesedetan. *Bailara* hitzaren ondoan «eskualde» agertuko dela erabaki da.
- *Bakterio/bakteria* auziaz luze eztabaidatu da. Azkenean, bi formak onartzea erabaki da, baina *bakterio*-ri lehentasuna emanez.
- *Baxenabartar* forma dela eta, *behenafar* izena ere proposatu da. Eztabaidaren ondoren, *baxenabartar* onartu da eta probintzia eta probintziatarren izenen zerrenda Onomastika batzordetik pasako da.
- *Betzulo* ere kontuan hartzea eskatu da, hizkuntzak dituen konposaketa erregele zaharrei bere pisua aitortuaz. Euskaltzain batzuek parte hartu dute eztabaidan eta ondorioz forma hau ere sartzea erabaki da.

#### *Erabakizunak*

*Bemol-bidari* zerrendaren txostena da hurrengo bilerarako Euskara Batuko batzordeak proposatu duen gaia.

### **Martxoa**

#### *Erabakiak*

- J-L. Davantek, Euskaltzaindiaren partaidetzarekin egin den *Nekazaritza hiztegia* abiapuntu bezala harturik, *baratza/baratze* formak berrikusteko proposamena ekarri du mahaira. Aipatutako hiztegian *baratze* eta *baratzezain* agertzen direla dio. Gaia beraztertu ondoren, *baratze* eta *baratzezain* formen aldeko erabakia hartu da aho batez.
- *Bemol-bidari* sailaren gainean, Tx. Peillenek, X. Kintanak eta E. Knörrek ekarri dituzte beren oharrak eta eztabaidagaiak:
  - *Berein* hitza agertuko da, «batez ere *bizk*» markarekin.
  - *Beretter*, ez *bereter*, baina azken hau bigarren zerrenda batean sar litekeela erabaki da.
  - *Besomotz/besamotz* auzian, lehenengoa aukeratu da.
  - *Betun* hitza ere sartuko da baina «Ip. ziraia» aldamenean duela.
  - *Beztitu* aditzaren sarreran, iragankor eta iragankaitz joka daitekeela adieraziko da.
  - *Bibliotekari* baino literaturan sarrera zabalagoa duen *liburuzain* hobetsi da.

#### *Erabakizunak*

*Bidaro-bizartsu* izango da eztabaidatuko den hitz saila eta, era berean, exonomastikako erabakizunak utzi dira ere hurrengo bileretarako.

### **Apirila**

#### *Erabakiak*

- Aurreko hilekoaren ildotik, *bidaro* hitzetik *bizartsu* hitzeraino aztertu dute batzar honetan euskaltzainek. E. Knörrek eta J. San Martinek igorri dituzte zerrendari dagokion beren oharrak. Haietako batzuk onartu dira:

- *Bidesari* sartu da.
- *Bisitazio* hitza ere, Andre Dona Mariak Elizabet bere lehengusinari egindakoa adierazteko, adibidez.
- *Bisaje*, «herr.» marka ezarriz.
- *Bistaz ezagutu* esapidea ere sartzeari oniritzi zaio.
- *Billete* mantenduko da, baina «dirupapera» adierarekin.
- *Bikor/pikor* eztabaidarako ekarri du Euskara Batuko batzordeak, eta aztertu ondoren *pikor* forma erabaki da aho batez, testuetan duen nagusitasuna kontuan harturik.

Zerrendarekin bukatu ez denez, hurrengo batzarrerako utzi da exonomastika alorreko gaien mesedetan.

- Onomastika batzordeak apirileko bere bileran onarturiko «Euskal probintzien, herriarren eta euskalkien izenak» aurkeztu da, Euskara Batuko batzordetik pasa ondoren. E. Knörr Onomastika batzordeburuak egin du honen azalpena eta P. Salaburu Euskara Batuko batzordeburuak adierazi du zein diren proposaturiko aldaketak. *Giputz* hitzaren inguruan izan da eztabaida luzeena. *Gipuzkoar* hobetsi bada ere, *giputz* forma ere utziko da euskalkiarekin loturiko bere esanahiarekin.
  - *Goi-nafar* eta *behe-nafar* formak kendu dira, gentilizioekin *goi-*, *behe-* eta antzekoak konposizio osagaiak erabiltzen ez direlako.
  - Txostenaren tituluari dagokionez, *probintzia* gabe, *herrialde* hitza ezarri da.

Dagozkion aldaketak sartu ondoren, aho batez onartu da txostena.

#### *Erabakizunak*

Hurrengo batzarrean, *bidaro-bizartsu* zerrendarekin bukatzeaz gain, *b* letra osoa amaitutzat eman nahi du Euskara Batuko batzordeak. Exonomastikaren alorreko erabakizunak, egungo gai-zerrendan zirenak, geroko utzi dira.

### **Maiatza**

#### *Erabakiak*

- Maiatzeko batzarrean *bizi-buztintsu* hitz saila dute euskaltzainek erabakizun. Aurkezpena Ibon Sarasola Euskara Batuko batzordekideak egin du.
  - *Blusa/brusa* izan da lehendabizi eztabaidatu den forma eta sarrera bana ematea erabaki da.
  - *Borraia/borraja* hitzak aztertu dira ondoren eta bien artean *borraja* hobetsi da, betiere *morraia* aldaerari lehentasuna emanez.
  - *Brentsa* eta *brentsatu* formak ere agertuko dira «Ik. prentsa, prentsatu» gehituz.
  - Idatzizko oharraren arabera orobat, *buelta* eta *bueltatu* hitzen aldamenen bi marka erantsiko dira: Hegoaldekoak direla eta ez dagozkiola euskara jasoari.
- «Mundu zabaleko ibaien eta aintziren zerrenda», Onomastika batzordeak onartua, aztertu eta onetsi da halaber batzarrean, baina *Esklabuen Aintzira Handia* kendu da oraingoz, *esklabo/esklabu* auzia argitu arte.

#### *Erabakizunak*

*Camping-diametro* hitz saila banatu da, hurrengo bileran erabakizun izan dadin.

Bestalde, A. Irigoienek prestaturiko «*Tar* jendeari dagokion berrekailua zenbait autoretan, eta baita ere *-tiar/ -liar*» deritzon txostena ere jaso dute batzartuek.

## Ekaina

### Erabakiak

— *Camping-diametro* zerrenda aztertu da ekaineko batzarrean eta aurkezpena M. Azkaratek egin du. Oharrak, J. Haritschelhar, E. Knörr eta E. Larrek igorri dituzte.

- *Deblauki* forma sartu da, literatur tradizioan duen pisua kontuan hartuta.
- *Defuntu* hitzaren gainean eztabaidatu ondoren, honako hau ezartzea erabaki da: «*Defuntu. Hobe hil, zendu, zen. Gure hilak; gure ama zena*».
- *Delibero/deliberamendu* bikotea egon da aztergai ondoren. Azkenean bi hitzek tratamendu bera izango dute, baina *deliberamendu* «erabakia» dela euskaraz eta ez erabakitzekeo denbora edo ekintza argituko da.
- *Campus* eta *camping* horrela bakarrik idaztea proposatu da. *Corpus* hitza ere atera da bileran eta *curriculum* ere aipatu da. Bozketara jo da eta *camping* nahiz *kanpin* idatziko da eta *campus* eta *corpus* bakarrik idazkera honetan onartu dira.
- *Defendatu/defenditu* aldaerak ekarri ditu Euskara Batuko batzordeak eztabaidarako. Azkenean, biak ontzat hartzea erabaki da, baina *defenditu* «lagunartekoa» markarekin.
- *Desertu* hitzaren kategoriaz Batzordeak dituen zalantzak agertu dira. Zerrendan dagoen bezala utziko da, hots, «Lit. Hobe *basamortu*».
- *Deun* sarreran markaren bat ezartzea eskatu da, honek ez duelako *santu/saindu* edo *done/dona*-ren maila berbera. Hau guztia beste batzarretarako utzita, *deun* formaren ondoan, *saindu* edo *santu* hobesten dela adieraziko da.
- *Derrigor* eta *dezente* hitzetan «lagunartekoa» jarriko dela onartu da.

— «Santutegiko izen ohikoenak» (*Adam-Henriketa*) izeneko zerrenda onartu da, J. Haritschelharrek, P. Xarrittonek eta E. Larrek egindako oharrak eztabaidatu ondoren. Hauek izan dira mahai gainean jarritako izenak:

- *Aines* onartu da *Ines*-en ordain.
- *Murtuts Fruktuoso*-ren pare jarriko da.
- *Bernat* eta *ez Bernart*.
- *Francine* kendu da frantsesezko zerrendatik eta *Frantzisko*-ren ondoan *Frantses* ere agertuko da dagokion oharraz.
- *Grazia* agertuko da eta *Garazi* beste zerrenda baterako utzi da.
- *Agustin* onetsi da *Augustin*-en kaltetan.
- *Bixente* gehitu da.
- *Blas* eta *Bladi* pareko mailan agertuko dira.
- *Domiku* pertsona izendegirako utziko dela onartu da.

### Erabakizunak

Onomastika batzordeak egindako «Mundu zabaleko uharteak» egindako txostena erabiliko da aztergai hurrengo batzarrean.



## Uztaila

### Erabakiak

Esan bezala, «Mundu zabaleko uharteak» izeneko txostena eztabaidatu da. Izen asko zuzendu dira. Besteak beste,

- *Artikoa ez Artiar*. Honi lotuta, artiko onartzea ez dakarrela *britaniko* onartzea, gehitu da. Ildo horretatik, *Aleutiar*, *Balear* eta beste izango da araua. *Uharteak* bat baino gehiago direnean eranstea eskatu da, nahiz eta gero erabileran beti beharrezko ez izan. Zeinek eramango duten *uharteak* aldamenean adieraziko da.
- *Ingeles Kanaleko uharteak* testu zaharretako ohiko izena onartu da.
- *La Gomera* eta antzekoetan artikulua auzia eztabaidatu da.

Azkenean, zerrendan izen batzuk falta direnez eta eztabaidan zenbait zalantza sortu direnez, beste zerrenda bat aurkeztuko da geroago.

### Erabakizunak

Hurrengo batzarrean aztertzeko honako txosten hauek zabaldu dira: «Biblia izenak», «Greziako izen klasiko batzuk» eta *diapositiba-dotrina* hitz saila ere banatu da.

## Iraila

### Erabakiak

— Hiztegi Batuko zerrenda (*diapositiba-dotrina*) mahaigaineratu da lehenbizi, P. Salaburuk eta I. Sarasolak aurkeztuta.

- *Diligentzia/dilijentzia* auziak denbora luzea eraman du. Lehen formaren alde agertu dira zenbait euskaltzain, horrelako hitzak, mailegu zaharrak ez direnez, *g* letraz idatzi behar direla esanez. Aldiz, I. Sarasolak, batzordearen izenean *j* letra defendatu du eta ahoskera alderdiak aipatu ditu. Gaia orokorra denez gero, espreski ikertzea erabaki da.
- *Diosal* sarrera hobetsi da eta ez *diosala*.
- *Titi* eta ez *diti*.
- *Dona* hitza ez da zerrendan agertuko, ezta *diskurtso* ere.
- *Dostatu* agertuko da, baina «hobe *jostatu*» aipamenarekin.
- *Doktrina/dotrina* bikotearen gainean eztabaidatu ondoren, biak onartzea erabaki da bozketaren bidez, esanahia bereizi gabe.
- *Doan/dohainik* formak aztertu dira. Ondorioz, hona hemen erabakia: *doan/dohainik*, batetik, eta izenondoa *doako*.

— «Biblia izenak» deituriko txostena dela eta, X. Kintanak Hebreeraren Akademiatik izen judu batzuei buruz hartu duen gutuna azaldu du. Honen arabera izenok bi forma har ditzaketeela proposatu du, hala nola, *Isaak* eta *Yitzak*.

### Erabakizunak

*Dozena-entzutetsu* zerrenda izango da aztergai urriko batzarrean.

## Urria

### Erabakiak

- Iraileko bileran erabakitzeke geratu zen *dotrina/doktrina* bikoteari heldu diote lehen-dabizi batzartuek. Sortutako eztabaidan, hainbat euskaltzain mintzatu ondoren, *dotrina*, «hobe kristau ikasbide» eta *dotrina* «hobe doktrina» erabaki da.
- *Dozena-entzutetsu* zerrendaren aurkezpena M. Azkaratek egin du Euskara Batuko batzordearen izenean. Batzordearen proposamenari zenbait aldaketa egin zaizkio:
  - *Dragoi* hitza onartu da baina *herensuge*-k ere bere sarrera izango du.
  - *Drain* eta *drainatu* agertuko dira.
  - *Ebasgo* eta *eradan*, eta ez *ebasko* eta *edaran*.
  - *Edesti* hitza bai, baina «hobe *historia*» eranskinarekin, onartu da.
  - *Ediren* onartu da *eriden*-en kaltetan. Aditz izena *edireten* ala *edireiten* behar den eztabaidatu da ondoren. Euskara Batuko batzordeak honi buruzko txostena hurrengo bilkurarako agindu du.
  - *Eduki* eta ez *edukin* erabaki da, eta *egin* sarreran izen kategoria ere adieraziko da.
  - *Egoitez* forma sartuko da.
  - *Egunero* eta ez *egunoro* erabaki da.
  - *Ehizi* eta *ehizketa* hitzak kendu dira, baina *ihizi* dagokion tokian agertuko da.
  - *Ehunki* agertuko da baina «hobe *mende*» eranskinarekin.
  - *Ekoitzi* erabaki da eta ez *ekoiztu*.
  - *Enparantza* hitzaren ondoan, «hobe *plaza*» jarriko da.

### Erabakizunak

Hurrengo batzarrean Onomastikako zerrendak eta *epai-erretratu* hitz saila aztertuko dira.

## Azaroa

### Erabakiak

- Aurreko batzarrean *edireten/edireiten* aditz formak sortu zuen zalantzari helduta, B. Oihartzabalek «Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez» txostena aurkeztu du. Honetan, euskalki hitzak forma eratorrietan eta jokatuetan nola eman behar diren aztertzen da. Adibidez, *ediren* eta *erran* aditzak, *edireten*, *erraten* ala *edireiten*, *erraiten* izan behar diren. Proposamena aho batez onartu da.
- *Epai-erretratu* zerrenda izan da eztabaidagai ondoren. Dagozkion oharrak honako euskaltzain hauek bidali dituzte: P. Goenaga, X. Kintana, E. Knörr eta Tx. Peillenek:
  - *Erail* forma berria sartu ala ez eta baiezkoan nola, eztabaidatu da. Onartu da zerrendarako.
  - *Eri/erhi* bereiztu gabe sartuko dira. *Ero* eta ez *erho*, berdin.
  - *Erakutsi* sarreran izena ere dela adieraziko da.
  - *Erla-/erle-*, *erlakume/erlekume*, *erlazain/erlezain* auzian, hainbat euskaltzainen iritzia entzun ondoren, bozketara jo da eta *erle-erlekume-erlezain* erabaki da.

- *Ernegu* eta *erreteila* hitzak sartzea erabaki da.
- *Erregalo/erregalu* formak aztertu dira eta *erregalu* hobestea onartu da.
- *Eriondo*, *ernetasun*, *erokeria* eta *errealdi* hitzak ere sartuko dira zerrendan.

### *Erabakizunak*

*Erretreta-esplotazio* zerrenda banatu da. E. Knörr eta M. Gorrotxategik, Onomastika batzordearen buru eta idazkariak, «Santutegiko izen ohikoak» zerrenda eta material osagarria aurkeztu dute.

## **Abendua**

### *Erabakiak*

- Azaroko batzarrean eskatu bezala, Onomastika Batzordearen izenean, X. Kintanak egin du «Santutegiko izen ohikoenak finkatzeko irizpideak» deritzon txostenaren aurkezpena. Bertan, argitu nahi da zer den ponte izena, santu izena eta abar. Elizaren tradizioa, herrietako jaien izenak, kantikak, atsotitzak eta abar kontutan hartu behar direla aipatu dute euskaltzainek. Edonolan, gutxienez, bi maila bereizi behar direla ikusi da, maila ofiziala eta herri maila, hau da, herri bakoitzean erabiltzen dena.
- *Erretreta/esplotazio* zerrenda aztertu da ondoren. X. Kintana, E. Knörr eta Tx. Peillen oharrak kontuan harturik, honako erabaki hauek hartu dira:
  - *Errezatu* eta *errezu* hitzei «Heg.» gehituko zaizkie.
  - *Errezelo/errezelu* formak eztabaidatu ondoren, *errezelo* onartu da.
  - *Errejent* hitza sartuko da bigarren pasaldian.
  - *Errukari*, *erruki*-ren ondoan *urriki* «damu», onartu da, eta dagokion lekuan jarriko da. Oraingoan, *erruki*-ren sarrera utziko da.
  - *Erten*, «e. *Irtén*» oharrarekin, sartzea erabaki da.
  - *Esamina/etsamina* bikotearen eztabaida, *etsamina* forma zerrendan agertzen denean, egingo da.
  - *Eskailarapeko* hitza hurrengo itzulirako utzi da.
  - *Eskukaldi* sarrera onartu da, honako bi adierekin: 1. *Kolpe*; 2. *Laguntza*.
  - *Espantagarri* forma onartu da.
  - *Espiritu/izpiritu* eztabaida ekarri da. *Izpiritu* sarrerara iristerakoan, hitz honek «h. *espiritu*» eramango du.
  - *Esparrago* hitzari dagokionez, proposamen hau onartu da: *Esparrago*, «h. *zainzuri*, *frantses-porru* nahiz *frantses porru*».
  - *Espal* hitza onartu da, «*azao*» esan nahi duela adieraziz.

### *Erabakizunak*

*Esponja-expres* hitz zerrenda banatu da hurrengo bilkurarako. Honekin batera, «Mundu zabaleko uharteen zerrenda» deritzon txostenaren irizpideak aurkeztuko dira.



### **I.3. Zenbait erabaki garrantzitsu**



### **I.3. ZENBAIT ERABAKI GARRANTZITSU**

#### **Urtarrila**

- Euskaltzaindiak Jon Bilbao bibliografoaren ondarea katalogatzea erabaki du.
- Hizkuntza eta Kultura Minorizatuentzako Europako Kontseiluak ematen duen dirulaguntza jasotzeko eskaintza dela eta, Erakundeak *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*erako eskatzea erabaki du.

#### **Otsaila**

- Antoine d'Abbadiren heriotzaren ehun urteak 1997an beteko direla eta, Eusko Ikaskuntzarekin batera Biltzar bat antolatzea onartu da.
- ICOS (International Congress of Onomastic Sciences) elkarteak hiru urtero egiten duen hurrengo biltzarraren antolatzailea, EHUren laguntzarekin, Euskaltzaindia izan dadin eskaera egitea onartu da.

#### **Martxoa**

- Eusko Ikaskuntzak, Euskadiko Kutxaren diru babesaz, antolatzen duen Giza eta Gizarte Zientzien alorrean Euskal Herriko curriculum vitae zientifiko nabarmenenarentzako sarirako, Euskaltzaindiak Luis Villasante aurkeztea erabaki du.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen «Abelino Barriola» deklamazio sariaren epaimahairako Euskaltzaindiaren kide bat eskatu du. Ahoskera batzordeko Pilartxo Etxeberria izan dadila erabaki da.

#### **Apirila**

- Nafarroako Gobernuaren Euskararen Kontseilurako, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Nafarroako ordezkaria den Jose M. Satrustegi izendatu dira osokoen bilkuran.
- Espainiako Gobernuako Kultura Ministeritzatik antolatzen diren zenbait saritarako, Euskaltzaindia ordezkatzeko duten epaimahaikideak izendatu dira:

Ibon Sarasola: «Premio Nacional de las Letras Españolas»  
Luis M<sup>a</sup> Mujika: «Poesía»  
Angel Lertxundi: «Narrativa»  
Xabier Kintana: «Ensayo»  
Eugenio Arozena: «Literatura Dramática»  
Juan Luis Goikoetxea: «Literatura Infantil y Juvenil»  
Endrike Knörr: «Traducción»

## Maiatza

- 1997an egingo den Antoine d'Abbadieren biltzarrerako, Eusko Ikaskuntzarekin Kongresu-batzordea osotzeko, hauek izendatu dira:
  - *Azpibatzorde akademikorako*: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, E. Knörr, B. Oihartzabal eta Tx. Peillen.
  - *Antolakizun azpibatzorderako*: J. A. Arana, P. Xarritton, J-L. Davant, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta.
- Errenteriako Udalak urtero antolatzen duen «Koldo Mitxelena» ikerketa sarirako, Euskaltzaindiaren izenean epaimahaikidea Juan San Martin izatea erabaki da.
- Eusko Ikaskuntzak «Giza eta Gizarte Zientzien arloan Euskal Herriko curriculum vitae zientifiko nabarmenenarentzako saria» antolatu du. Erakunde honek Euskaltzaindiaren partaidetza eskatu du epaimahairako eta, Akademiak Juan San Martin izendatu du bere ordezkari.
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren datu-base informatizatua eguneratu eta argitaratu ahal izateko, Euskaltzaindiak Aurten Bai Fundazioarekin hitzarmen bat sinatu du. Honen arabera, Fundazioak programa informatiko bat eratu behar du dagoen informazioa kontsultagai izateko. Hitzarmenarekin batera bi eranskin sinatu dira, batean planaren baldintza teknikoak agertzen direlarik eta bestean aurrekontua.
- Bruselako Europa Kontseiluak, bere Hezkuntza, Prestakuntza eta Gazteria Zuzendaritzaren bidez, Euskaltzaindiarekin hitzarmen bat sinatu du. Hitzarmen honetan, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa egitasmoarentzat 1996ko ekainaren 15etik 1997ko uztailaren 30ra arteko diru-laguntza finkatzen da. Akordio hau Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta T. O'Dwyer zuzendari orokorrak sinatu dute maiatzaren 30ean.

## Ekaina

- M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren eskariaren arabera, Euskararen Aholku Batzorderako eta Toponimia atalerako, Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu dira. J. Haritschelhar euskaltzainburua Batzorderako, eta E. Knörr Toponimia atalerako.
- 1995eko abenduan Euskaltzaindiak eta Bizkaiko Foru Diputazioak sinatu zuten hitzarmen bat Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako 145 herritan egindako zinta magnetikoak CD-ROM sistemara bihurtzeko. Horren harian, urrezko kopiaren emate-ekintza ofiziala ekainaren 27an egin da Diputazioaren Jauregian. Diska hauek hizkuntzalari eta ikerlarien eskura jarriko ditu Euskaltzaindiak.



Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko inkestak erantzunak jasotzen dituen CD-ROMa.



- Bilboko Irakasle Eskolak eskaturik, bizkaieraren gaitasun-frogaren azterketan Juan Luis Goikoetxea urgazlea egon da epaimahaikide Euskaltzaindiaren izenean.

### **Uztaila**

- Akademiaren 1997rako aurrekontua onartu da, hilabete aurretik Diruzaintzak aurkeztutako proposamenaren arabera.
- F. Krutwig euskaltzain oso izendatu zenetik berrogeita hamar urte 1997an beteko direla eta, omenaldi liburu bat eskaintzea onartu da.

### **Iraila**

- Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmenaren barruan eta E. Knörrren zuzendaritzapean, udalaren Toponimia azterketarako lantaldea sortzea erabaki da.
- Jose A. Arana Martija bibliotekarioaren zahar-saritzeagatik Azkue Liburutegian gertatu den hutsunea betetzeko egingo den eskaintzarako epaimahaikideak izendatu dira: J. San Martin, J.A. Arana, P. Altuna, E. Knörr euskaltzainak eta J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea.


### **Urria**

- Euskaltzaindiak, Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz antolatzen dituen literatur sarien epaimahaikak izendatu dira era honetara:
  - Txomin Agirre eleberri saria: Xabier Gereño, Txomin Peillen, Ana Toledo.
  - Toribio Alzaga teatro saria: Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.
  - Felipe Arrese Beitia poesia saria: Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan M. Lekuona.
  - Mikel Zarate saiakera saria: Adolfo Arejita, Andolin Eguzkitza, Alfonso Irigoien.
- Iruñeko udalak antolatu duen gazteentzako literatura sariketan, Jose M. Satrustegi izango da epaimahaikide Euskaltzaindiaren izenean.
- Aurten Bai Fundazioak eta Euskaltzaindiak hitzarmen bat sinatu dute urriaren 21ean. Honen harabera, Akademiak bere sorreratik 1978ko Bergarako Biltzarrera arte, argitaratutako *Euskera* agerkaria CD-ROM egituran jarriko da.
- Euskaltegietan behar den titulaziorik gabe lanean ari diren irakasleen egoera normalizatzeko asmoz, habilitazio-prozesua baloratuko duen epaimahaian Euskaltzaindiaren ordezkari bat izendatzea eskatu du HABEko zuzendari orokorra den Iñaki Azkuek. Zuzendaritzak Jose Ramon Zubimendi euskaltzain urgazlea izendatzea erabaki du.

### **Azaroa**

- Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak 1997rako aurkeztutako batzar egutegia onartu da. Beraz, honako hauek izango dira ohiz kanpoko ekintza akademiko nabarmenenak: martxoan, Polikarpo Iraizozen mendeurrenkari Ultzaman, eta Euskaltzaindiaren X. Barne-jardunaldiak; irailean, Antoine d'Abbadieren omenezko XIV. Biltzerra Hendaian eta Federiko Krutwig euskaltzainari omenaldia Bilbon, azaroan.
- Zuzendaritza berriaren hautaketa egin da hil honen osokoen bilkuran, hemendik aurrera honako euskaltzainok osatuko dutelarik:

Buru: Jean Haritschelhar  
Buruorde: Endrike Knörr  
Idazkari: Patxi Goenaga  
Diruzain: Jose Antonio Arana Martija



*Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza, 1996-11-29a, Zuzendaritza berria; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Jean Haritschelhar, Patxi Goenaga.*

### **Abendua**

- Alfonso Irigoien euskaltzain osoaren heriotzak Akademia honetan sortu duen samina eta dolua aipatu du euskaltzainburuak. Ondoren, Arautegiaren 33. Artikuluaren arabera, hutsunea betetzeko prozedura aditzera eman du, hau da, kargua hornitzeko proposamenak datozen bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira eta hautaketa martxo-koan egingo da.
- Abenduko osokoen batzarrean Erakundearen sailburuak eta ordezkariak izendatu dira. Hara hor:
  - Iker sailburu: Beñat Oihartzabal
  - Jagon sailburu: Miren Azkarate
  - Baionako ordezkari: Pierre Xarritton
  - Gipuzkoako ordezkari: Juan M. Lekuona
  - Arabako ordezkari: Patxi Goenaga
- J.M. Satrustegi, orain arteko Nafarroako idazkariak kargua uzteko asmoa duela eta, izendapen berria hurrengo osokoen bilkuran proposatuko da.
- Kargu hauez gain, beste erakunde batzuetan parte hartzeko izendapenak ere egin dira:
  - HABE-ren patronatorako: Miren Azkarate
  - Eusko Jaurlaritzaren Komunitateekiko Kanpo Harremanetako Kontseilurako: E. Knörr

- Herri Aginteeekiko Hitzarmenaren Jarraipen Batzorderako: J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria, botodunak izango direlarik, eta E. Knörr, J.A. Arana, J.L. Lizundia eta J. Zearreta.
- Madrilgo Biblioteka Nazionalerako: J.A. Arana.
- EHUren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren jarraipen batzorderako: P. Goenaga eta J.A. Arana.
- BBK-k diruz babesten duen gazteentzako Azkue literatur sariaren epahimahaikideak, Xabier Altzibar, Joseba Butron eta Joan Otaegi izango dira.



## **II. Sailak eta batzordeak**



## **BATZORDEEN LANA**

Euskaltzaindiaren lanaren emaitza batzorde-lanari zor zaio, batez ere, ohi denez. Euskaltzaindiak gaur egun burutzen duen lan akademikoa ezin ulertuzkoa izango litzateke hilero-hilero gutxienez biltzen diren batzordekideen lanik ez balego. Elkar-lan horrek biltzen du adituen ekarria eta hor prestatzen eta oinarritzen dira ondoren Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntz erabakiak.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Bi urtetatik bi urte-tara berriztatzen ditu Euskaltzaindiak sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak izendatzen dira edota lantaldeak sortu, kasuan kasuko batzordearen premien arabera.

Batzorde horietan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, esparru desberdinetako adituak biltzen dira: unibertsitateetako irakasleak, batxillergo institutuetao irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikoak, itzultzaileak, hiztegiak eta administrazioko teknikoak. Hori horrela izateak Euskaltzaindiaren lana aberasteaz aparte, oso oinarri sendoak eskaintzen dizkio erabakiak hartzeko orduan. Baina, horrek, bestalde, berez dakar prozedura zailtea, batzordekideek beren ogibidea baitute, eta tarteka egiten dute lan Euskaltzaindiarentzat.

### **Batzordeen lan-metodologia**


Batzordeen lana talde-lana da, eta nahiz eta hasieran batzordekide jakin baten oinarritzko ikerketatik abiatu, batzordeak bideratzen du gaia. Esan liteke, oro har, batzordeen lan-moduan ondoren adierazten diren urratsak ematen direla:

- a) Batzordeak lehenik txostenak egiteko agindua ematen die batzordekideei.
- b) Batzordekideek beren txostenak prestatzen dituzte.
- c) Batzordekideek beren txostenak irakurtzen dituzte batzordean.
- d) Batzordeak eztabaidatu egiten ditu, eta txostengileek aldatu egiten dituzte txostenak, behar izanez gero, batzordeak erabakitakoaren arabera. Prozesu honek txostenak bi edo hiru aldiz berridaztea ekar dezake berekin, batzordeak testua osorik ontzat eman arte.
- e) Zenbait kasutan, batzordeak bekadun edo lan-hitzartu baten laguntza izan dezake, esku arteko lanak edo txostenak egin ahal izateko informazioa eskuratzeko duena, Hiztegi Batua, Onomastika edo Gramatikaren kasuan bezala.


## Batzordeen bilerak

Hona hemen, grafikoen bidez azalduta, batzorde desberdinek aurten egin dituzten bilerak:

1995 eta 1996. urteetako bilerak



Batzordeen bilerak hilez hil





## **II.1. Iker Saileko batzordeak**



### **II.1.1. Hiztegitza**



### II.1.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

#### Sarrera

Akademiak bere xede eta helburu nagusien artean du euskal hiztegia biltzearena Arautegiaren 1. artikulua araberan. Azkueren hiztegia agortu zenean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari eman zion bigarren edizio eguneratua eta osatua prestatzeko agindua. Lan hori oso astiro zihoan, alde batetik, eta, bestetik, ibilian-ibilian uste ez bezalako neurria hartu zuen. Informazioa lehen baino ugariagoa zen eta baliabideak ere lehen baino hobeak, eta proiektu berri eta zabalagoari ekitea erabaki zen. Proiektua pertsona bakar batena izatetik lantalde batena izatera pasatu zen. Horrela, 1984ko maiatzaren 16an hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek eta Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia* gauzatzeko. Geroago, Nafarroako Gobernua ere atxiki zitzaion proiektu honi.

Hasierako informatizazio-plana EJIEk (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) burutu zuen, eta berak darama gai horrekiko jarraipena. Lantaldeak prestatzen du hiztegia, EJIEk prozesatzen du informazio hori liburuak duen formatoaren arabera, eta argitaletxeen (Editorial Desclée De Brouwer, S.A. eta Ediciones Mensajero-ren) esku geratzen da liburua argitaratzea eta banatzea.

Hiztegi honek garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da, eta ez arauemailea. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegi honen xedea.

Ia hirurehun liburutik jasotako corpusa aztertuz lau milioitik gorako hitz-altxorrekin lan egiten da. Hots, tradizioaren bilketa-lanean oinarritzen da proiektua.

Hiztegiaren 1. liburukia 1987an argitaratu zen, eta 9.a 1996an. Guztira 15 liburuki izango ditu.

## Lan-metodologia edo prozedura

*Orotariko Euskal Hiztegiko* (OEHko) lantaldeak kasuan kasuko liburukiaren materiala prestatua duenetik liburukia kalean izan arte urrats hauek ematen dira:

1. OEHk liburukiaren edukia duen zinta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidaltzen du.
2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EJIera bidaltzen du zinta hori.
3. EJIek (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) hau egiten du:
  - a) zintako datuak prozesatzen ditu, informazioa, kodeak eta zeinuak, liburuak izango duen erara egokituz.
  - b) Zinta egokitua Madrilera bidaltzen du, SAF izeneko fotokonposizio-etxera.
4. Madriletik, SAFetik, OEHra (Donostiara) 1. frogak igortzen dituzte.
5. OEHk hau egiten du:
  - a) 1. froga horiek zuzendu, eta
  - b) Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidali.
6. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak zinta EJIera igortzen du.
7. EJIek hau egiten du:
  - a) zuzenketak gauzatu testuan, eta
  - b) zinta berriz bidali Madrilera.
8. Madrileko SAF fotokonposizio-etxeak 2. -eta azken- frogak bidaltzen ditu OEHra.
9. OEHko lantaldeak:
  - a) zuzenketak egiten ditu, eta
  - b) zuzendu diren orriak soilik bidaltzen dira Madrilera zuzenean.
10. SAF fotokonposizio-etxeak zuzenketak egiten ditu, eta argialetxeen esku geratzen da liburukia argitaratzea.

# 1996ko lanen berri

## IX. liburukia

### IX. liburukiaren idazketa

Martxorako amaitua zen IX. liburukiaren idazketa.

### IX. liburukiaren zuzenketak

- A) Urtarriletik uztaile bitartean, liburuki honetan jaso diren GUD-JAB arteko hitzen testua zuzendu da. Zuzenketa-mota honek dagokion liburukiaren testua lantaldeak bukatu bitarteko lana hartzen du, ez geroago aipatuko diren frogen zuzenketa.

Ondoko eranskinetan erakusten dira epe honetako zuzenketa-lan desberdinei buruzko xehetasunak:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak), GUD-JAB zatia burutu da.
  - b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegi-gileen aipuak, etab.), GU-JAB zatia landu da.
  - c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, GUDA-JAB zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren bestearenak aztertuz.
  - d) Zuzenketa filologikoan eta lexikografikoan, GUDA-JAB zatia landu dute bi zuzentzaileek.
- B) Frogen zuzenketa: irailaren hasieratik urriaren amaierara bitartean, liburukiaren inprimategiko bi froga zuzendu dira, GUD-JAB arteko testua. Beraz, liburukia prest utzi da argitaratzeko.

### IX. liburukia argitaratu

1996ko abenduan inprimatu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren IX. liburukia*:

— GUD-JAB letren arteko hitzak jasotzen ditu,

— 871 orrialdeko liburukia da, eta

— 9.652 hitz-sarrera desberdin ditu.

## **X. Liburukia**

### **X. liburukiaren idazketa**

Martxotik abendura, IZE-KE letren arteko testua idatzi da, ondoko eranskinean ikus daitekeenez.

### **X. liburukiari dagozkion zuzenketak**

Atal hau, normala den bezala, gainerakoak baino gutxiago landu bada ere, zuzenketa-lan hauek burutu dira, azaroaren amaieratik abendura bitartean:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak), ID-JAR zatia burutu da.
- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.), I-JI zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, IGA-JO zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren bestearnak aztertuz.



## 1. ERANSKINA

### 1996ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
itz-	itz- ize-	ize-/izk- izo- ito / iri	its-/itx izo-/izp-	izp-/izt- jal-/jap-	je-/ji-	ji-/jo-	jo-	jo-	jo- ju-	ju- kas-	kas- kax- ke-
iza-	iza- jar-/jard	jark-/ jarr	izu- jar-	jar-	jas-	jat-	jau-	jau-	jau- kar-	kar-	kau- ki-
ins- inz-	ja-/jad jag-/jai	jag-/jai	jai-	jai-	jak-	jak-	ka-/kab-	kad-/kal-	kal-	kal- kan-	kan-
hiri- itsu-	itxo- itxu-	ita- irab- iren-	—	—	—			jaz- jaup-	jaz- kapi-	kapi- karg-	karg- kat-
ize-	—	—	—	—	—			jaur- jauz-	jauz- kao- kap	kari- karr-	kars- kat-

## 2. ERANSKINA

### 1996ko ZUZENKETA-LANAK

	KOORDINAZIOA ETA ZUZENKETA		TESTU ZUZENKETA	SARRERA BURUEN ZUZENKETA	ZUZENKETAK FIL. ETA LEXIK. MAKINARATZEA
Urtarrila	guda-/ifu	—	gu-/ib-	gu-	
Otsaila	guda/ifu- iga-/ikuz-	—	gu-/ib- id-/ig-	gu-/i-	guda-/ifu-
Martxoa	iga-/ikuz- hil-	guda-/ik-	id-/ig- ig-/ik-	i-/ij-	iga-/ikuz-
Apirila	hil-	ik-	ig-/ik ik-/il-	ik-	il-/ip-
Maiatza			il-/in-		ip-/it-
Ekaina	jab-	jab-	in-/ip-	it-	it-/jab- gud-/jab-
Uztaila	guda	guda	ip-/irau-	it-/iz-	—
Abuztua			irau-/irr-	it-/iz-	guda
Iraila			irr-/itx- iz-	iz-/jab-	(2)
Urria	jab-	jab-	iz-/jab- jad-	iz-/jab- jad-	jab-
Azaroa	jad-/jau-	—	—	jad-/jaz-	—
Abendua	jau-/jo-	—	jad-/jar-	jaz-/ji-	—

### II.1.1.2. HIZTEGI BATUKO BATZORDEA

#### Sarrera

*Hiztegi Batua* eta *Orotariko Euskal Hiztegia* dira Eukaltzaindiak lexikografiaz dituen bi egitasmo nagusiak. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea bada, *Hiztegi Batuarena* hiztegi arauemailea gauzatzea da.

Eukaltzaindiak zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Ondoren, euskararen beharrei erantzuteko nahitaezkoa zela euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea ikusi zuen Akademiak, eta horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Oinarritzko hiztegi honek eguneroko bizitzako hitz erabilienak finkatuko ditu.

Lanaren metodologia eta irizpideak zehazten pasatu zuen batzordeak 1992a, eta 1993an hasi zen lehen hitz-zerrenda aztertzen eta ontzat ematen.

Batzorde honen lan-metodologian aipatzekoak dira iritzi-emaileak. Batzordeak, hitz-zerrendak onartu ahala -letraka- 105 iritzi-emailerri igortzen dizkie, azter ditzaten eta oharrak egin, hala irudituz gero.

Hiztegi Batua bi zatitan lantzen da. Horietan lehenak forma erabilienak edota hedatuena jasotzen ditu, eta bigarrenak erabilera urriagokoak. Lehenengo zatiaren Z letraraino iritsi da Hiztegi Batuko batzordea 1996ko abenduan, 20.000 hitz edo forma aztertuz. 1997an lantzen hasiko den bigarren zatiak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Osatu eta argitaratzean, guztira 35.000 hitz inguru izan ditzake Hiztegi Batuak. Eukaltzaindia, bere aldetik, hasia da lehen zatiko formak argitaratzen, hitz-zerrendak osoen batzarretan aztertu, onartu eta arautuz.

### 1996an burututako lanak

#### Batzordeak hitzak aztertzea

Hiztegi Batuko batzordeak 1996n zehar hamazazpi bilera egin ditu, eta bilera horietan 5.970 hitz edo forma ikusi nahiz berrikusi ditu, eta horietatik:

- 770 inguru hitz aurreko pasaldietan azterkizun utzitakoak, eta
- 5.200 hitz pasaldi honetako aztergai berriak. Formen jatorriari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia*-n halako tradizio sendoa dutenak dira eta EEBSren (*Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*-ren) corpusean maizenik agertzen dira horietako gehien-gehienak.

Batzordeak landu duen hiztegi-zatia *muilatu* eta *zanpanzar* hitzen artekoa da. Hitz edo forma horiek, Hiztegi Batuko bekadunek prestatutako 553 txosten arrunten eta 20 bat txosten sistematikoren argitan eta batzordearen irizpideen haritik landutako proposamenak izan dira.

## **Argibideen txostena eguneratzea**

Alde batetik, batzordearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da.

Bestetik, forma desberdinak aztertu dira kasuan kasuko informazioaren argitan: informazio horien artean, aipatu beharrekoak dira hemen batzordearentzat lan egiten duten bi bekadunek eta UZEIko prestalaneko taldeak egindako txostenak. Informazio horien argitan, forma edo hitz bakoitzaz batzordeak bere iritzia eskaini du:

- onartzeko forma den
- beste baten aldean hobestekoa den
- bigarren mailan onartzekoa den
- okerra den
- zein eremutan erabiltzekoa den
- nola ageri den syntaxian
- zein adiera duen
- etab.

Datu horiek guztiak jaso eta egituratzen dituen dokumentua da batzordearen lanaren lekuko, eta horixe da euskaltzainei eta gainerako iritzi-emaileei banatu zaiena.

## **Euskaltzainei eta iritzi-emaileei hitz-zerrendak bidali**

Urtean zehar hitz-zerrenda hauek banatu dizkie batzordeak euskaltzainei eta beste iritzi-emaileei:

- 1996ko apirilean: M-N letrez hasitako 1.915 hitz (M: 1.368, N: 547).
- 1996ko uztailen: O-P-R letrez hasitako 2.223 hitz (O: 1.015, P-R: 1.208).
- 1996ko azaroan: S-T letrez hasitako 2.580 hitz (S: 1.230, T: 1.350).

Guztira, M-T arteko hitzak 6.718 izan dira. Horietatik 5.877 onartuak ditu batzordeak, 457 baztertuak eta 384 hurrengo pasaldian hobeto ikusteko utziak.

## **Euskara Batuko batzordeari hitz-zerrendak pasatzea**

Euskaltzainek eta iritzi-emaileek egindako oharrak erantsiz, eta bestelako informazioak (hau da: tradizioko lekukotasunak eta batzordearen irizpideak) soilduz, Hiztegi Batuko batzordeak Euskara Batuko batzordearen esku utzi du landutako parte bat, batzorde honek bateratu eta Euskaltzaindiari aurkez diezaion erabakiaren eske.

1996ko maiatzean, C eta L letren arteko 8.200 bat hitzeko zerrenda eman dio Hiztegi Batuko batzordeak Euskara Batukoari.

## **Hizkuntz kontsultak**

Batzordeak urtean zehar hiztegiak jaso diren kontsulta hauei erantzun die:

- Bizkaiko garraio-enpresa batetik egindako galderari erantzun zaio, *oparitu* eta *opari egin* aditzen erabileraz.

- Barakaldoko Alkartu Ikastolatik, laburdura erabiltzerakoan *cm* ala *zm* idatzi behar den egindako galderari erantzun zaio.
- Portugaleteko *Bilboko hiritar itsasketaren goi-eskola*-tik, ikastetxe horren euskal izenaren egokitasunaz egindako kontsultari erantzun zaio.
- Kopistegi batetik egindako galderari erantzun zaio, *ebatu* eta *oratu* aditzen egokitasunaz, eta horien erregimenaz.
- Bilboko Santutxuko Euskal Eskolak egindako kontsultari erantzun zaio, *beldur naiz*, *beldurrak nago*, *beldurra dut* aditz-formez.
- «La Caixa - Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona» banketxetik egindako galderari erantzun zaio, *segurtasun-kisketa*, *-krisketa* eta *-txingeta* aukeretatik zein den egokiena.
- Testugintzan diharduen Bilboko profesional batek *behartu* aditzaren erregimenaz egindako galderari erantzun zaio.
- Langile Komizioak (CC.OO) Sindikatuak, *federazio* / *federakunde* hitzetatik zein den egokiena egindako galderari erantzun zaio.



## **II.1.2. Gramatika batzordea**





## GRAMATIKA BATZORDEA

### Sarrera

Batzorde hau aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak (EGLU)* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea menderakuntza aztertzen ari da, ondoren, gai horretaz liburu bi argitaratzeko (\*). Liburu horiek ere lehenago aipaturiko liburu-sortan kokatuko dira. *Menderakuntzaren* barnean, *-en* eta *-ela* menderagailuen azterketa egiten dihardu batzordeak, txostenak prestatuz eta eztabaidatuz, behar diren idatzaldiak eginez.

### 1996an egindako lana

Gramatika batzordeak 1996an hamaika bilera egin ditu. Batzordeak txosten hauek aztertu eta zuzendu ditu, urtean zeharreko bilera desberdinetan eztabaidatu ondoren, batzuetan idatzaldi bi baino gehiago eginez:

#### 1. *-en* eta *-ela* menderagailuen txostenen bigarren idazketa:

- «Etxepareren zenbait erlatiboazko perpaus»
- «Perpaus konparatiboak»
- «*-na* konplementatzailea»
- «*-(e)n* + adberbio hondarkiak»
- «*-(e)n* + posposizioak edo elementu klitikoak»
- «Perpaus erlatibo arrunta»
- «Zehar galderak»
- «Harridurazko perpausak»
- «Maila konparatiboak»
- «*Bezalaren* bidez eratutako perpausak»
- «*-(e)no* atzizkiaz osatutako perpaus adberbialak»
- «*-(e)nez / -(e)naz* posposizioak»

---

(\*) Jarritako plan honen arabera kronograman menderakuntzari buruzko argitalpen bakarra zuen aurreikusia batzordeak. Baina 1996. urtean zehar batzordeak, argitalpen bakar eta handi baten ordez bi argitalpen txikiago egitea erabaki zuen. Lehen liburuan perpaus konpletiboak, erlatiboak eta konparatiboak joango lirateke, eta gai hauek aztertzeari lotu zaio batez ere batzordea.

## 2. - ba- eta bait- aurrizki menperatzaileak: txostenen lehen idatzaldia

- «Zehar galderak» (*ba*-ren erabilerari dagokion atala)
- «*Nahiz... -en, zeren...* perpaus txertatuak».

### Hizkuntz kontsultak

Erakunde zein hiritarrendandik jasotako hizkuntz kontsulta hauei erantzun die batzordeak:

- Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzatik eskatutako irizpena eman da, *Eusko Tren* ala *Euskotren* izan behar duen.
- Beasaingo Udaletxeko Euskara Zerbitzutik egindako hizkuntz kontsulta, *Maite zintugunok gogoan zaitugu* ala *Maite zaitugunok gogoan zaitugu* izan behar duen.
- Eibarko Udaletik jasotako kontsultari -ea bertako Kultur Etxearen izenak *Portale*, *Portalea* ala *Portalekoa* izan behar duen- erantzun zaio, Onomastika batzordearekin batera.
- Gasteizko AEK-tik egindako galderari erantzun zaie, *ikusiTAKO*, *eginDAKO* eta antzeko egiturez, *oso gustatzen zait* eta *nola ez naizen etorri* esamoldeez.
- Amurrioko Udal Euskaltegiak gai hauei buruz egindako hizkuntz kontsultei erantzun zaie: *gatzelaniazko no pude ir* eta *hube podido* euskaraz esateko era desberdinez, eta *ibili* aditzarekin *non* ala *nondik* erabili behar den.

### Iturriak

Aurreko urteetan bezala, 1996an ere Gramatika batzordea *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpuseko informazioaz baliatu da, gehien bat, bere lana egiteko. Nahitaezkoa da honela jokatzeko egiten diren ikerlanek behar bezalako oinarria izan dezaten. Jesus Mari Makazaga batzordekideak egin du lan hori, aipaturiko corpus horretatik txostengileek eskatutako adibideak bilduz eta eskuratuz.

Beste zenbait batzordekideek ere aurkeztu dituzte bileretan beste iturri batzuetako ikerketak.

**II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea**  
**Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)**



## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

Euskarak oraindik ez zuela bere atlasa ikusirik, eta ezin atzeratuzko premia zela, Euskaltzaindiak proiektu zabal hau abian jartzea erabaki zuen 1984an: Euskal Herriko Hizkuntz Atlasarena, hain zuen. Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen, eta horretarako batzordea sortu. Hain zuzen, Julio de Urquijo jaunak, 1918ko Oñatiko Biltzarrean, sortu berri zen Euskaltzaindiaren bi xede nagusiak aipatu zituen: hiztegia aberastea eta atlasa egitea. Hala zioen Julio de Urquijo jaunak, 1918an lau Diputazioen babesean antolatu zen Oñatiko Biltzar horretan:

«... pero si las Diputaciones vascas y el país en general desean que esta ciencia se ponga de una vez a la altura de otras ramas, hoy más adelantadas, de la lingüística, debería decidir, lo antes posible, la formación del *Atlas Lingüístico del País Vasco*».

Batzorde horrek inkesta-sarea, galdesorta eta inkesta-metodologia landu eta finkatu zituen, eta 1986an probak egin ondoren 1987an hasi ziren inkestak egiten horretarako inkestagileak hitzartuz.

Euskal Herriko 145 herritan egin dira inkestak: Bizkaiko 36tan, Gipuzkoako 36tan, Arabako 1-ean, Nafarroako 27tan, Lapurdiko 15etan, Nafarroa Behereko 18tan eta Zuberoako 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun bildu dira. Horietatik 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. Goian esandako 145 herrietan egin diren inkestez 2.400 zinta grabatu dira, guztira, burutu ondoren 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioa osatuz.

Inkesta jasoketa burutu eta haien ondorioak eskuz koaderno batzuetan (herri bakoitzeko koadernotan) jaso ondoren, 1990ean datu-base automatizatu bat eratzea erabaki zen. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIEk) berriazko programa egin zuen, eta harrezkerotik lantaldea datuak base horretan sartzen aritu izan da.

Halaber, 1995 eta 1996an iraupen luzeko disko konpaktoetan jarri dira inkesten erantzunak jasotzen dituzten zinta magnetikoak, Atlasaren corpus fonikoa gisa horretan segurtatua dagoelarik.

Egitasmoaren helburua inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea, eta oro har ondorio horiek publikoaren eskuetan jartzea da.


## 1996an egindako lanak

EHHA batzordeak lau alor desberdinetan ihardun du nagusiki 1996. urtean: datuen informatizazioa izan da lehena eta garrantzitsuen; informatizatuak dauden datuen eraldaketa eta ingurune berrira garraiatzea, bigarrena; datuak informatizatzeko aplikazio berria sortzea, hirugarrena; datuen argitalpenari begira eraiki behar den aplikazioaren diseinua zehaztea, laugarren eta azkena.

### Hirugarren liburukirako inkesten datuak sartzen jarraitu

Hirugarren liburukirako datu-sarrera 1996. urtearen hondarrean hasi zuen lantaldeak. Datuen informatizatzeko ohiko abiadura eraman du urtearen lehen bederatzi hilabeteetan, baina moteldu egin da azken hiruhilabeteetan, datu-sarrera berriaren jarraipen-egiaztapenak direla eta.

1. irud. Datuen informatizazioa 1996. urtean



S1: aldi bakoitzeko datuak; S2: datu metatuak.


1996an 53 inkesta informatizatu dira (ikus 1. irud.). Guztira, dagoeneko, hirugarren liburukiko 80 inkesta daude informatizatuta.

Hona hemen, datuak informatu diren 53 herri horiek zein diren:

- Bizkaia (9): Mendata, Leioa, Errigoiti, Mañaria, Lemoa, Laukiz, Sondika, Ondarroa eta Zollo.
- Gipuzkoa (18): Legazpi, Getaria, Donostia, Mendaro, Lasarte, Pasaia, Oiartzun, Oresa, Hondarribia, Zegama, Ataun, Zestoa, Ikaztegieta, Ezkio-Itsaso, Arrasate, Leintz-Gatzaga, Deba eta Eibar.
- Lapurdi (3): Urketa, Mugerre eta Bardoze.
- Nafarroa: (8): Etxaleku, Eugi, Abaurregaña, Eiaurrieta, Zugarramurdi, Mezkiritz, Alkotz eta Zilbeti.
- Nafarroa Beherea (3): Isturitze, Larzabale eta Bastida.
- Zuberoa (12): Ürrüstoi, Barkoxe, Phagola, Santa Grazi, Larrañe, Altzai, Eskiula, Muntori, Sohüta, Altzürükü, Domintxine eta Urdiñarbe.

Horrekin batera, lehen sartutako inkesta hauen zuzenketak sartu dira ordenagailuan: Urdiain, Arbizu, Leioa, Mendata, Eugi, Etxaleku, Gatzaga, Eiaurrieta, Zugarramurdi, Ondarroa, Arrasate, Abaurregaina, Laukiz, Legazpi, Sondika, Zollo, Mezkiritz, Alkotz, Zilbeti eta Donostia.

**2. irud. Hirugarren koadernoko datu-sarreraren lurraldekako egoera 1996. urtearen amaieran**




S1: informatizatuta; S2: egiteko; S3: guztira.

**Datu-sarreraren egoera orokorra**

Ondoko taulan adierazten da 145 herrietako bost koadernoetan dauden datuak zenbateraino sartuta dauden ordenagailuan:

**3. irud. Datu-sarreraren egoera orokorra 1996. urtearen amaieran**



## **Informatika eguneratzea**

Hiru zati ditu informatikaren eguneratzeak:

- orain arte sarturiko datuak datu-base bakarrean jasotzea;
- datuen sartzeko programa berriztatzea;
- datuak argitaratzeko aplikazioa burutzea.

### **a) Orain arte sarturiko datuak datu-base bakar batean jaso**

EHHA egitasmoko lehen bi liburukiei dagozkien datuak (diskete eta streamerretan gordetzen zirenak) datu-base batean ipini dira. Datu-base hau CD-ROM euskarrian ezarri da eta kopia desberdinak egin. Lau hau Aurten Bai Fundazioak egin du.

Datu guztiak datu-base bakarrean jaso ostean Windows ingurunera garraiatu dira, elaboraketa lanak ingurune honetan burutuko dira eta. Datuen garraiatzean arazo batzuk sortu dira. Aipagarrienak ondoko hauek izan dira: datu fonetikoaren tratamendua eta jasotako proposamen desberdinen tratamendua; batzordeak Windows-erako poliza edo letra-mota berria sortu du API alfabeto fonetikoaren euskararen egoerara egokituz, EHHA-ko datuak nazioartean ahal denik eta modu estandarrean ager daitezten.

Lantaldeak ardura berezia jarri du datuen osotasuna gordetzeko, ingurune batetik besterako garraioan daturik gal ez zedin.

### **b) Datuak sartzeko programa berriztatu**

EHHA batzordeak, informatizatutako datuen egokitzapena amaitu ostean, datu-sarrerako aplikazio berria egiteari eman dio lehentasuna.

Ekimen hau uztailearen hasieran jarri da abian. EHHA batzordeak bertsio desberdinak jaso ditu egiaztatzeko. Lanak denbora asko hartu dio Aurten Bai Fundazioari eta uste baino denbora gehiago behar izan da amaitzeko. Urtearen hondarrean ñabardura batzuen zuzenketen zain gelditu da.

Lanaren kalitatea bermatzeko batzordearen eta informatikarien artean harreman estua izan da, horretarako fase desberdinetan batzordekide guztiak hartuak izan direlarik. Horrela, gainditu ahal izan dira hasierako kontzepzio-arazoak eta programa irekia lortu da, kasuistika zabal bati bidea emanez.

### **c) Datuak argitaratzeko aplikazioa burutzea**

Hurrengo urratsa mapak eta erantzun zerrendak eratzeko sistema moldatu eta datu-basean bildutako datuak baliatzen hastea da, baina atal hau egiten hasi baino ez da egin.

Urtea aurrera joan ahala eta datuen informatizatzeko programa berria eraiki den neurrian, datuen elaboraketa eta argitaratzeko programaren diseinuan gogoeta egin da batzordean.

## **EHHako zintetatik CD-ROMetara**

EHHA egitasmotan grabatu diren zintak (4.200 ordu) CD-ROMetan jartzea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Bizkaiko Diputazioaren diru-laguntza baten bidez Aurten Bai



Fundazioak burutu du lana. Iaz hasitako lana 1996.ean amaitu da. Bi CD-ROM mota burutu dira: masterra deitua (4.200 CD-ROM), merkatuan denik eta kalitate handiengan, eta kalitate urriagoko konprimituak, materiala erabilgarri izan dadin.

### **EHHako CD-ROM konprimituen kalitate akustikoa**

CD-ROM konprimituen kalitate akustikoa bermatzeko Inma Hernández, EHuko Automatika, Elektronika eta Telekomunikazio saileko ikertzaileari eskatutako txostena jaso du otsailean EHHA batzordeak. Txostenak bost orrialdetan zehatz eta labur aurkezten du masterrez gain erabiltzeko egin diren CD-ROMen arazoa zertan den.

Ahots dokumentazioa kontsultagarri egiteko irizpideak landu ditu batzordeak eta Euskaltzaindiari aurkeztu.

### **Material berritzea**

Ordenagailu eta programa berriez hornitu da batzordea. Bi ordenagailu berri erosi dira, aurretik zehazturik zegoen eran eta ezaugarriekin. Tresnok datuen elaboraketa eta argitalpenerako Bilbon eta Baionan erabiliko dira.

Datu-sarrerarako ordenagailuak Aurten Bai Fundazioak utzi dizkio Euskaltzaindiari. Hauetan datuen segurtasun kopiak egiteko *zip*-ak erosi dira.

### **Aurkezpenak**

Ekainaren 27an, EHHako CD-ROM audioen aurkezpen ofiziala egin da Bizkai-ko Diputazioan, J. Bergara diputatu nagusia eta J. Haritschelhar euskaltzainburua, bertan izan direlarik.

EHHako 1. eta 2. liburukiko basea era kontsultagarrian jarri du Aurten Bai Fundazioak. Base honen aurkezpen ofiziala goiko ekintzaren egun eta toki berean egin da. Ondoren leku eta jardunaldi desberdinetan erakutsi da: Irisarrin, «Hondarearen egunean», urrian, B. Oihartzabal eta X. Videgainek; Donostian «Euskal informatikarien jardunaldietan», azaroan, I. Etxebeste eta K. Seguroiak; Durangon «Euskal liburu eta disko azokan», abenduan.

### **EHHaren inguruko zenbait txosten**

A) Batzordez kanporako egindako txostenak:

- Beñat Oihartzabal: «Atlas Linguistique du Pays Basque. Demande de Subvention (1996-1997)». Commission européenne.
- Beñat Oihartzabal: «Atlas Linguistique du Pays Basque. Demande de Subvention (1996)». Fond commun de Cooperation Aquitaine / Euskadi / Navarre.
- Beñat Oihartzabal: «Ahots dokumentazioa nola kontsultagarri egin. Proposamena (1996-01-25)».
- Gotzon Aurrekoetxea: Eragile teknikariak eskatuta EHHA proiektuaren eguneratzea, BBV Fundazioan aurkezteko.

- Gotzon Aurrekoetxea «EHHako CD audioak direla eta».
- Xarles Videgain: «Bildutako altxorraz berri emaita: eztabaidatzeko»

B) Hizkuntzarekikoak:

- Gotzon Aurrekoetxea: «EHHatik APIrako transliterazio taula».
- Xarles Videgain: «Transliterazioa: arazoak».
- Gotzon Aurrekoetxea: «Transliterazio taulako arazo eta bestelakoak».

C) Batzorde barnekoak. Nagusiki, datu-elaboraketa, kartografia eta mapagintzari buruzko proposamenak landu dituzte batzordekideek, eta, bestetik, Aurten Bai Fundazioak EHHArako egindako aplikazioa egiaztatu eta zuzentzera bideratutako lanak egin dira, datu-sarrera zahar eta berriaren arteko loturak zainduz.

ERANSKINA  
**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA**  
**DATU-SARRERA: 3. ATALA (1996-12-31)**

INKESTA HERRIA	ATALAK				
	1	2	3	4	5
101 Getxo					
102 Leioa					
103 Zollo					
104 Sondika					
105 Laukiz					
106 Lemoiz					
107 (Uribe-) Etxebarri					
108 Zaratamo					
109 Orozko					
110 Mungia					
111 Zeberio					
112 Bakio					
113 Fika					
114 Larrabetzu					
115 Arrieta					
116 Lemoa					
117 Dima					
118 Zeanuri					
119 Errigoiti					
120 Bermeo					
121 Busturia					
122 Euba					
123 Mañaria					
124 Otxandio					
125 Ibarri					
126 Mendata					
127 Kortezubi					
128 Elantxobe					
129 Berriz					
130 Arrazola					
131 Elorrio					
132 Bolibar					
133 Gizaburuaga					
134 Lekeitio					
135 (Markin.-) Etxebarri					
136 Ondarroa					
201 Aramaio					
301 (Leintz-) Gatzaga					

INKESTA HERRIA	ATALAK				
	1	2	3	4	5
302 Arrasate					
303 Eibar					
304 Araotz (Oñati)					
305 Oñati					
306 Bergara					
307 Elgoibar					
308 Mendaro					
309 Deba					
310 Azkoitia					
311 Urretxu					
312 Legazpi					
313 Zegama					
314 Ezkio-Itsaso					
315 Zestoa (Arroa)					
316 Azpeitia					
317 Getaria					
318 Beizama					
319 Beasain					
320 Ataun					
321 Errezil					
322 Aia					
323 Orio					
324 Asteasu					
325 Ikaztegieta					
326 Amezketa					
327 Tolosa					
328 Donostia					
329 Lasarte					
330 Andoain					
331 Elduain					
332 Oresa					
333 Hernani					
334 Pasaia					
335 Oiartzun					
336 Hondarribia					
401 Urdiain					
402 Arbizu					
403 Dorrao					
404 Gaintza					
405 Leitza					
406 Etxarri					

INKESTA HERRIA	ATALAK				
	1	2	3	4	5
407 Oderitz					
408 Goizueta					
409 Ezkurra					
410 Beruete					
411 Igoa					
412 Etxaleku					
413 Suarbe					
414 Sunbilla					
415 Donamaria					
416 Etxalar					
417 Alkotz					
418 Aniz					
419 Lekaroz					
420 Zugarramurdi					
421 Eugi					
422 Erratzu					
423 Zilbeti					
424 Mezkiritz					
425 Luzaide					
426 Abaurregaina					
427 Eiaurrieta					
501 Hendaia					
502 Donibane-Lohizune					
503 Azkaine					
504 Sara					
505 Senpere					
506 Ahetze					
507 Arrangoitze					
508 Uztaritze					
509 Mugerre					
510 Itxasu					
511 Urketa					
512 Beskoitze					
513 Hazparne					
514 Makea					
515 Bardoze					
601 Aldude					
602 Bidarra					
603 Baigorri					
604 Arnegi					
605 Uharte-Garazi					

INKESTA HERRIA	ATALAK				
	1	2	3	4	5
606 Irisarri					
607 Isturitze					
608 Arruta-Sa.					
609 Armendaritze					
610 Esterenzubi					
611 Gamarte					
612 Landibarre					
613 Behorlegi					
614 Arboti					
615 Garruze					
616 Jutsi					
617 Larzabale					
618 Bastida					
701 Phagola					
702 Domintxine					
703 Urdiñarbe					
704 Altzürükü					
705 Larrañe					
706 Altzai					
707 Sohüta					
708 Muntori					
709 Santa-Grazi					
710 Ürrüxtoi					
711 Barkoxe					
712 Eskiula					

#### **II.1.4. Onomastika batzordea**





## ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika batzordeak hamalau bilera egin du urtean zehar. Bilera horietatik zazpitan Exonomastika lantalde edo azpibatzerdeko kideek parte hartu dute, esku artean arlo horretako gaiak zirelako.

Horrezaz gainera, batzordeño batek beste 6 bilera egin du, batez ere *Euskal Deituren Izendegia*-ren argitalpena prestatzeko.

### Euskal Deituren Izendegia

Deituren idazkeran erabilitako irizpideak finkatutakoan eztabaidarako zerrendak prestatu dira. Zerrenda horiek Onomastika batzordeak eztabaidatu ditu, eta azkenik onartu egin ditu. Guztira, 9.000 deitura inguru onartu dira. Deitura-zerrendekin batera, horien idazkera erabakitzeke orduan erabilitako irizpideen berri ematen da liburugaia-  
ren sarreran.

Deituren zerrenda horiek, ondoren, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailordetzara igorri dira, Madrileko Justizia Ministeritzarekin lortutako akordioaren arabera argitaratzeko. Argitalpen-kostua bi erakunde horien gain joango da.

Argitaratuko den deitura-zerrenda horretaz gainera, badira deitura gehiago, baina duten zailtasunagatik edo behar besteko informazioa osatu bitartean gerorako utzi dira. Onomastika batzordeak deitura horiekin lanean jarraitu du, onartu gabeko deiturak izendegi honen eranskin gisa argitaratzeko.

### Ponte Izendegia

Aurreko urtean hasitako batze-lanarekin jarraitu da, lehen argitaratutako Ponte Izendegiari geroztik emandako izenak gehituz. Batzordean eztabaidatzeko lehen zerrendak prestatu dira: zenbait izen hipokoristiko kenduz, beste batzuen idazkera zuzenduz, izenekiko sexu-bereizketa argituz, eta oro har egokitze-lana eginez.

Bigarren urrats batean, aztertu den dokumentazioan agertutako euskal izen zaharrak ere gehitu dira. Kidetasun zerrendak egin dira (adibidez, *Pedro* nola esan euskaraz: *Petri, Peru, Pello, Kepa*, baina ez *Peio*). Horri guztiari, euskaltzain osoen batzarrean onartutako «Santutegiko izen ohikoen zerrenda»ren lehenengo zatia gehitu zaio, hots, *Adam - Henriketa* arteko izenak. *Hiazintatik* aurrerakoa onartzen denean zati hori gehituko zaio.

## Herri- eta auzo-izendegiak

Euskal Herriko zenbait udal-izen eta, batez ere, Arabako kontzejuen izenei buruzko irizpen-eskaerei erantzun zaie:

Aiara	Iruña Oka
Alda	Izurtza
Altzola	Kanpezu
Ametzaga (Asparrena)	Kontrasta
Añana	Kuartango
Apodaka	Kripan
Areeta	Laminoria Erret Harana
Artatza, Elexalde, Lamiako	Lantziego
Atiaga	Larrea
Berrikano	Legutiano
Billar	Luiaondo
Bitoriano	Luku
Burgelu	Mañueta
Domaikia	Mendibil
Donebikendi Harana	Munitibar / Arbatzegi-Gerrikaitz
Donemiliaga	Ondategi
Egino	Turtzios
Erribera Beitia	Uribarri Harana
Etxabarri / Dibina	Villabuena
Etxabarri / Kuartango	Zaitegi
Gaztelugatxe	Ziordia
Gesaltza / Añana	Ziriano
Ilarduia	Zornotza / Amorebieta-Etxano

Nafarroako Herri-izendegia berrikusten hasteko aurrepausuak eman dira. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria eta idazkariorde-kudeatzailea Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendariarekin bildu dira Nafarroako herri-izendegia berrikusten hasteko, baliabideak -besteak beste, *Nafarroa: Toponimia eta Mapagintza* liburuaren datu-basea- gureganatuz.

## Exonomastikako hitz zerrendak

Batzordeak exonomastika alorreko zenbait gairi buruzko txostenak edota hitz-zerrendak prestatu eta eztabaidatu ditu. Horietako batzuk euskaltzainei aurkeztu zaizkie, eta Euskaltzaindiak hileko batzarretan zehar gai horiei buruzko erabakiak hartuak ditu. Hona hemen batzordeak prestatu eta landutako txostenak:

- «Santutegiko izen ohikoen zerrenda» aurkeztu da, Euskaltzaindiak *Adam - Henriketa* artekoa onetsi duelarik. Izen-zerrendaren proposamenarekin batera, beste hizkuntzetako lekukotasunak aurkeztu dira; zerrendak prestatzeko orduan erabilitako irizpideak eta sarrera eskaini dira, idazkera finkatzeko kon-tuan hartu beharreko materialen txostena osatuz: oikonimoak (etxe-izenak), toponimoak (leku-izenak), hagiotoponimoak (santuen leku-izenak), idazle kla-sikoen aipamenak eta dokumentazio zaharretako testigantzak. (\*)

(\*) «Latin jatorriko izenen idazkera arautzeko irizpideak eta latinezko idazleen zerrendak» ere landu du Onomastika batzordeko bekadunak, geroago batzordeak erabakitzeko eta euskaltzainei aurkezteko.

- «Mundu zabaleko uharteak»: uharte nagusien idazkerari buruzko proposamena aurkeztu zaie euskaltzain osoei, eta euskaltzain osoen batzarrean aztertu arren ez da eztabaida amaitu, eta beraz ez da zerrenda osorik onartu.
- «Ibaiak» eta «Aintzirak». Ibai eta aintzira nagusien idazkerari buruzko proposamenak aurkeztu zaizkie euskaltzain osoei hileko osoen batzarrean.
- «Bibliako izen ohikoenak». Gaia euskaltzainen osoen batzarrean aurkeztu da.
- «Greziako izen klasiko batzuk». Gaia euskaltzainen osoen batzarrean aurkeztu da.
- «Itsaso eta ozeanoak». Gaia euskaltzainen osoen batzarrean aurkeztu da.
- «Munduko hizkuntz familiak». Gai honi buruzko proposamena prestatu du batzordeak.

### **Hiritarren nahiz erakundeen kontsultei erantzun**

Onomastika batzordeak, jasotako eskabideei erantzunez, gaiak aztertu ditu eta lekukotasunak eta iturri desberdinak eztabaidatu ondoren, kasuan kasuko erabakiak, irizpen mailakoak edo bestelakoak, hartu edo bideratu ditu, horien berri interesatuei emanez:

#### **Hiritarrekikoak**

Deiturez, ponte-izenez (batez ere jaioberrientzako ziurtagiriak) eta leku-izenez egindako banan-banako galdera solteei erantzun zaie, eta hala bazegokion, aldez aurretik batzordean eztabaidatu dira eta gaiak eskatzen zuenean ahoskera ikertu edo berariazko txostena egin.

#### **Erakundeekikoak**

Batzordeak, ondoren aipatzen diren erakundeekin harremanak izan ditu, batzorde-idazkariaren bidez, berau erakunde horien egoitzetara joanez edo ikerketak egitera kanpora joanez:

- *Metro Bilbao*-ren eskaerez: lurpeko geltokien izenez eta geltokien irteeren izenez txosten bana egin da eta eskatzaileei igorri. Horretaz gain, mapetan agertzen diren inguruko kale-izenez ere egin da txosten bat. Kale-izendegia zuzentzea udal-batzei dagokienez, proposamenen kopia bana igorri zaio tokian tokiko udalari, egin beharreko zuzenketak eta aldaketak egin ditzaten. Ondoren, udalerriek Euskaltzaindiari eman diote erabakitakoaren berri, eta honek *Metro Bilbao*-ri igorri dio informazio hori. Horretarako, Metroa igarotzen den herrietako agintariekin jarri da harremanetan batzordea, Erandio, Getxo, Leioa, Plentzia, Urduliz, Berango eta Bilboko udal-agintariekin eta teknikariekkin bilduz.
- Gasteizko Udalak eta HAEE/IVAP-ek kale- eta herri-izenez egindako irizpen-eskaerak.
- Euskal Mendizale Federakuntzak mendien katalogo berriaz egindako eskaerari erantzun, eta hurrengo argitalpenean egin beharreko zuzenketak prestatzen hasi.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak *Sierra Brava de Badaya* izenaren ordainaz egindako eskaera.

- Iruñeko Udalak leku-izenez egindako eskaera.
- Eibarko Udaletik bertako Kultur Etxearen izenaz jasotako kontsultari -ea *Portale, Portalea* ala *Portalekoa* izan behar duen- erantzun zaio, Gramatika batzordearekin batera.
- Madrilgo Diputatuen Kongresuko idazkaria den Jose Juan Gonzalez de Txabarrik eskatutako *Araba, Bizkaia* eta *Gizpuzkoa* herrialdeen izenei buruzko irizpenak.
- Mungiako *Berreaga* auzoaren izen zuzenaz.
- Bizkaiko Foru Aldundiak errepideen seinalizazioez egindako eskaera.
- Eusko Trenbideak Txorierriko lineako geltoki-izenez egindako eskaera.
- Azkue Bibliotekak pertsona-izen eta deiturez egindako eskabideari erantzun zaio.
- Zornotzako / Amorebieta-Etxanoko Udalak *Larrea* auzo-izenaz egindako eskaera.
- Gipuzkoako Herniobe Batxillergo Institutuak, bere izenaz egindako eskaera.
- Universitat des Illes Balears-ek, Euskal Herriko zenbait leku-izenez egindako eskaera.
- EUDEL (Euskadiko Udalerrien Elkarte): Bilera egin dute Euskaltzaindiko Zuzendaritzak eta EUDELeko Euskara batzordeak. Ondorioz, EUDELeko eta Euskaltzaindiko kudeatzaileek alor honetan aholkularitza gauzatu ahal izateko plana aurkeztu dute, udalen elkarteak bere baitan barreiatzeko eta ondoren lankidetzeta-hitza armena sinatzeko.

### **Kale izendegietarako irizpide nagusiak**

Espreski kale-izendegietarako irizpideez izan ez bada ere II. Jagon Jardunaldiatarako Jagon sailak egindako inkestari erantzuten parte hartu du batzordeak. Inkesten erantzunetan, Onomastikako gaiari buruzko galderak egon dira, eta alor horretako erantzun-proposamenak batzordeak prestatu eta egin ditu, nahiz eta galdetzaileei erantzuna Jagon sailak bideratu.

Zenbait udali aholkularitza eman dio batzordeak:

- Barakaldoko Udalarekin hitzarmena sinatu da, bertako kale- eta auzo-izenak aztertu eta finkatzeko. Lan hori 1996an hasi da eta 1997an amaituko da.
- Leioako Udala: batzordeak bertako auzo-izenei buruzko ikerketa eta irizpen-proposamena egin du, eta hori guztia Leioako Udalari igorri zaio.
- Gasteizko Udala: Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak sinatu duten hitzarmenaren barruan, horretarako sortu zen Batzordeak egindako Gasteizko kale-izendegia aztertu eta onartu du Onomastika batzordeak.

### **Onomastikari buruzko argitalpenak**

#### *Arrasateko Toponimia*

*Arrasateko Toponimia*. Jose Luis Ormaetxea Lasagak prestatutako lana da, eta batzordeak gainbegiratu. Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae liburu-sailean ar-

gitaratu da, 15. zenbakiarekin; 490 orrialde. Liburu honen argitalpenerako laguntza Arrasateko Udalak eta Kutxa Fundazioak eman dute.

#### *Urduñako Onomastika Jardunaldiak*

Urduñako Jardunaldien argitalpena prestatu da. Hau *II. Onomastika Jardunaldiak*. *Urduña* izeneko liburua izango da, *Onomasticon Vasconiae*, 17.

#### *Toponimia medieval en el País Vasco*

Argitaratu da liburu hau, *Toponimia medieval en el País Vasco*. A. izeneko eta Angeles Libanok egina. *Onomasticon Vasconiae* bildumako 14. liburukia, eta 639 orrialdekoa.

#### **Azken agurra**

Abenduaren 16an Alfonso Irigoien batzordekidea hil da. Bat-batean hark utzitako hutsunea nabaria izango da aurrerantzean, izugarria izan baita alor honetan egin duen ekarpena.



## **II.1.5. Literatura batzordea**





### II.1.5.1. HERRI LITERATURA AZPIBATZORDEA

Herri Literatura azpibatzordeak hamar bilera egin du 1996an.

#### Herri Literatura Jardunaldiak

##### IV. Herri Literatura Jardunaldiak prestatu

Azpibatzorde honen urte honetako lan nagusia Jardunaldi hauek prestatzea izan da, parte hartuko zuten adituekin harremanetan jarri, eta azkenean Paremiologia alor desberdinetatik aztertuko zuen egitaraua burutu. Herri Literaturaren IV. Jardunaldi hauek Durangon egin dira, *Refranes y sentencias* liburuaren lehenengo argitalpenaren (1596) laugarren mendeurrenean, eta Euskaltzaindiak Durangon egindako lehen «Euskalegunen» 75. urteurrena ere 1996an egiten zela kontuan izanik.



*Durangoko Arte eta Historia museoan, 1996-12-6an, IV. Herri Literaturà Jardunaldiak; ezkerretik eskunera: Jean Haritschelhar, Pilar Ardanza, Juan Mari Lekuona.*

Errefrau edo atsotitzei buruzko jardunaldi hauek 1996ko abenduaren 6an eta 7an egin dira Durangoko Arte eta Historia Museoan. Hona hemen bertan irakurri diren hitzaldi eta txostenak:

*Abenduaren 6an, goiz eta arratsalde:*

- «Euskal atsotitz-bildumak»: Xabier Kaltzakorta-ren hitzaldia. (Euskaltzain urgazlea, Labayru Institutukoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea).
- «Sobre la paremiología española»: Julia Sevilla-ren hitzaldia. (Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea eta Paremia aldizkariaren zuzendaria).
- «Ohiturak eta folklorea euskal atsotitzetan»: Gotzon Garate-ren hitzaldia. (Deustuko Unibertsitateko irakaslea).
- «Gnomica Biscaiensia. Refranes y sentencias de 1596»: Alfonso Irigoien-en hitzaldia. (Euskaltzain osoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea).
- «La fraseología comparada y su paremiología»: Károly Morvay-ren hitzaldia. (Budapest-eko Eötvös Loránd Unibertsitateko irakaslea).
- «Jakes Belakoaren atsotitzak eta horien iruzkinak»: Txomin Peillen-en txostena. (Euskaltzain osoa eta Bordeleko Unibertsitateko irakaslea).
- «Refranes y sentencias: zenbait baliabide mnemotekniko»: Juan Mari Lekuona-ren txostena. (Euskaltzain osoa eta Literatura batzordeburua).

*Abenduaren 7an, goizean:*

- «Esaera zaharren azterketa soziologiaren ikuspegitik»: Patxi Juaristi-ren hitzaldia. (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea).
- «Los refranes en la literatura»: Louis Combet-en hitzaldia. (Lyon-go Unibertsitateko irakasle emeritua).
- «Esaerak etnografia ikuspuntutik»: Juan Manuel Etxebarria-ren hitzaldia. Euskaltzain urgazlea, Labayru Institutukoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea).
- «Tradizioa, idazlearen kale kantoitik»: Angel Lertxundi-ren txostena. (Euskaltzain urgazlea eta idazlea).

Hain gutxi ikertua izan den gai honen inguruko –Paremiologiari buruzko– 11 hitzaldi eta txosten entzutera 54 lagun bildu dira. Ohi bezala, Jardunaldi horietan irakurritako hitzaldi eta txostenak dagokien *Euskeran*-n argitaratu ditu Euskaltzaindiak.



*Durangoako Arte eta Historia museoan, 1996-12-6an, IV. Herri Literatura Jardunaldiak; ezkerretik eskuintera: Antton Aranburu, Alfonso Irigoien.*

Herri Literatura azpibatzerdeak kaleratutako ondorioetan esaten denez, oso interesgarritzat jo dira Jardunaldi horiek, bereziki hitzaldi eta txostenak eskaini dituzten ikerlarien ekarriagatik, kanpoko jendea eta unibertsitate desberdinetako partaideak bilduaz.

Aipatzekoa da Jardunaldi horiek burutu eta egun gutxitara hil den Alfonso Irigoien batzordekidearen lana, ekitaldi hori izan baita jendaurreko haren azken agerraldia.

### **I Congreso Internacional de Paremiología-n parte hartu**

Kongresu hau Madrilen egin da 1996ko apirilaren 16tik 18ra. Jasotako gonbiteari erantzunez, Euskal Herrian gai horretan adituak diren bi partaide izan dira bertan: Gotzon Garate eta Xabier Kaltzakorta, azken hau Euskaltzaindiaren izenean, txosten bana irakurri dutelarik:

- «Historia y características de los refranes vascos»: Gotzon Garate-ren txostena.
- «Historia del refranero vasco»: Xabier Kaltzakorta-ren txostena.

### **Herri-literaturaren inguruko ekintzak**

Bertsolaritzaren esparruko ekintza nagusi hauetan parte hartu du azpibatzerdeak: hitzaldietan eta epaimahaietan.

#### **Hitzaldiak**

Hitzaldi hauek eman dituzte batzordekide bik:

- «Aitzolen kanta bilduma»: Antonio Zavala batzordeburuak, 1996ko urrian Hernanin irakurritako hitzaldia.
- «Muxika eta bertsolaritza»: Abel Muniategi batzordekideak, Muxikan Balendin Enbeitaren omenez 1996ko azaroan antolatutako astean irakurritako hitzaldia.

#### **Epaimahaiak**

Bertso jarrien sariketetako bi epaimahaitan parte hartu dute batzorde honetako kideek:

- Zarauzko «Basarri» sarian: Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi eta Jose Mari Aranaldek.
- Oresako «Orixe» sarian: Jose Mari Aranaldek.
- «Bizkaiko Bertsolari Txapelketan»: Abel Muniategik.

#### **Argitalpenak**

Urte oparoa izan da 1996a herri-literaturarentzat. Bederatzi liburu berri argitaratu dira Antonio Zavala azpibatzerdeburuaren zuzendaritzapean: Salvador Zapiain «Ataño»-ren *Askatasun bila*, Teodoro Mujikaren *Errekaldeko intxaurraren itzala*, Jose Mari Lertxundiren *Beti festara begiak*, Faustino Etxebarriaren *Nire gazte denpora*, Antonio Zavalaren *Auspoaren auspoa (Itzaldiak / Conferencias)* (bi liburu, Pello Esnal azpibatzerdeko idazkariaren hitzaurrearekin), Jose Mari Aranalderen *Xalbador pertsularia*, Bartolo Ayerberen *Zaarrak berriuz*, eta Antton Kazabonen *Jose Joakin Mitxelena bertsolaria* (Juan Mari Lekuona Literatura batzordeburuaren hitzaurrearekin).

## **Azken agurra**

Uste ez bezala amaitu behar izan du azpibatzerde honek urtea: Alfontso Irigoien batzerdekide eta adiskideari agur esanez, arestian adierazi bezala. Handia da hark utzitako hutsunea, oparoa azpibatzerde honetan egindako lana, leial eta zintzo arituz. Harekin batera hasitakoa eta landutakoa areagotzea izango da azpibatzerde honen omenaldirik onena.

## II.1.5.2. LITERATURA IKERKETA AZPIBATZORDEA

Literatura Ikerketa azpibatzen urtean zehar hamar bilera egin ditu. Euskal literaturaren alorrean oso gutxi landua dagoen gai hau aztertzen eta burutzen ari da azpibatzen: Euskal Literatura Hiztegia. Hiztegi horrek, hitz-zerrendaz gain, literatura-ko hitz garrantzitsuenen azalpenak emango dituzten maila eta neurri desberdineko txostenak eskainiko ditu: artikuluz luzeak, ertainak eta laburrak. Hiztegiak, guztira, berrogei artikuluz luze, ehun artikuluz ertain eta seihun artikuluz labur izango du.

### Literatura hiztegia idatzi: artikuluz idatzi eta eztabaidatu

Batzordeak, urtean zehar, ondoren adierazten diren artikuluz hauek prestatu eta eztabaidatu ditu. (Marka hau -(\*)- duen txostena egileak berridatzi egin du eta batzordeak berraztertu):

#### Artikuluz luzeak

Bataz beste 7-8 orrialdekoak izaten dira artikuluz hauek:

- |                       |               |
|-----------------------|---------------|
| — Barrokoa (*)        | — Komedia (*) |
| — Erromantizismoa (*) | — Prosa       |

#### Artikuluz ertainak

Bataz beste 2-3 orrialdekoak izaten dira artikuluz hauek:

- |                         |                  |
|-------------------------|------------------|
| — Abanguardia           | — Maskaradak     |
| — Arteak eta literatura | — Neoklasizismoa |
| — Astolasterrak         | — Paremiologia   |
| — Autorea               | — Puntua         |
| — Dadaismoa             | — Sinbolismoa    |
| — Errima                | — Surrealismoa   |
| — Espresionismoa        | — Tobera mustra  |
| — Kopla                 | — Tradizioa      |
| — Kreazionismoa         |                  |

#### Artikuluz laburrak

Bataz beste, orrialde batekoak izaten dira artikuluz hauek:

- Antzekizun
- Antzezle
- Antzez-ohar
- Antzoki
- Aparte
- Apuntadore
- Arlechino
- Armonia
- Atellana
- Auto-sakramentala
- Azken-solas
- Bakarrizketa
- Bataila
- Bederatzi silabako neurtitza
- Bijiria
- Bisemia
- Bi silabako neurtitza
- Bost silabako neurtitza
- Bufoikeria
- Cadavre exquis
- Comedia dell 'Arte
- Cuaderna via (\*)
- Dandismo (\*)
- Deskripzio
- Deus ex machina
- Dialektika
- Edizio (kritikoa eta *princeps*) (\*)
- Egloga (\*)
- Ekitaldi
- Elkarrizketa
- Enfasi (\*)
- Errando
- Errejenta
- Esakune (enuntziatu)
- Esakuntza (enuntziazio)
- Eszena
- Eszenografia
- Existenzialismoa
- Fartsa
- Faux-timbre (\*)
- Foiletoia
- Galarrotsak
- Graffiti
- Hagiografia
- Hamabi silabako neurtitza
- Hamabost silabako neurtitza
- Hamahiru silabako neurtitza
- Hamaika silabako neurtitza
- Hamalau silabako neurtitza
- Hamar silabako neurtitza
- Hamasei silabako neurtitza
- Hamazazpi silabako neurtitza
- Hiru silabako neurtitza
- Historia
- Hogezi silabako neurtitza
- Incipit (\*)
- Isomorfo
- Lau silabako neurtitza
- Literatur kontzeptuak
- Mitokritika
- OULIPO (OUvroir de Littérature POtentielle)
- Sei silabako neurtitza
- Silaba bakarreko neurtitza
- Zazpi silabako neurtitza
- Zortzi silabako neurtitza.

## Jardunaldiak

### *Jose Mari Agirre «Xabier Lizardi»ren omenaldia*

Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an, arratsaldeko 6etatik gaueko 9etara, Lizardiren omenezko ekitaldia eratu du Euskaltzaindiak Zarautzen. Zarauzko Udaletxeko batzar aretoan Lizardiren lana ikuspuntu desberdinetatik aztertu dute txostenak irakurri dituzten Literatura Ikerketa azpibatzerdeko kideek. Hona hemen irakurritako txostenak:

- «Lizardi eta paisaiaren trataera»: Luis Mari Mujika.
- «Lizardiren ametsezko bidaia»: Karlos Otegi.
- «*Bultzileiotik* espazio-denboraren korapiloetan»: Aurelia Arkotxa.
- «Lizardi: lurraren arnasa»: Juan Kruz Igerabide.
- «Lizardiren prosaren estiloak»: Lurdes Otaegi.

### *Jose Ariztimuño «Aitzol»en omenaldia*

Tolosan, 1996ko urriaren 17an, iluntzeko 7,30etan, Aitzolen jaiotzaren mendeurreneko ekitaldia eratu du Euskaltzaindiak Tolosan. Tolosako Antonio Maria Labaien Kultur Etxean txosten hauek irakurri dira Aitzolen omenez:

- «Aitzol eta bere garaia»: Martin Ugalde.
- «Hiru aldiz ikusi dut Aitzol»: Xabier Diharce «Iratzeder».
- «Aitzol eta Euskaltzaleak»: Lurdes Otaegi.
- «Aitzolen kazetaritza»: Xabier Altzibar.

*Luis Jauregi «Jautarkol»i omenaldia*

Errenteriako Udalak egindako eskabideari erantzunez, Literatura Ikerketa azpi-batzordeak parte hartu du bertako Udalak idazle honen omenez egindako ekitaldian, hileko bilera ekainaren 21ean Errenteriako Udaletxean eginez eta idazle horren azterketa literarioari buruzko hitzaldiak ekainaren 18, 19 eta 20an emanez. Hona hemen emandako hitzaldiak:

- «Jauregi, garaia eta giroa»: Jon Kortazar.
- «Jautarkolez: aztarren bila»: Elixabete Perez Gaztelu.
- «Luis Jauregi 'Jautarkol'-en *Biozkadak*. Testu azterketa»: Juan Mari Lekuona.

*Klaudio Sagarzazu «Satarka»ri mendeurreneko omenaldia*

Hondarribiko Udalak egindako eskabideari erantzunez, Literatura Ikerketa azpi-batzordeak bertako Udalak olerkari horri egindako omenaldian parte hartu du azaroaren 22an, hileko bilera Hondarribiako Udaletxeko Areto Nagusian eginez.

Hondarribiko Udalak «Satarka»ren olerki-liburua argitaratu du, *Ezti-tantak* izeneko. Liburu horren aurkezpena Juan San Martin euskaltzainak egin du, eta azterketa literarioa -*Satarkaren 'Intza begietan' aztertuz* izeneko idazlana- Juan Mari Lekuona literatura batzordeburuak.





## **II.1.6. Batzorde suntsikorak**



## II.1.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Euskararen batasunerako bidean, gai jakin bat hizkuntz arau bihurtu behar denean Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartzen du. Azken proposamena Euskaltzaindiaren osoen batzarrari aurkezten diona Euskara Batuko batzordea da, nahiz eta gaien azterketa eta oinarritzko proposamenak dagokion batzordetik prestatuak datozen.

Batzorde honek, hala derizkion kasuetan, ohargileei eta iritzi-emaileei kontsulta egiten die. Pertsona horiek, gehienak, Euskaltzaindiaz kanpokoak dira, euskalgintzako alor desberdinetan lanean ari diren profesionalak: administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, irakaskuntza-munduko teknikoak, itzultzaileak eta idazleak.

Euskara Batuko batzordeak 1996an zehar hamar bilera egin ditu, bilera horietako gehienak egun osokoak izan direlarik.

### Araugai berriak

Dagokion batzordetik (aurten Hiztegi Batukotik eta Onomastikatik) zetozen txosten hauek aztertu eta eztabaidatu ditu batzordeak hilez hil. Ondoren, euskaltzain osoen hileroko batzarrean aurkeztu dira txostenak, oharrak egiteko ohiko epea jarri delarik. Euskaltzain osoek egindako oharrak ere aztertu ditu batzorde honek eta bere iritzia ere eman du erabakia hartu behar zen hurrengo osoen batzarrean. Hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek eztabaidagai:

### Hiztegi Batua

#### 1. *ba - belztura*

a) *ba - belztura-ren* eztabaida

b) Oharrak: *baratxe; barealdi; basaran; balanga; baliozkotu; barauste; banka, banku; bait(-); bastoi; bazko.*

#### 2. *bemol - bidari*

a) *bemol - bidari-ren* eztabaida

b) Oharrak: *beretsu, bertsu; berein; berandu; bereganatu, berenganatu; bereter, beretter; bermatu; berri, etorri berri; bertsio; betireki; bezu; bibote; bezanbatean; beratz; berduratu; berenaz; betun; beztitu; berbera; berdats; berna.*

#### 3. *bidaro - bizartsu*

a) *bidaro - bizartsu-ren* eztabaida

b) Oharrak: *bidarri; bide-sari; billete; bisaje; bidegain; bidepe, bidebe; Bisitazioa; bistaz ezagutu; bisutsak hartu, bisutsa sartu; bits bitsetan.*

4. *bizi - buztintsu*
- bizi - buztintsu-ren* eztabaida
  - Oharrak: *bokata; morrai(n)a; mainu; menta; botazio; buelta, bueltatu; burdintsu; brentsa, brentsatu; burgeskide; buztinola.*
5. *c - diametro*
- c - diametro-ren* eztabaida
  - Oharrak: *kanpin, camping; korpus, corpus; cl; danbolintero; deiadar; deblauki, deplauki; defuntu; delibero, deliberamendu; demas; demonio; demontre; derrigor, nahitaez; despit(a); deun; dezente; epe; daborduko; damu egin; deiagora; deitore egin; deiune; destinatari.*
6. *diapositiba - dotrina*
- diapositiba - dotrina-ren* eztabaida
  - Oharrak: *diana; dibino; di-da; dilijentzia; digno; diktadore; diminutibo; dimisio; dimititu; dindatu; dindirri; diosala; diruzaletu; diskurtso; distrik; diti; ditare; doan; doitasun; dona; dostatu; dotrina, doktrina.*
7. *dozena - entzutetsu*
- dozena - entzutetsu-ren* eztabaida
  - Oharrak: *dragoi; drain, drainatu; drezu, drezatu; dudakor; durduzarazi; ebatsi; ebatz; ederrarazi, ederretsi; edesti; egunero, egunerokotasun; ekandu; elemenia; emeretz; enbalditu; enda; endekatu; endelga; engranaje; enparantza; entenditu; entsalada; e.a., ea., etab., eta abar, etc.; egon, egotez; entzungailu, tresna; ediren, ediren, edireten.*
8. *epai - erretratu*
- epai - erretratu-ren* eztabaida
  - Oharrak: *eraki; erakustoki; erakutsi; erasan; erasi; erdibi egin; eroan; errektore; errepublikar; eptagono, heptagono; erahil, hil; erailketa; erauntzi; erhi, eri; erlerla-; erlauntza; erlazain; erlazantza; erlazkuntza; erlamando; erlojari; erlojutegi; ero, hil; erradioaktibitate; erradiaktibo; erradiografia; erran; erdibanatu; ernegu; erreteila; epigrama; epizentro; erabakigune; erabilkor; eraduki; eraginbera; eragole; eraikin, eraikintza; erakuskeria; erakuskizun; erakustetxe; eraldaketa; erantzunezin; erara; erasotzaile; erdeinari, erdeinagarri; erdiberri; erdieroale; erdikoi; erdoila; eriondo; ernaldi; ernetasun; eroate; erokeria; erortoki; erraldi; errektororde; erreparatu; erreportai; erretina.*
9. *erretreta - esplotazio*
- erretreta - esplotazio-ren* eztabaida
  - Oharrak: *errez; errezatu; errezelo; errumes; esparadrapu, esparatrapu; esparrago; espezia; espiritu; errient; erro; erogazione; erropa; errotu; errukari; erruki; erten; erti, ertigintza, ertilari; esamina; eskailarapeko; eskukaldi; espantagarri; espero; errezahar; errodai; errotore; errotatiba; errubi; ertzaingoa; esgrima; esklerosi(s); eskoadrilla; eskuz-esku; eskuburdinak; eskugarbi; eskuidatzi; eslaida; esmalte; esmeralda; espal.*
10. *esponja - expres-en* eztabaida.

## Onomastika

1. «Munduko estatuetakoz hizkuntza ofizialak»
  - a) «Munduko estatuetakoz hizkuntza ofizialak»: eztabaida
  - b) Oharrak: *flandiera, nederlandera; hebreera, hebraiera; urdu, urduera.*
2. «Euskal probintzien, herritarren eta euskalkien izenak». «Ibaiak». «Aintzirak».
  - a) «Euskal probintzien, herritarren eta euskalkien izenak». «Ibaiak». «Aintzirak»: eztabaida
  - b) Oharra: *Esklabuen Aintzira Handia.*
3. «Pertsona izenak: santutegiko izen ohikoenak»
  - a) «Pertsona izenak: santutegiko izen ohikoenak»: eztabaida
  - b) Oharrak: *Adam, Adame, Adan; Agnes, Aines; Agustin, Agustina; Alexandra, Alexandrina, Alexandrine; Alfonsina, Alfonsina, Alphonsine; Bernadeta, Bernadette; Beñat, Bernardo, Bernart; Bernardin(o), Bernardin; Betiri; Domiku, Domingo; Estefania, Estebeni; Eztebe, Estebe; Francine; Fructuoso, Murtuts; Gerbasio, Gervasio; Jenofa; Greta; Gehexan; Beñadin; Bixente; Gaxuxa; Fauxtin; Ferrando; Florentxa; Gabi.*
4. «Mundu zabaleko uharteak»
  - a) «Mundu zabaleko uharteak» txostenaren lehen eztabaida.

## Txostenak

— «Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez»

Batzordeak aztertu, eztabaidatu eta ontzat eman du Euskara Batuko batzordekide batek aurkeztutako «Euskalkietako hitzen morfologia finkatzerakoan agertzen den arazo batez» izeneko txostena. *Ediren* aditzean (eta antzekoetan) (*edire*)TEN ala (*edire*)I-TEN izan behar duen erabaki aurretik, gai horri buruzko txostena prestatu eta ontzat eman du Euskara Batuko batzordeak eta azaroko euskaltzain osoen batzarrean aurkeztu.

## Bestelakoak

- Arauen zuzenketak aztertu dira: *Drôme, Drome; Armañac; Transilvaniako Alpeak edo Hegoaldeko Karpatoak; Erie (Ipar Amerika).*
- II. Jagon Jardunaldiak: Jagon Sailak egindako inkesten ondorioz jasotako zailantza eta galderak aztertu dira.
- Hizkuntz kontsultak:
  - Nafarroako Parlamentutik egindako galdera: *-ke + -la* nola den, *-kela* ala *-keela*.
  - Amurrioko Udal Euskaltegitik dataren idazkerari buruzko galdera: urtearen amaieran puntua jarri behar den ala ez.



## II.1.6.2. AHOSKERA AZPIBATZORDEKO LANTALDEA

Euskaltzaindiak, 1993an, 75. urteurreneko ekintzetarako sortu zuen batzorde hau, eta horrela, 1994ko maiatzean III. Ahoskera Jardunaldiak antolatu zituen batzorde honek, eta 1994ko urrian Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu zuen. Ekintza horietan zehar, oso nabarmen geratu zen hizkuntzaren ahoskera-batasuna oraindik zer urrun dagoen, alor honetan zenbat ikerlan dagoen egiteko eta bestetik zer nolako interesa sortzen duen gai honek euskaldungoaren barnean, bereziki komunikabideen esparruan. Hori guztia kontuan harturik, Ahoskera batzordeari jarraipena eman beharra ikusi zuen Euskaltzaindiak. Aurrelanak prestatzeko, batzorde horri atxikitako lantaldea ere sortu da.

Oinarrizko irizpidea honako hau da: normalean lantaldea biltzea, ikerketak eta proposamen zehatzak egiteko, eta batzordearen egitekoa aholkuak ematea izango litzateke.

### Oinarrizko gogoetak eta irizpideak

Ahoskera lantaldeak bederatzi bilera egin ditu 1996an.

Ahoskera batzordeak, 1994an, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean aurkeztu zituen proposamenen bideragarritasuna irakaskuntzan eta komunikabideetan -batik bat- aztertzea, izan da Ahoskera lantaldearen 1996ko eginkizuna.

Ahoskera lantaldea, hausnarketa egin ondoren, honetara iritsi da:

- Lantaldeak lehenik elkarlanean irizpideak argitu, landu eta finkatu behar ditu, askotan izango direlako lehian fonologiaren eta morfologiaren lehentasun linguistikoak. Malgu jokatu beharra, baina kontu handiz ibili ortografiak ahoskeraren alderdiak suntsi ez ditzan.
- Ahoskera lantaldearen eta batzordearen lana ez da arau-zerrenda bat egitea izango, baizik eta ahoskeraren kontuak zorrozki lantzea, euskal joerak bilatzea batasun bidean jartzeko, proposamen irakasgarriak eta erabilgarriak egitea.
- Lantaldeak irizpide hauek kontuan hartu ditu:
  - Erabaki-aholkuen errealismoa eta bideragarritasuna neurtu.
  - Adibidez hornitu erabaki-aholkuak.
  - Arazoak mahai gainean jarri aholkuak zorrotzago eman ahal izateko.
- Irizpideak hiztunen ebakerak:
  - Irizpide linguistikoei dagokien iragazkia.
  - Irakasterraztasunari dagokiona.

- Erabilterraztasunari eta egokitasunari lotutakoak.
- Aholkuak edo erabakiak ematerakoan ikusi diren aukera desberdinak:
  - Aukera bakarra hobesten denekoa.
  - Aukera bikoitza: (a) gutxienez hizkera-maila zainduetan bete beharrekoak; b) gehienez ere hizkera-maila zainduetan eginbeharrekoak). Aukera bat hobesteak ez dio besteari lekua jaten edo kentzen, uzten baizik.
  - Aukera anitza: euskalkien arabera.

### **Lantaldearen lan-metodologia**

Ahoskera lantaldeak honela finkatu du bere lan-modua:

- Bileretan lantaldekideek azterketetan aurkitutako oztopoak eta zailtasunak adierazi dituzte: definizio zorrotzagoen beharra, helburuak zaindu eta mugatu beharra eta zein hizkera-mailatan lur hartu behar den zehaztu beharra.
- Euskal Herriko Unibertsitateko (Gasteizko Filologia Fakultateko) Fonetika eta Hizkuntz Laborategian aztertu diren materialak hauek dira:
  - Ahozko komunikabideetatik jasotako jardun desberdinak.
  - Euskaltzaindiak 1996ko urrian egindako II. Jagon Jardunaldietako hitzaldiak.
  - Beste material hauek ere izan ditu esku artean lantaldeak: IRALEko 300 bat ordu bizkaieraz grabatuta; HABEko *Antzoki iluna*; EAEko Hezkuntza Saitetik jasotako haurren deklamazio-sariak; ETBko saioak.
- Lantaldeak jasotako eskaerak edo oharrak:
  - Hiztegi Batuko batzordetik jasotako galderari erantzun: nola idatzi *c* eta *i*, aurreko maileguetako *g* (*imagina, gestio, gerente, gendarme...*) moduko hitzetan.
  - LEF batzordetik -hitz elkartu eta eratorriei buruz- jasotako eskariak.
  - EITBtik jasotako ohar-txostena.

### **Prosodia ikertu beharra**

Prosodia dela eta, hona hemen egindako gogoetak:

- Normalean erabiltzen ez diren hitzak edo moldeak sartzean sortzen da prosodia-eredu erdaratuen erabilera.
- Azentua eta esan-aldien kantuak oso lotuak daudela kontuan izan beharra.
- Badirudi oro har euskaraz lexikoan ez dagoela azentu finkorik, eta lexikoan azentua non kokatu behar den irakasteak ekar lezakeela horren automatizaztea, eta ondorioz, esan-aldi ezberdinetan ikasitako eredu horri jarraituz egitea. Ohartze-modua, i(ra)kaskuntzan zeri erreparatzen zaion, aldatu beharko da. Testuak entzutearen premia prosodiaren zentzurik zabalenean erreparatuz: erritmoa, doinua, enfasia... Hitz solteak ezezik, esaldiak ahoskatzen irakatsi beharra.



- Hizkuntza ikasten duenak gramatika eta hiztegien bidez ikasia du euskal konsonante-bokal katea, baina arazoak dituenean bere ama-hizkuntzatik hartzen ditu erritmoa eta entonazioa; prosodia inportatu egiten du. Ahoskera batzordeari legokioke sena dutenek zein baliabide erabiltzen duten aztertzea eta horietatik zeintzuk diren amankomunenak. Ebakera zainduenak batuarenetik hurbilten gelditzen direnak izango dira.



## **II.2. Jagon Saila**



## **JAGON SAILA**

Jagon sailak 1996an bederatzi bilera egin ditu.

### **Harreman sarea**

Euskalgintzan ari direnekiko harreman-sarea osatzeko, 1995. urtearen amaieran eta 1996. urtearen hasieran komunikabideei, administrazioari eta hezkuntza-mundukoei elkar-lanerako lehen deialdia egin zaie. Urtean zehar bigarren bat barreiatu da, lehen-goez gain erakunde eta elkarte gehiagori dei eginez.

### **Inkesta**

Jagon sailak, urrian egitekoak diren jardunaldien berri emanez eta bertan parte hartzera gonbidatuz gutuna bidali zaie hainbat erakunderi eta kultura-elkarteri. Gutun horretan, 1994an Bilboko egoitzan burututako I. Jagon Jardunaldietan jorratu zen gaiari -hizkuntzaren erabilera zuzenari- berriz ere heltzeko asmoa adierazten zen, horretarako Euskaltzaindiak bere burua topagune bezala eskaintzen zuelarik. Horrezaz gainera, Jardunaldietan euskara batuaren eta euskalkien arteko harremana aztertzeko asmoa azaltzen zen gutunean. Gutun hau 698 ikastetxe, erakunde eta kultura-elkarteri bidali zitzaion.

Gutunarekin batera barreiatutako inkestan, hiru alor hauetako gaiei buruzko iritzia eskatzen zen:

- a) Euskaltzaindia ematen ari den hizkuntz arauen aplikazioan gerta litezkeen galderak edo zalantzak.
- b) 1994ko urrian Euskaltzaindiak Leioan egin zuen XIII. Biltzarrean eztabaidatu ziren gaietatik, zein ikusten diren erabaki beharrekoenak.
- c) Eguneroko jardunean hizkuntzaren inguruan sortzen diren zalantzak adierazi, gramatika, hiztegi batua, onomastika nahiz grafiari buruzkoak eta argitu behar-ko liratekeenak.

### **Inkestaren erantzunak**

Apirilean bidalitako inkestak ondoren aipatzen diren hauen erantzunak jaso zituen maiatzean:

Iruñeko Miluze Euskaltegia; Arratzuko Barrutialde Batxillergo Institutua; Laudioko Almi Ikastetxea; Zumarragako izenik gabea; Errenteriako Orereta

Ikastola; Eibarko Ignacio Zuloaga Batxillergo Institutua; Gasteizko Diocesan-  
nas Institutua; Gernika-Lumoko Batxillergo Institutua; Altsasuko San Miguel  
de Aralar Batxillergo Institutua; Irungo Pío Baroja Batxillergo Institutua; Bea-  
saingo Batxillergo Institutua; Arrasateko Batxillergo Institutua; Irungo Udal  
Euskaltegia; Euskaldunon Egunkaria; Nafarroako Gobernuko Irakasleen Bir-  
tziklai Ikastegia; HABE; Hirusoin bikoizketa-etxea; Oiartzungo Hautzaro  
Ikastola; Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako Itzulpen Atala; Donezte-  
beko Malerrekako Euskaltegia; Elhuyar; Lesakako Tantarumairu Ikastola; Li-  
zarrako Oncineda Batxillergo Institutua.

### **Galderei erantzun**

Jasotako galderekin dossiera osotu da, eta gaiak alor desberdinekoak direnez  
gero, kasuan kasuko batzordera pasatu dira, erantzun egokia eman ahal izateko. Batzor-  
de hauei egin zaie kontsulta: Hiztegegintza batzordea, Gramatika batzordea, Onomastika  
batzordea, Euskara Batuko batzordea eta Ahoskera azpibatzerdeko lantaldea.

Horrela bada, Tolosan burututako II. Jagon Jardunaldietan irakurri den «Aurkez-  
tutako zalantzak» dossier edo txostenaren bidez erantzun zaie egindako galderei. Eman-  
dako erantzunak, hala ere, gehien bat, erabaki gabe dauden galderei zegozkien: kasu  
batzuetan emandako arauen azalpen hutsak izan dira; beste batzuetan Euskaltzaindiak  
aztertu beharreko gaia zela aitortu da, eta bien bitartean zein forma erabiltzea den zilegi.  
Erantzun orokor honetaz gain, azken ukituak egin ondoren, txostenaren ale bana inkesta  
bete dutenei emango zaie.

## **II. Jagon Jardunaldiak**

Tolosan, Antonio Maria Labaien Kultur Etxean, urriaren 18an eta 19an egin dira  
II. Jagon Jardunaldiak. Goian esan denez, aurreko Jagon Jardunaldien ildotik, oraingo  
hauetan ere hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokian sakondu nahi izan da. Baina horre-  
kin batera, herri-hizkeren, euskalkien eta euskara batuaren arteko harremanez ere go-  
goeta egin nahi izan da, hizkuntzaren erregistroak bereizteko saioak ikastetxeetan eta  
komunikabideetan egiten ari diren une honetan. Hau izan da euskalgintzan dihardutenen  
topagune izan nahi duten Jardunaldien egitaraua:

*Urriaren 18an, ostiral arratsaldean:*

- 16:30: «Euskara Batua eta euskalkiak»: Beñat Oihartzabal, euskaltzain osoa eta  
Dialektologia-Atlasgintza batzordeburua.
- 16:50: «Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan»: Juan Luis Goikoetxea, euskal-  
tzain urgazlea eta Txorierriko Batxillergo Institutuko euskara katedraduna.
- 17:00: «Herri-euskararen eremua»: Juan Martin Elexpuru, Bergarako UNEDeko  
irakasle ohia eta idazlea.
- 17:10: «Euskalkien eta euskara batuaren harremana nolakoa den Iparraldean»:  
Jean-Louis Davant, Zuberoako euskaltzain osoa.
- 17:30: Eztabaida
- 18:30: «Euskalkien eta euskara batuaren erabilera Iparraldeko euskal irratietan»:  
Jojo Bidart, kazetaria Irulegiko Irratian.
- 18:50: «Euskalkiak EITBn: orain arteko jokabidea eta ondorioak»: Igone Etxeba-  
rria, euskaltzain urgazlea eta EITBko euskara arduraduna.

19:10: Eztabaida

*Urriaren 19an, larunbat goizean:*


9:30: «Aurkeztutako zalantzak»: Miren Azkarate, euskaltzain osoa eta Jagon sailburua.

11:30: «Euskararen ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta»: Xabier Mendiguren Bereziartu, euskaltzain urgazlea eta Jagon saileko idazkaria.

12:30: Eztabaida eta iradokizunak jasotzea.

13:30: Jagon sailburuak: II. Jagon Jardunaldien amaiera.

Jagon sailak oso emankortzat jo ditu Jardunaldi hauek, eta datorren urtean ere egitearen komenientzia azpimarratu. Eguneroko jardunean zalantzak dituztenen eta Euskaltzaindiaren artean zubi-lana egin nahi du Jagon sailak. Zalantza eta galdera guztiei ezin die Euskaltzaindiak banan-banan eta egunero erantzun, bistakoa denez, baina bai aldiro-aldiro era daitezkeen topaketen bidez. Beraz, aurten bezala, gero ere erakunde eta elkarte desberdinei elkar-lanerako gonbidapena egiten jarraituko du Jagon sailak.



Ohi bezala, Jardunaldi hauetan irakurri diren hitzaldi eta txostenak *Euskera* agerrian argitaratu dira. Jardunaldiotan 94 lagun izan dira.

### **Hizkuntz kontsultak**

Hiritarrek egiten dituzten hizkuntz kontsultei erantzuteko Euskaltzaindiko batzordeen koordinazioa bultzatu beharra aztertu du Jagon sailak. Nahitaezkoztat jo da, bestalde, hizkuntz kontsulta desberdinei Euskaltzaindiak era batean edo bestean eman izan dien erantzunak sietematikoki biltzea, etor litezkeen galderari erantzuteko orduan jakinaren gainean egoteko eta egoki erantzuteko.





### **III. Erakunde zerbitzuak**



## **ERAKUNDE ZERBITZU OROKORRAK**

Euskaltzaindiari dagokio, hizkuntzaren akademia bezala, euskararen normalizazioaren lehen erantzunkizuna. Horregatik, gaurko egoerari lotuta dituen premia askori aurre egin beharrean aurkitzen da. Nolabait, bere zerbitzu orokorrak hiru alorretara heda daitezke: 1. Erakunde barnera begira, Zuzendaritza, batzorde desberdin eta zerbitzuartekoak; 2. Beste erakundeentzat egiten dituenak: gobernu, diputazio, udal, unibertsitate, enpresa publiko, kultur elkarte eta antzerakoak; 3. Hiritar zein-nahiri eskaintzen dizkionak.

Eguneroko erronka du Euskaltzaindiak berak egoitzan eta ordezkarietzan dituen baliabide mugatuekin guzti horiei erantzun ahal izatea. Bilbon du bere egoitza, Bizkaiko Foru Diputazioak 1991n utzitako etxean, bertan dituelarik bulego nagusiak eta bere biblioteca eta artxibo akademikoa Azkue Bibliotekan. Horrezaz gainera, ordezkarietzak ditu beste hiriburuetan: Donostian, Gasteizen eta Iruñean, bertako Foru Diputazioek utzitako etxeetan, eta Baionan, hiriko Udalak utzitakoan. Akademiak zabalik ditu egunero biblioteca eta bulego horiek erakunde eta hiritarrek eskatutako irizpen, ziurtagiri eta galderiei erantzunak prestatu eta emateko. Era guztietako hizkuntz kontsultak, Euskal Herriko eta atzerriko bazter orotatik iristen dira, sarritan kasuan kasuko batzordearengana jo behar izaten delarik (ugarien onomastikakoak, baina gramatika, hiztegi, euskalki eta literatura alorretakoak ere bai).

Guzti horretarako gero eta zerbitzu hobeak eskaintzeko, barneko lanen elkarkidetza sendotzeko, Euskaltzaindiak laneko Barne Ibilbidea finkatzen dihardu, egoitzakoa burutua duelarik eta aski aurreratua ordezkarietza dagokiena. Aitortu behar da barnetik, erakundeetatik eta gizartetik orohar Euskaltzaindiari azken hamazazpi urteotan gaineratu zaion hazkunde izugarriak ez duela parekotasunik apenas gehitu ez diren giza-baliabide, azpiegituraren horniketa eta besteekin. Hala eta guzti ere, Euskaltzaindiak gizartearen erritmoa jarraitu nahi du eta azken aurrerapen teknologikoez baliatzeko lehen urratsak eman ditu urte honetan.

Ondoren, bere zerbitzu desberdinetatik egiten dituen lanen berri sailka ematen da.



### **III.1. Egoitza**



## **EGOITZA**

### **Hiritarrek egoitza erabiltzeaz**

Plaza Barrira 5.212 pertsona etorri dira 1996. urtean. Gehienak Euskaltzaindiaren zerbitzuez baliazera. Ondoko taulan agerienez, onomastikari buruzko ziurtagirien erantzunak eta Azkue Bliotekaren erabilpena izan dira eman diren zerbitzu ugarienak. Horrezaz gain, aipatzekoa da eten gabe bisitari taldeak izan direla egoitza ikusten. Areto nagusia ere kultura erakunde eta elkarteei irekia egon da, bertan hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurreko zenbait egin direlarik.

Administrazioa	1.508 lagun
Biblioteka	1.526
Sarrera	717
Egitasmoak	65
Bestelakoak	1.396
Guztira	5.212

### **1996. urtean egindako ziurtagiriak**

Urtean zehar guztira eman diren ziurtagiriak 4.077 izan dira, 3.782 deiturei buruzkoak eta 295 ponte-izenenak. Berorietatik, egoitzan 3.114 deiturenak eta 224 izenenak.

### **Aretoaren erabilera**

Arestian esan bezala, areto nagusia ekintza askotarako erabili ohi da. Araututa dago, bestalde, euskararen inguruko gaiekin zerikusia duten ekintzei aukera ematea, aurretiaz eta gaia idatziz azalduz gero. Aurten kanpoko erakunde edo elkarte hauek baliatu dute:

- Maiatzean:
  - Euskal Kultur Batzordeak (UEMAri buruzko prentsaurrekoa)
  - Euskalduntze-alfabetatze lanean diharduten euskaltegien bilera
- Ekainean: Siadekok eta Euskal Kultur Batzordeak
- Irailean: UEMAk (Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak)

### **Zuzendaritzaren kokagunea**

Zuzendaritzari, gobernu batzorde denetik, Erakundearen batzorde eta egitasmoen arta izatea dagokionez, bere kokagunea egoitzan datza. Hilean bi aldiz biltzen da eta

bertatik idazkariordeak antolatzen du kudeaketa, dagokion kargudunarekin, hau da, euskaltzainburu, buruorde, idazkari edo diruzainarekin despatxatuz, administrazio arazoak aintzinatuz gaien arabera.

### **Batzordeen eta iker-lanen koordinazio-zerbitzua**

Eragile teknikariaren egiteko zuzena egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipena egitea da. Horrela, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza, zerbitzu orokor eta batzordeekiko harremanak hurbilagokoak dira. Bestetik, egitasmo eta batzordeetan egiten den lanaren berri Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari ematen zaio aldiro-aldiro eta baita Herri Administrazioei ere.

### **Batzordeekiko harremanak**

Hau da, nagusiki, alor honetan eragile teknikariak burututako lana:

- Batzorde baten bilera-deiak egin ditu.
- Noizbehinka batzordeen bileretan izan da.
- Batzordeetan irakurritako txostenak jaso ditu, horien berri Zuzendaritzari emanez.
- Batzordeen bilera-agiriak jaso ditu, eta bileretako partaidetza-orriak aztertu edota prestatu eta ontzat eman ondoren diruzaintzara tramitatu ditu, izan ditza-keten ondorioetarako.
- Egitasmo eta batzordeei, hurrengo urterako ekintza-plana eskatu die, eta behar diren zuzenketa eta egokitze-lanak egin ondoren, hori guztia Zuzendaritzari aurkeztu zaio.
- Egitasmo eta batzorde akademikoei, egindako lanen errendapen-txostenak eskatu dizkie, batzuei hiruhilero eta beste batzuei urtean behin. Jasotako informazioarekin txosten bateratua egin ondoren, horren guztiaren berri Zuzendaritzari eta Iker eta Jagon sailburuei eman die.
- Egitasmo eta batzordeei *Oroitidazkia* egiteko txostena eskatu die. Jasotako informazioa aztertu eta argitalpen horretarako egokitu du.
- Osoen hileroko batzarretako hizkuntz gaiak prestatzeko, idazkariorde-kudeatzailearekin batera Euskara Batuko batzordearekiko koordinazio-lana burutu du.

### **Batzorde Teknikoarekiko harremanak**

Egitasmo eta batzordeen hurrengo urteko ekintza-plana, egindako lanen errendapen-txostenak aurkeztea eta behar den informazio osagarria ematea da, laburbilduz, alor honetan izandako zeregina. IV.1. atalean ematen dira gai honi buruzko azalpen xeheagoak.

### ***Albiste Orria***

Euskaltzaindiaren barneko informazio-boletina da aldizkari hau. Hilero edo bi hilero egiten den aldizkari honetan hilabete jakin batean Akademiak burutu edota burutuko dituen ekintza nagusiak jasotzen dira, ondoren Euskaltzaindikoko langileei, Zuzendaritzakoei eta egitasmo eta batzordeetako buruei eta idazkariei helarazteko.



1996an zehar 14.etik 21.era bitarteko zenbakiak kaleratu dira, biak barne, guztira 53 orrialde betez. Bertan, nagusiki, era honetako ekintzen berri eman da kasuan kasuko atalean: osoen hileroko batzarren egutegia, Zuzendaritzaren bilerak, egitasmo eta batzordeen bilerak, Euskaltzaindiak erakunde edo elkarte desberdinekin izandako harremanak, ospakizun bilera bereziak eta jardunaldiak, liburu-aurkezpenak, sari-banaketak, euskaltzain berrien izendapenak, epai-mahaikideen hautaketak, hitzarmenak, akordioak, bulegoen erabilera, etab. Boletin hau eragile teknikariak prestatzen du, eta idazkariordeak zuzendu eta osotu ondoren banatzen da.



## **III.2. Ordezkaritzak**



## **ORDEZKARITZAK**

Arautegiaren hamaseigarren atalak dioen bezala, Akademiak euskal probintzieta-ko hiriburuetan kokatuta ditu bere ordezkariak. Euskaltzaindiaren ordezkariak behar-irizana azaltzea komenigarria izan daiteke. Izan ere, ez baita usu hizkuntz Akademia batek bere eremu desberdinetan bulegoak izatea. Euskal Herriaren izaera eta euskararen egoera kontuan izanik edonor jabe daiteke horren zergatiaz.

Hori horrela izateak, alde batetik, gizabanakoen eta elkarten zerbitzurako hurbilketa bat dakar. Bestetik, batzorde eta egitasmoek ere erraztasunaren arabera kokagune desberdinak erabiltzen dituzte. Badago hirugarren arrazoi bat jagon ikuspegitik, hain zuzen, gaztelaniak edo frantsesak ez bezalako egoera pairatu baitu euskarak: status ez normalizatu bategatik hedapen ahulezia batekin aurkitzen da eta, ondorioz, euskarak erabiltzailearekiko aholkularitza hurbil eta bizkorra eskatzen du, herrialdez herrialde desberdina dena, bestalde.

### **Erakundearen izenean jardun: ordezkariak**

Euskaltzainburuaren, edo oro har, Zuzendaritzaren izenean ordezkariak Euskaltzaindia ordezkatzeko bere eremuan, dela agerpenetan, partaidetzetan eta harreman instituzionaletan. Azken hauetan, euskararekiko ekintzen arta berak eraman dezake hurbilen. Hau guztia, beti ere, Erakundearen batasuna gordez, Zuzendaritzarekiko harreman estuekin eta kudeatzailearekin kidekatuz. Ordezkariak, bestalde, hizkuntzarekiko aholkularitza ematen du dagokion bulegoan. Lurraldearen izaeraren arabera, euskararen egoera eta inguruko informazioa jasotzen du, gertakizun garrantzitsuenen albisteak bilduz eta jakinaraziz.

### **Batzorde eta egitasmoekikoak**

Batzorde bat ordezkariak batean nahiz egoitzan biltzen bada, behar diren baliabideak jartzen dira bere esku. Bestalde, bilkura horiek iraunkortasuna badute, eginkizun hori ordezkariak lanean txertatua geratzen da barneko eginkizunekin kidekatuz.

### **Jagon eremukoak**

Alor honetan bi eginkizun nagusi nabarmentzen zaizkio ordezkariak bati: kasuan kasuko herrialdean hizkuntzaren statusaz suertatzen diren gatazka nahiz berezitasunak eta Jagon sailak orokorrean arta duen kezka, hots, euskararen kalitate edo erabilpen zuzena.

### **Zerbitzu arteko loturak**

Euskaltzaindia, erakunde bakarra denez, zerbitzu berberak edo antzerakoak eman behar ditu euskal herrialde guztietan. Bost hiriburuetan hedatua egonik edonork aurki dezake erantzun berbera. Horregatik, bulegoen arteko kudeaketa amankomun bat aspalditik sortu da.

Bestalde, etengabeko harreman sare bat hedatu da bai egoitzarekin eta baita ordezkartzen artean, direla batzar, ospakizun, argitalpen banaketak, irizpen eta beste.

### III.2.1. DONOSTIAKO ORDEZKARITZA

Donostian dagoen Gipuzkoako ordezkariak hauek izan dira berrikuntzarik aipagarrienak: Jagon Sailaren azpiegitura, erakunde honen ekimen berrian, ordezkariak honetatik hornitzen dela bere beharretarako. Orobat, Herri Literaturako azpibatzerak, urritik hasita, egoitza honetan egiten dituela bere hileroko bilerak. Gainerako eginkizunak ohikoak izan dira, orain aipatuko ditugun xehetasun berriekin.

#### **Akademi lanak**

##### *Bilerak*

1996an honako bilera hauek egin dituzte Donostian Zuzendaritzak, ikerketa batzordeek eta lan azpibatzerde desberdinek:

- Urtarrilean: Literatura Ikerketa azpibatzerdea eta Gramatika batzerdea, Euskara Batuko batzerdea, euskaltzain osoen bilkura
- Otsailean: Literatura Ikerketa, Ahoskera lantaldea
- Martxoan: Jagon Saila, Zuzendaritza, Literatura Ikerketa, Gramatika, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa eta Euskara Batuko batzerdeak
- Apirilean: Gramatika, Hizkuntz Atlasa
- Maiatzean: Gramatika (2) , Jagon Saila (2), Zuzendaritza, Literatura Ikerketa
- Ekainean: Zuzendaritza, Gramatika, Jagon Saila
- Uztailean: Zuzendaritza
- Irailean: Zuzendaritza, Jagon Saila, Literatura Ikerketa
- Urrian: Prentsaurrekoa (II. Jagon Jardunaldien aurkezpena, Tolosa), Euskara Batuko batzerdea, Gramatika, Jagon Saila, Atlas linguistikoa, Herri Literatura
- Azaroan: Zuzendaritza, Gramatika, Jagon Saila, Hizkuntz Atlasa, Prentsaurrekoa (Durangoko IV. Herri Literatura Jardunaldien aurkezpena, Paremiologiaren), Literatura Ikerketa (Hondarribian), Onomastika
- Abenduan: Hizkuntz Atlasa, Euskara Batuko batzerdea, Ahoskera lantaldea, Zuzendaritza.

##### *Barne lanak*

Iazko erritmoari eutsi zaio ziurtagirietan; gutunerian, berriz zerbait gehiago dira sarrerak eta zerbait gutxiago irteerak; eta lehengo neurrian jarraitzen du *Araua* izeneko bildumaren langintzak.

- Ziuertagiriak. Deiturei buruz, 415 agiri; izenei buruz 10. Eta kontsulta ugari egiten dira ordezkartzan bai pertsonalki, bai telefonoz.
- Argitalpen zerbitzua. Euskaltzaindiaren Argitalpen zerbitzuaren lagungarri, ordezkartzan daude lanik gehienak salgai.
- Jagon saila. Hau da, laburbilduz, sail honi Donostiako bulegotik prestatu zaion laguntza: egitasmoen testuak instituzio, komunikabide, administrazio eta hezkuntza munduan dabiltzanen artean banatu, sail honen asmo nagusiak azalduz. Helburua, euskalgintzan dabiltzan erakunde guztien arteko harremanak estutzea izan da, euskararen erabilera zuzen eta egokiaren ikuspegitik. Inkestak zabaldu eta erantzunak jaso eta gero, kezkek sailkatu eta dagozkien batzordeei pasatu zaizkie. Ondoren, hauen laburbilduma prestatu da, Tolosako II. Jagon Jardunaldietan aurkezteko.
- Hiztegi Batuko zerrenden kopiak atera eta iritzi-emaileen artean banatu dira, letra huez hasitakoak eskaini direlarik, M-N-Ñ, O-P-Q-R, S-T.
- Prentsaurrekoak. Hemendik eman da egitasmo akademiko hauen berri: Tolosan ospatutako Jagon Saileko II. Jardunaldiak eta Herri Literatura azpibatzaordearen IV. Jardunaldiak, Durangon eginikoak.

### **Beste erakunde eta jendearekiko harremanak**

Harreman hauetan berdin jarraitu dugu Diputazioarekin, betiko babes garrantzizkoa izan duelarik erakunde nagusi honek guretzat. Behar bada gauza berria da, eta guretzat ondorio ederrak dituen, Donostiako Udaletxearekin dugun lotura.

- Diputazioa. Ordezkaritza honek ohiko laguntza jaso du erakunde honetatik. Berak eskainia dugu ordezkartzaaren lekua. Euskaltzaindia sortu zenetik hasitako ohiturari jarraituz, osoen bilerak, Donostian direnean, Diputazioko Jauregian ospatzen dira. Gramatika batzordea ere hor bertan biltzen da. Ordezkaritza honi dagokio bi erakundeen arteko harremanak bideratu eta zaintzea.
- Donostiako Udala. Martxoaren 1ean Zuzendaritzak bisita egin dio Odon Elorza Donostiako alkate Jaunari. Leku bat eskatu zaio udalburuari Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlas lantaldeak kokatzeko. Leku hori bideratua denez, bistan da erabaki honek ondorio jakinak izango dituela ordezkartza honen egituratze berrian.
- Zuzeneko harremanak jendearekin. Iazko abiada eman da kapitulu honetan. Jende asko etortzen da izen-deiturak euskarazko grafian jartzeko, bai bere kabuz eta, dirudienez, kanpaina zenbaitzuren eraginez ere bai. Honek, ziuertagiriak espero zitekeen baino erritmo altuagoan luzatu beharra eskatu du.



### III.2.2. GASTEIZKO ORDEZKARITZA

Atal honetako sarreran aipatu den bezala, hiru ardatz nagusitan egin da lana Gasteizko bulegoan: lehendabizi, Erakundearen zerbitzu orokorretako eginkizunetan eta atxekitutako batzordeak funtzionamendurako behar dituzten baliabideez hornitzen; bigarrenez, foru eta hiri administrazioetako sail desberdinei, zenbait elkarte eta hiritarri hurbileko harreman eta zerbitzuak ematen; hirugarrenez, Arabako ordezkariak Akademia-  
ren errepresentazioa eraman du Araban izan diren gertakizun ofizial eta kulturazko ekintza garrantzizuenetan. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeak eta Estatu-  
tuko Administrazioak beren egoitzak Gasteizen kokatuta dituztenez, batzuetan Euskaltzaindiaren eta hauen arteko harremanak ordezkarietatik bideratzen dira.

Hona hemen, laburbilduz, 1996an egin diren eginkizunen azalpena.

#### **Akademi lanak**

##### *Batzorde eta zerbitzuak*

- Argitalpen zerbitzua. *Aita Juan Mateo Zavalaren Sermoiak (I)*, Euskararen Leku-  
koak argitalpen saileko 18. liburukia argitaratu da azaroan. Lan honen transkriba-  
keta eta zuzentze lanak egin ditu ordezkarietako bulego arduradunak Luis Villa-  
santeren zuzendaritzapean. Bigarren tomoa prestatzen hasi dira ondoren.
- Jagon saila. Ordezkaritzara heldu diren salaketak eta kezak (hizkuntzaren  
erabilpen ez egokiagatik, errotuluak elebakarrez daudelarik edo hizkuntz aka-  
tsak dituztelako) jaso egin dira eta, behar izan denean, bideratu. Halaber, eus-  
kararen egoeraren arta izan da ordezkarietza eta gertakizun garrantzitsuenetako  
informazioa bildu eta Jagon sailaren eskuetan jarri da. Ildo honetatik aipatze-  
koa da Gasteizko alkateak, hizkuntza ezberdinen erabilpenerako Udal Orde-  
nantza deritzon txostenari buruzko iritzia eskatu diola Euskaltzaindiari.
- Prentsa zerbitzua. Arabako ordezkarietako bulego arduradunak lagundu ohi  
dio prentsa zerbitzuburuari bere zereginetan, batez ere lurralde honetan antola-  
tu diren ekintzetan.
- Gramatika batzordeari eta Ahoskera lantaldeari azpiegitura zerbitzua eskaini  
zaie Arabako ordezkarietatik: bilera-deiak, agiriak, txostenak eta bestelako ma-  
teriala banatuz, etab.
- Gasteiz hiriko kale-izendegiaren lantaldearen bilerak eta materiala koordinatu  
dira. Urte eta erdi luzean jardun ondoren, ekainean burutu da lana, kale-izen  
guztien euskal ordaineko zerrenda eta irizpide nagusiak biltzen dituen txoste-  
narekin.
- Hiriburuko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, aurten sortu da bertako  
toponimia biltzeko lantaldea. Lan honetan lau bekadunek dihardute ordezkari-  
ritzan, E. Knörr Onomastika batzordeburuaren zuzendaritzapean eta J.A. Gon-  
zalez Salazar batzordekidearen koordinazioaz.

## **Kanpo lanak**

### *Orokorrak*

- Ziurtagiriak. Euskaltzaindiaren beste bulegoetan bezala, izen eta deituren agiri ugari egin dira, Onomastika batzordetik bideratzen diren zerrenda eguneratuz baliatuz. Zalantzako kasuetan, ohi denez, batzorde-idazkariarengana jo izan da. Ponte-izenei dagozkien galdera eta eskabide gehien exanimoei, hots, jatorriz euskal izenak ez direnei buruzkoak izan dira.
- Hizkuntz zalantzak. Arau akademikoei buruzkoak argitzeko etorri da jendea: ikasleak, euskaltegietako nahiz IRALEko irakasleak, administratuetako teknikoak, kazetariak, itzulpengintzakoak, etab.
- Hizkuntzaren erabilpenari buruzko kontsulta zehatzak Gramatika batzordera pasatu dira eta dagozkien erantzun edo irizpenak eragile teknikariaren bitartez bideratu dira. Onomastikari buruzkoak, prozedura berbera jarraituz, tratatuak izan dira batzorde horretan.
- Hizkuntzaren zuzentasuna. Lurralde honetan euskararen erabilpen ofiziala dela eta bai norbanakoak bai elkarteak zuzendu dira ordezkartzara beren kezka azaltzera: euskarazko testu ofizialak eta errotulazioak akatsez beterik daudela, elebkarrekoak (gaztelania hutsean) direla. Honen guztiaren informazioa jaso eta Jagon sailean ematen da honen berri, edota dagokionari helarazten zaio behar den aholkua.
- Egoitzaren erabilera. Arabako zenbait elkartek eskatuta, Euskaltzaindiaren aretoa erabili izan da euskararen inguruko bilerak eta aurkezpenak egiteko.

### *Udalak*

Euskarari buruzko argibideak. Zerbitzu ezberdinetatik egin diren galderari erantzun zaie.

Gasteizko Udal Gizarte-etxeetako kultura zerbitzuak urtero antolatzen dituen jardunaldietan Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen dute. Bestetan bezala, Patxi Goenaga ordezkariak parte hartu du Euskaltzaindiaren arauari buruzko azalpenak eta gramatikazko zalantzei buruzko argibideak emanez.

Arabako Udal eta Administrazio Batzordeek Gasteizko bulegora jo dute euren izen ofizialari buruzko irizpideak eskatuz.

Ponte-izenak eta deituren aldaketak egiteko ziurtagiriak ere zuzenean eskatu dituzte udal batzuetatik: Aramaio, Agurain, Legutiano, Amurrio, Biasteri, besteak beste.

Ekintza kulturalak. Euskaltzaindiaren partaidetza eskatu denean, Ordezkariak bete du zeregin hau. Ohikoena, «Araba Euskaraz» ikastola pribatuen jaia da.

### *Erregistro Zibila*

Herritarrei bideak errazteko asmoz, etengabeko harremanak sortu dira Gasteizko Erregistro Zibilarekin. Izen-deiturez eta zalantzako ortografiaz argibideak ematen dira.

### **III.2.3. IRUÑEKO ORDEZKARITZA**

#### **Euskararen egoera**

Nafarroako Gobernuaren aldaketa dela eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia Lehendakaritza sailetik Kultura sailera pasatu da. Gertakizun horren aurrean, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria aldaketa horrek ekar litzakeen ondorioei so egon da.

Nafarroako Euskararen kontseilukide bezala izan da izendatua lurralde honetako ordezkaria, baina Kontseilua ez da martxan jarri.

Elebitasunaren sustatzeko hain garrantzitsua den ETBren harpena Nafarroako Parlamentuak onarturik eta berehala ofizialki ezartzeko zegoenari luzapen epe gabea eman zaio.

Egoera honen inguruan Diario de Navarra egunerokoak bortizki eraso du euskararen eta Euskaltzaindiaren aurka «Ollarra» zuzendari ohiaren izenean. Euskaltzaindiak adierazpena idatzi du jarrera hori salatuz, baina egunkari horrek ez du argitaratu, iragarpen ordaindua izan arren. Hainbat kargudun eta gizabanakori igorri zaie postaz.

Nafarroako euskal irratiek baimen ofizialik gabe jarraitzen dute eguneroko beren lanbidean. Egoera hori bideratzeko gizartetik egin diren saioen jarraipenaz arduratu da ordezkaria nahiz eta urrats ofizialak eten.

#### **Euskaltzaindiaren ekintzak Nafarroan**

Euskaltzaindiaren hileroko batzarra egin da martxoan. Gerra ostean euskararen alde lan asko egindako Frantzisko Tirapu euskaltzain urgazle zenari omenaldia eskaini zaio. J. Cortes Izalek egindako txostenean une hartako egoera eta euskararen aldeko ekintzak aipatu ditu.

Uztailean Onomastika batzordea bildu da Iruñeko bulegoan. Batzordekide den Patxi Salaberri urgazle berria izendatua izan da urteko izendapenetan.

#### *Barne lanak*

- Prentsa deialdiak. Ohi denez, Iruñeko ordezkarietatik egin dira Nafarroako arazoei dagozkien hartuemanen loturak.
- Epaitegiko agiriak. Erregistro Zibilerako pertsona izen nahiz deitura kontuen agiriak egiten jarraitu da beste bulegoetan bezala: pertsona izenei buruz 43 ziurtagiri eman dira urtean zehar eta 137 abizenenak.
- Udal eta herri batzuetako toponimia nahiz bestelako izenen kontsultak erantzun dira, beti ere Onomastika batzordearen bidez aztertuta.
- *Oroitidazkiaren* banaketa, Jagon saileko gutuna eta galdetegia ikastola eta ikastetxeetara egin da.

- Egunkarietako adierazpen eta mezuak barreiatu dira.
- Euskaltzaindiak antolaturiko jardunaldietako iragarpen eta partaideen izen hartzeak bideratu dira.
- Zenbait txosten eta testu zaharren prestaketa lana ere egin dira ordezkari-tza honen bulegoan.

### **Elkarte eta agintee-kiko harremanak**

Euskararen Kontseilua, Nafarroako Gobernu Hirukoitzarekin hiru aldiz bildu da ordezkaria, Erakunde hori izango zenaren zirriborroa zehazteko. Ustez amaiturik zegoen eta izendapenak eginak berehala lanean hasteko. Euskaltzainburua agertzen da zerrendan berezko partaide moduan, eta Jose M. Satrustegi da Elkargoak izendaturiko bigarren ordezkaria.

Agintari berriei bisita. Kargu berriak sartzean egin ohi denez, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko burua ikusten izan dira Euskaltzaindiko Zuzendaritza eta ordezkaria. Euskarari buruz asmo onak agertu ditu agintariak eta orain arte bezala Euskaltzaindiari behar den laguntza ematen jarraituko duela hitzeman du.

Iruñeko udalaren hitzarmena. Betidanik eman izan du Iruñeko Udalak Nafarroako ordezkari-tzako gastuentzat bere dirulaguntza, baina hitzarmena sinatu nahi izan du elkarren arteko loturaren lekuko. Hori dela eta, Nafarroako ordezkaria testuaren pres-taeran hartuemanetan egon da arduradunekin. Era berean, Zuzendaritzak ere biler-a bat izan du Joaquin Pascal alkateordearekin, Chorraut jauna egun hartan kanpoan zegoela-rik.

Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia izandako Jose M. Rodriguez Ochoa J.M. Satrustegi ordezkariarekin bildu da, beste asmo batzuen artean, Nafarroako egoera-ri buruz euskararen liburu zuria egiteko xedea agertuz. Tajuzko ikuspegi baten premia nabarmendu da bileran.

Tuterako «Argia» ikastola berriaren aurkezpenean egon da ordezkaria Euskal-tzaindiaren izenean. Eraiketa gaur-gaurkoa, toki zabal eta alaia lortu dira Erriberako hiri nagusiko ikastetxe honetan. Ehun eta hamar bat haur izan dira bertan.

Urteroko Nafarroa Oinez egunean Etxarri Aranatzan egon da ordezkaria jasotako gonbitea dela bide, Erakundearen izenean.

### **Bestelako ekintzak**

Urtean zehar irrati saioen bidez eman izan da euskarari buruz informazio ugari. Hileroko batzarraren ondoren, besteak beste, hartutako azken erabakien berri eman da. Atal hori ohikoa bihurtu da.

Nafarroako Gobernuko «Dialektologia eta Literatura» gazteen saioetan egon da epainahaikide J.M. Satrustegi. Euskararen zerbitzuak antolatutako sariak dira eta lanak euskaraz bakarrik datoz. Gaztetxoek hartzen dute parte.

Iruñeko Udalak antolaturiko literatura lehiaketan ere epaimahaikide izan da ordezkaria. Olerkia, nobela eta narratiba lanak aurkeztu dira. Ikasiek ere saritu dituzte komik eta marrazki lanak. Lanik argitara ez duten idazle berrientzat da.

«Ortzadar» kultur taldeak Iruñeko Udalaren aurka eramandako auzian epaitegira deiturik, lekuko aurkeztu da Euskaltzaindiko ordezkaria. Euskaraz bakarrik idatzitako iragarki eta kartelei diru laguntza ukatzen zien erabakiaren aurka egindako errekurtsioa izan da.

J.M. Satrustegik ikastetxeetan emandako hitzaldien artean honako hauek aipa daitezke: Barañain, Eskoriatza, Altsasu, Eibar, Donostia (Zurriola). Nafarroako Unibertsitateko Gizarte Zientzietako Departamentuan.

### **Ordezkarri aldaketa**

Abenduko batzarrean, kargu berritzeko garaian, Nafarroako ordezkari kargua utzi du J. M. Satrustegik. 1957an urgazle izendatua izan zenetik berrogei urte badira, eta 1963tik euskaltzain oso bezala, beti Euskaltzaindiaren alde lan egin du Nafarroan. Lorpen handia izan zen 1979an ordezkaritza Nafarroako Erakustokian lehenik sortzea eta gero, 1985ean, Gobernuak bulego hau eman izana. Normaltze prozesuan bere emaitza egintzat utzi du. Eskergarriak dira urteetan jarri duen kemena eta eskaini dituen zerbitzuak.



### **III.2.4. BAIONAKO ORDEZKARITZA**

#### **Ordezkaritzaren zerbitzuak**

Baionako ordezkariak Euskaltzaindiari doakion zerbitzua edozein herritar, talde, elkarte, erakunde edo enpresari eskaintzen dio. Azpimarratzekoa da herrikoetxei ematen dien laguntza, bereziki herri barneko seinalakuntzaren euskaratzeko. 1995ean Uztaritzeko herrikoetxearekin aritu zen. 1996an, Biarritzekoaren aldia izan da, Euskal Kultur Erakundearen bitartekaritzarekin.

Bestalde, kazetari multzo batek galdeginik, urtarriletik uztailean bildu dira hilabete guztiz delako kazetari horiek Iparraldeko euskaltzain oso batzuekin (J. Haritschelhar, P. Charritton, B. Oihartzabal, besteak gutunez ari zirela) sail tekniko berezi zenbaiten laguntzeko. Adibidez, justizia administrazioak hiztegi berezia dauka, ez dena arras berdina Hegoaldean eta Iparraldean, Espainiak eta Frantziak beren egitura eta egin molde desberdinak baitituzte. Helburua hau da: kazetari guztiek gisa berean eta ahal bezain zuzen eman dezaten justizia saileko gertakarien berri.

#### **Ekitaldi bereziak**

1996an ere, EGAREN (Euskararen Gaitasun Agiriaren) azterketa bi aldiz -maiatzean eta urrian- antolatu du ordezkariak, Iparraldeko bizilagunentzat. Iaz, 44 lagunek aurkeztu dute beren burua eta horietatik 23k azterketa gainditu.

Bestalde, bere lanen ezagutarazteko asmoz, Iparralde honetan muntatzen diren liburu erakusketa edo azoketan parte hartu du, urtero bezala, bereziki Donibane-Lohizune eta Sarakoetan. Irisarrin bi urtetarik behin antolatzen diren Ondarearen egunen kariatara, Euskal Herriko Hizkuntz Atlas aurkeztua izan da publikoaren aitzinean larunbat arratsaldean -urriaren 19an- eta biharamunean. Erakusketaren bisitariek ikusi dute zer ondorio emanen duen informatikak. Funtsean, zenbaitzuek entseiatu dute nola hatzeman zitezkeen argitasunak herrika, gaika eta beste.

#### **Egoitza berria**

Baionako ordezkariak bulego berriak izateko lehen urratsak eman ditu. Ontsalaz, Gaztelu Berriko ingeles dorrean ukanen ditu urte guti barne. Euskaltzaindiak bi estaiaz baliatuko da eta bestalde barne bat utziko die Baionako Udalak Euskal Konfederazioari eta UEUri (Udako Euskal Unibertsitateari). Xede horren gauzatzeko, harreman jarraikian ari da ordezkariak Hiriarekin.





### **III.3. Azkue Biblioteka**



### III.3.1. AZKUE BIBLIOTEKA

#### Barne antolamendua

Langilegoan erabateko edo behin-behineko aldatzeak izan arren 1996an, Euskaltzaindiaren bibliotekak eta artxiboak ohiko antolamenduaz iraun ahal izan dute, euskaltzain osoek 1993.eko irailaren 30ean onartutako Barne Erregelen arabera eta urtean zehar Biblioteka Batzordeak egin dizkion aholku eta gomendioak jarraituz. Martxoaren 10ean jubilatuta da Jose Antonio Arana Martija bibliotekaria. Bibliotekako zuzendaria izendatu arte laguntza ematen jarraitu du, 1997an bukatuko den kargu berri honen hautapen prozedura burutua izan arte, hain zuzen. Euskaltzaindiak, lanpostu hori betetzeko plana eta prozedura onartu ondoren, deialdi publikoa egin du. Abenduaren 30ean, bibliotekaren zuzendariaren lanposturako hautagaiak aurkezteko epea bukatu denean 48 eskari jaso dira bulegoetan. Artxibistikako ikastaroa egin dute bibliotekako bi teknikariek martxoan zehar.

#### Eskurapenak

Aurrekontuetako murrizketen ondorioz, erosketen plana aldatu egin behar izan da. Erosi diren monografiak, aldizkariak, mikrofilmak, etab., 1.183 izan dira, 3.051.842 pezeta ordainduz. Biblioteka, artxibo eta fonotekarako emaitzaz eta trukez jaso diren aleak eta CD-ROMak 4.617 izan dira, 4.166.781 pezetatan baloratuak. Beraz, jasotako guztiak 5.900 izan dira 1996. urtean, 7.218.623 pezetako gehiketa izan duelarik Euskaltzaindiaren ondareak.

Jasotakoen artean azpimarra daitezke honako liburu eta aldizkari hauek: Kardaberaz, Moguel, Aranzabal eta aurreko mendeetako klasiko batzuenak, *Sevillana medicina*, Juan Aviñon-ena, etnologia eta antropologiarako interesgarria, *Larousse Entziklopedia*, esku artean erabiltzeko *Euskalerraren alde* aldizkariaren berrargitalpena, eta *Enbata* aldizkariaren bilduma osotu da. Pariseko Biblioteka Nazionalean mikrofilmatu da, Patri Urkizu euskaltzain urgazlearen bidez, Antoine d'Abbadie-ren funtsa, eta Bizkaiko Foru Diputazioaren laguntzari esker, Aurten Bai Fundazioak eginda, 2.974 CD-ROMetara pasatu dira Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren 2.400 zinta magnetikoak. IRALETik jaso dira 73 bideo eta 293 zinta bizkaierako grabaketekin.

Sebastián García Trujillo euskaltzain urgazlearen bitartekotasunari esker, Maria Victoria García de Andoain eta alaben familiak eman dizkio Azkue Bibliotekari *Euzko endea* eta Pariseko *Euzko Deya* aldizkariaren bilduma osoak, eta *Occident*, *Voz de Madrid*, *Enbata* eta Buenos Airesko *Eusko Deya* aldizkariaren ale batzuk. Euskaltzainburorde izan den Juan Mari Lekuonak, euskaltzainburua izan zen Manuel Lekuona osabaren artxibotik atereak, honako eskuizkribu hauek eman dizkio Azkue Bibliotekari: Resurrección Maria de Azkue, Domingo Agirre, Juan Bautista Agirre Asteasukoa eta euskarazko beste eskuizkribu originalak, izen gabekoak. Xabier Gereño euskaltzain urgazleak eta beste euskaltzain batzuek, euskararen eta euskal kulturaren historiako interesgarriak

diren dokumentuak eman dituzte. Euskaltzain urgazlea den Pierre Andiazabalek Baionako Apezpikutegiarena den Harrieten hiztegia, argitara gabea, mikrofilmatzeko utzi du.

Azken hamar urteotan (1987-1996) jaso direnen laburpen gisa, esan daiteke 16.995 monografia, aldizkari, mikrofilm, dokumentu, etab. erosi direla, horiengatik 24.715.963 pezeta ordainduz, eta doan eta trukez bibliotekan sartu direla 54.404 ale, 20.823.713 pezetatan baloratuak. Hau guztia kontuan izanik, Euskaltzaindiaren ondareak bibliotekan, artxiboan eta fonotekan 71.299 aleren gehikuntza izan du azken hamarkadan, 45.549.676 pezetatan baloratua.

Kopuru hauetan ez dira sartu egunkariak, kartelak eta beste balio gutxiagoko inprimakiak, ez eta azaleztatzeak eta liburu baliotsuen eta egoera txarrean zeuden liburu bakanen konponketek gehitzen duten balioa. Azaleztatze-lanetan 253.221 pezeta xahutu dira 1996an.

### **Katalogazioa**

Azkue Bibliotekan katalogaziorako erabiltzen den Absys sistema asmatu zuen Baratz Etxearekin sinatutako hitzarmenaren bidez, 8.574 liburu katalogatu dira 1996. urtean, batez beste 42 liburu egunero. Aurreko urtean hasi zen Hizkuntzalaritza saileko katalogazioa amaitu eta geroago zehaztuko diren gaiak katalogatu dira. Jon Bilbaoren liburutegia, Amale Bilbao alabak Euskaltzaindiari emandakoa ere, katalogatu da Adela Bikandi bekadunaren ardurapean. Katalogo hau euskaltzain osoen artean banatu da martxoaren 21ean egindako bilkuran. Kontuan izanik katalogazio lanak 1995.eko ekainean hasi zirela, 14.074 liburu katalogatu dira urte eta erdi honetan.

Esan behar da, bestalde, Azkue Biblioteka dela Euskal Herrian katalogoa euskara hutsean egiten ari den bakarra, eta hori hala egiteko bibliotekonomiako hitzak eta esaldi bereziak itzultzea, egokitzea eta asmatzeak lan garrantzitsu eta neketsua eskatzen duela, hizkuntzaren kalitatea eta euskal kulturaren sistematizazioa izan behar baita helburua, beste bibliotekentzat erdugarri izan dadin. Lan honetan laguntza estimagarria ematen du Azkue Biblioteka batzordeak, zeinek zazpi bilera egin dituen urtean zehar katalogazio sailetik aurkeztutako hitzen eta esaldien zerrendak itzultzeko eta aldaera egokienak hautatzeko.

### **Ekintza bereziak**

- Erribera kaleko egoitza historikoan zeuden azken paperak urtarrilean ekarri dira Plaza Barrira, lantoki honen erabilera behin betiko utziz.
- Sabino Arana Fundazioari, Planeta eta Santillana agitaletxei, Biblograf eta beste erakunde batzuei material grafikoa eta argazkiak laga zaizkie argitalpenetarako. Esan behar da, gainera, Eusko Jaurlaritzari eta EITBri sarritan uzten zaizkiela argazkiak eta bestelako materialak. Euskarari eta euskal kulturari dagozkien ikus-entzuteko erreportaiak prestatzeko grabazioak egin dira.
- Liburuak, liburuxkak, argazkiak, mapak, eskuizkribuak eta beste, utzi dira erakusketak antolatzeko, hala nola Zarautzen, irailaren 27an inauguratu den «Euskal aldizkari literarioak» izenkorako, Sancho el Sabio Fundazioak Gasteizen antolatu duen «Euskal idazleak» erakusketarako eta Avellanedako Batzar Etxean antolatu den «Enkarterriko Kartografia»rako.
- Erreterian dagoen Eresbil -Euskal Musikalarien Artxiboari- Euskaltzaindiaren jabe goa gordez, utzi zaio Jose Maria Olaizola Azkueren musika artxiboa, ikerleentzat erraztasunak emateko asmoz.

- Euskaltzaina eta Euskaltzaindiaren bibliotekaria izan zen Georges Lacomberen liburutegia, orain Telesforo Monzonen alarguna den Josefa Ganuza andrearena dena, taiuatu da Donibane Lohizunen. Balio handiko liburutegi hau Bergarako Olaso Dorrera eraman du Jose Antonio Arana bibliotekariak, eta bertan kokatu da gela batean, urrian hasi direlarik katalogatze lanak Azkue Bibliotekak gainbegiraturaz. Aipatu G. Lacomberen artxibo aberatsa Bilbora ekarri da, beharrezkoa baitzen astitsu eta zehatz taiutzea gero Bergaran, Irargin -Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentruan- mikrofilmatzeko. Halaber Olaso Dorrean dauden Monzon-Olaso-Ganuza-Lardizabal familien artxiboak ere aipatu bibliotekariak ordenatuko ditu.
- Doktorego tesiak prestatzeko informazioa eman da, ijitoen euskara edo «erromintxela» ikertzen ibili den taldeari tokia, baliabideak eta informazioa eman zaizkie, eta *Relaciones exteriores del nacionalismo vasco* doktoretza burutzeko Odon Apraizen artxiboko dokumentu argitara gabeak utzi zaizkio Alex Ugalde tesi egileari.
- Azkue Bibliotekak Pariseko Biblioteka Nazionaletik lortutako mikrofilma, Julio Urkixoren liburutegian dagoen alearekin osotuz, erabili du Patxi Altuna euskaltzainak Tartasen *Arima penitentaren occupatione devotac* izeneko liburuaren berrargitalpena prestatzeko.
- Eskolek, ikastolek, batxillergoko institutuek, IRALE eta AEKko taldeek egin dituzten ohiko bisitez gain, Azkue Bibliotekan egon dira Ville Laakaso finlandiarra, Klaus Niebel alemana, Vahan Sarkisian armeniarra eta Geoffrey West ingelesa, British Librarykoa.



### III.3.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Batzordeak, guztira, zazpi bilera egin ditu urtean zehar.

#### Egindako lanaren emaitza

Aurreikusita zegoen plangintzarekin aritu da lanean batzordea 1996. urtean, euskarazko katalogaziorako beharrezkoa den terminologia finkatzen.

Bibliotekologiari (biblioteca-terminologiari) eta alor horretako gaietako dagozkien 300en bat hitz eta esaldi eztabaidatu eta onartu dira batzordean. Onomastika batzordera bideratu dira gai hauei dagozkien hitz-zerrendak: erlijio-ordenak, eliza-izenak, deituren ortografia, idazle greziar eta latinoen izen-zerrendak eta Bibliako izenak.

Katalogatze-lanean sortu izan diren arazoak bideratu dira, eta orain arte egin diren hitzen zerrendak berrikusi eta zuzendu dira. Azkue Bibliotekako teknikarien kontsulta eta arazoei aholku eta irizpena eman die, zenbait kasutan, batzordeak.

Euskarazko katalogazioaren inguruko harreman hauek izan dira, besteak beste:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Ondare zuzendaria den Eduardo Estraderi, batzordea katalogazio-alorrean egiten ari den lanaren berri emanez elkarlanerako gonbidapena luzatu zaio.
- Bizkaiko Biblioteka Foralari, hark bibliotekako euskarazko terminologiaz egindako kontsultari erantzun zaio.
- Koldo Mitxelena Kulturunea, HABEko Liburutegia, Gipuzkoako Bibliotekari Elkartearekin eta Xenpelar Dokumentazio Zentruarekin euskarazko katalogazioaren inguruan dauden arazoez eta premiez eztabaidatu da, Azkue Bibliotekari egiten den lanaren berri ematearekin batera. Horretarako, sarritan egin dira bilerak erakunde eta elkarte horiekin.
- Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Hitzarmenaren barruan, *erromintxela* (hots, Euskal Herriko ijitoen euskara) aztertzen aritu diren ikerleei lan hori burutzeko behar zuten dokumentazioa bilatzen lagundu die batzordeak.

Martxoan, ordura arte Azkue Bibliotekako liburuzaina izandako Jose Antonio Arana Martija jubilatu da. Gelditutako hutsunea betetzeko prozeduraren eta lanpostuaren nondik-norakoaren, hots, deialdiaren prestaketan parte hartu du batzordeak, gaiak eztabaidatuz eta proposatuz.





### III.3.3. AZKUE BIBLIOTEKAKO KATALOGAZIO-LANAK

Euskaltzaindiak 1995ean ekin zion Azkue Bibliotekan katalogatu gabe zegoen funtsa katalogatzeari. Aurten ere lau langile hitzartu aritu dira lanean Bilboko egoitzan dagoen Azkue Bibliotekan. Egindako planaren arabera, sei urte barru funts bibliografiko osoa katalogatuta egotea espero da.

#### **Egindako lanaren emaitza**

Katalogatzaileek, Azkue Biblioteka batzordeak emandako irizpide akademikoei jarraiki egiten dute lan, terminologia gaietan batik bat. Tartean sortzen diren era horretako arazoei irtenbidea emateko ere batzordeak aholkua ematen du.

- Azkue Bibliotekako katalogatzaile hitzartuek 1996an zehar 8.574 liburu katalogatu dituzte:
  - Hizkuntzalaritzako 1.026 liburu.
  - Erljio eta erreferentziazko 1.888 liburu.
  - Euskal literatura eta biografia-liburuak: 1.460.
  - Artxibo eta biblioteketako katalogo bibliografikoak: 943.
  - Arteari buruzko 1.298 liburu.
  - Gida-liburuak eta herrietako monografikoak: 1.607.
  - Hizkuntzalaritzari buruz alemanez idatzitako separatak eta historia sailekoak: 352 liburu.
- Jon Bilbaoren liburutegia katalogatzen bekadun bat aritu da hiru hilabetez. Ez da katalogazioa osoa izan, aurrekatalogazioa baizik. Edozein modutan ere, liburuen oinarritzko datuak jasotzen dituen lan hau Jon Bilbaoren 2.649 liburu eta aldizkariri egin zaie.
- Abenduan, aurreko hilabeteetan egindako katalogatze-lana zuzendu dute katalogatzaileek.



### **III.4. Argitalpenak**

Zerbitzu honek bi azpiatal ditu:

- Argitalpen batzordea
- Argitalpenen banaketa eta salmenta zerbitzua



### III.4.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordeak 1996an zehar bi bilera egin ditu. Argitalpen hauek prestatu edota kaleratu dira:

1. *Euskera* (1995, 2-3). Bi zerbaki hauek liburuki bakar batean argitaratu dira. Liburuki honek, nagusiki 1995eko apiriletik abendura arte -biak barne- onartutako aktak, erabakiak eta txostenak jasotzen ditu 435 orrialdetan zehar: Patxi Goenaga Euskaltzaindian sartzea: «Euskararen batasunaz eta duintasunaz / Unificación del euskara y dignificación de la lengua»; Patxi Goenagaren Euskaltzaindian sartzea: Miren Azkarate euskaltzainaren erantzuna; «Aita Gabirel Jauregiren omenaldia»; «Aramaio hizkuntz ondareaz»; «Aramaio. Bizkaiera»; «Aita Gabirel Jauregiren bizitza»; «Aita Gabirel Jauregiren lanak»; «Anai Innocentius Elizanbururen mendeurrena»; «Anai I. Elizanburu-ren mendemugan»; «Heleta eta Elizanburu. Dokumentuak»; «Mixel Elissambururen bizia eta lanak (Heleta, 1826 - Hazparne, 1895)»; «Elissamburu, framazonak eta juduak»; «Gerhard Bähr-en heriotzaren 50. urteurrena»; «Vida de Gerhard Bähr»; «Gerhard Bähr, euskalaria»; «Gerhard Bähr-en euskal aditzari buruzko lanak eta eztabaidak»; «Gerhard Bähr-en *Baskisch und Iberisch* tesiaz»; «Gerhard Bähr eta Euskal Herria»; «Gerhard Bähr, muerte y vida»; «Euskaltzaindiak Herri-Aginteeekin egindako *Hitzarmena*»; «Acuerdo entre el Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra, Diputaciones Forales y Euskaltzaindia»; «Euskaltzaindiak Herri-Aginteeekin egindako *Hitzarmena*»; «Palabras del Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra en el acto de firma del *Acuerdo* con Euskaltzaindia»; «Euskaltzaindiak Herri-aginteeekin egindako II. *Hitzarmena*»; «Euskaltzaindia-Herri aginteeekin sinaturiko II. *Hitzarmena*»; «Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, 1995.eko urriaren 27an, arratsaldeko lau eta erdietan, Hego Euskal Herriko Herri-aginteeekin II. *Hitzarmenaren* sinadura ekitaldiari hasiera ematen zaio». Euskaltzaindiaren Hizkuntz Arauak: 30. Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola; 31. *Ekartzea merezi du*; 32. Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak; 33. *Ongi etorri!*; 34. *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*; 35. Orduak nola esan; 36. Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak; 37. Data nola adierazi; 38. Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak; 39. Zenbait aditzen erregimena; 40. *Topiko(a) bihurtu*; 41. *Egiteko asmoz*; 42. *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*; 43. Hiztegi Batua: laburdura-zeinuak, iturriak, irizpideak: *a - alkohol*; 45. Gure egitura politiko batzuen euskal izenez; 46. Hiztegi Batua: *almendra - arratsalde*; 47. Hizkuntza hilak eta klasikoak; 48. Hiztegi Batua: *arraun - azuzena*; 49. *-Ari / -Ario*; 51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak; 52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak). «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak eta Adierazpenak»; «Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldiak: Larrabea, Euskaltzaindiaren *Adierazpena*»; «Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. hizkuntz eskakizunetan»; «*Erreterria* eta *Orereta* izenez»; «Euskaltzaindiko *Kudeatzaileaz* erabakia». Txostenak: «Hizkuntz atlasa dela eta»; «Commentaire critique des 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca': ASJU, XXIV-1, 1990, 111-202 (Beule-Buzuntz)»; «Commentaire critique des 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca': ASJU, XXIV-2, 1990, 615-668 et ASJU XXIV-3, 1990, 819-870»; «Iztueta y sus estrofas acerca de las cabras». Onomastika, diktamenak: 'Zuya / Zuia'; 'Valle de Arana / Harana'; 'Peñacerrada / Urizaharra'; 'Campezo (Santa Cruz de Campezo) / Kanpezu (Santikurutze-Kanpezu)'; 'Gainza / Gaintza'; 'Zumárraga / Zumarraga'. Gramatika: «EITB-ko galdera zerrendari Gramatika batzordeak oraingoz ematen dion erantzuna». Berriak: «*Euskaltzaindiaren Arauak*. Aurkezpena»; «Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Agiriak (*Euskera*ren 1994.eko 3. liburukiaren aurkezpenaren kariatara)»; «Diccionari de la llengua catalanaren aurkezpena Valenciako Unibertsitatearen paraninfoan»; «Bizkaiko Foru Diputazioa - Euskaltzaindia Euskal Herriko Hizkuntz Atlas CD-ROM delakora pasatzea (II)»; «Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskaltzaindia Euskal Herriko Hizkuntz Atlas dela eta. *Hitzarmena / Convenio*». Omenaldiak: «Jose Maria Makua Zarandonaren oroime-nez»; «Jose Maria Makua Zarandona jaunari Euskaltzaindiak oroitarria»; «Bi euskaltzain ohorezko berri»; «Pedro Pujana Agirregabiria euskaltzain ohorezkoa»; «Joan Corominas i Vigneaux»; «Juan Antonio Mogel jaio zenetik 250. urteurrena»; «J. A. Mogeli omenaldia»; «Rosa Mari Arza Azuetaren 'zilarrezko eztaiak' lanean»; «Federico Krutwig y Juan Jose Pujana, medallas de honor de la ciudad de Cabala»; «Federico Krutwig eta Juan Jose Puiana ohorezko dominadun Kabalan (Grezian)»; «Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia: literatura-sariak». Hil berriak: «Josu Oregi Aranburu (1919-1995)»; «Ignacio Omachevarria Martitegui (1909-1995)»; «Julio Caro Baroja (1914-1995)»; «In memoriam Julio Caro Baroja (1914-1995)»; «Maria Aldazabal Elisburu (1906-1995)»; «Gabriel Ramos Uranga (1939-1995)».

2. *Euskera*, (1996, 1-2). Bi zerbaki hauek liburuki bakar batean argitaratu dira. Liburuki honek 1996ko urtariletik uztailetera arteko agiriak, jardunaldiak, irizpenak, aurkezpenak, txostenak eta berriak jasotzen ditu 436 orrialdetan: «Jose Maria Agirre 'Xabier Lizardi'-ren mendeurrena»; «Lizardiren mendeurrena»;

«Lizardi: lurraren arnasa»; «Lizardi eta paisaiaren trataera»; «Bultzi-leiotik espazio-denboraren korropiloe-tan»; «Lizardiren prosaren estiloaz»; «Lizardiren ametsezko bidaia»; «Athanasio Belapeyrenen III. mendeurre-na»; «Athanasio de Belapeyre, haren familia, bizitza eta lana»; «Belapeyrenen *Catechima laborra*-ri buruzko ohar jakingarri zenbait»; Luis de Jauregui 'Jautarkol' euskal poetaren mendeurrena: «Luis Jauregi 'Jautarkol'-en *Biozkadak* testu azterketa»; «Jautarkolez: aztarren bila». Euskaltzaindiaren Erabakiak eta Adierazpenak: «Euskaltzaindiaren Arauak: 53. Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak; 54. Hiztegi Batua: *ba - belztura*; 55. Hiztegi Batua: *bemol - bidari*; 56. Hiztegi Batua: *bidaro - bizartsu*; 57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak; 58. Hiztegi Batua: *bizi - buztintsu*; 59. Ibaiak; 60. Aintzirak; 61. Hiztegi Batua: *C - diametro*; 62. Hiztegi Batua: *diapositiba - dotrina*; 63. Hiztegi Batua: *dozena - entzutetsu*». Batzar Agiriak: 1996-01 - 1996-07. Euskaltzaindiaren Adierazpenak. Onomastika: «Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen Ebazpena MetroBilbao lurpekoaren geltokien izenez»; «Dictamen de la comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre Denominación de las estaciones del Metro de Bilbao»; «Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen Ebazpena Bilboko Lurpekoaren geltokien irteeren izenez»; «Dictamen de la comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre la denominación de las estaciones del Metro de Bilbao». Onomastika, diktamenak: «Aiara; Kanpezu; Koartango; Burgelu; Erribera Beitia; Gesaltza-Añana; Donemiliaga; Turtzioz; Ametzaga (Asparrena); Atiaga; Artatza, Elexalde, Lamiako; Egino; Etxebarri-Kuartango; Luiaondo; Alda, Kontrasta, Donebikendi Harana, Uribarri Harana; Apodaka; Gaztelugatxe; Izurtza; Mendibil; Altzola; Amorebieta-Etxano; Munitibar / Arbatzegi-Gerrikaitz; Larrea; Areeta; Ziriano; Luku». «*Euskal deituren Izendegia*: irizpideak»; «*Nomenclator de apellidos vascos*: criterios». Txostenak, lexikografia: «Commentaire critique sur les 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca', pp. 255-314»; «Commentaire critique sur les 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca', pp. 543-622»; «Commentaire critique sur les 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca', pp. 805-864». Berriak: «Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: Resurrección María Azkue Saria»; «1995eko R. M. Azkue Saria»; «*Ipuin eta bertsoak*»; «R. M. Azkue Saria: *Ipuin eta Bertsoak*»; «Bernard Etxepare: *Linguae Vasconum Primitiae* liburukiaren aurkezpena»; «El Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra. *Linguae Vasconum Primitiae* liburuen aurkezpena»; «El Consejero de Presidencia del Gobierno de Navarra, Presentación del libro: *Linguae Vasconum Primitiae*»; «Bernard Etxepare: *Linguae Vasconum Primitiae*»; «Bernard Etxepare: *Linguae Vasconum Primitiae*». «Euskaltzaindiaren eta Aurten Bai Fundazioaren arteko Hitzarmena. Euskararen Hizkuntza Atlaseko datu base automatizaren eguneratzea»; «Bizkaiko Foru Aldundia - Euskaltzaindia»; «Euskararen Hizkuntza Atlaseko soinuak CD-ROMen aurkezpena, Bizkaiko Foru Diputazioan egina»; «Euskararen Hizkuntza Atlas: zenbait ezaugarri»; «Bizkaiko Foru Diputazioan, EHHaren CD-ROMen aurkezpena»; «EHHako aplikazio informatikoaren aurkezpena». Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia, literatura sarien aurkezpen-banaketa: «BBK - Euskaltzaindia, 1995.eko Literatura sarien banaketa»; «1995eko BBK - Euskaltzaindia Literatura sariak»; «BBK - Euskaltzaindia, 1995.eko Literatura sarien banaketa: azken hitzak». *Toponimia medieval en el País Vasco. Letra A* (Onomasticon Vasconiae, 14), liburukiaren aurkezpena. *Arrasateko Toponimia* (Onomasticon Vasconiae 15) liburukiaren aurkezpena: «*Arrasateko Toponimia*»; «*Arrasateko Toponimia*: azken hitzak». 1995. urtean hileroko batzarretan izandakoen zerrenda. Hil Berriak: «Aita Gabriel Lerchundi»; «Donoztiriko J. B. Etcheberry zena»; «A. Santi Onaindia Baseta»; «Santiago Onaindia eta euskal olerkigintza»; «Jon Gotzon Etxebarria Martin»; «Jose Antonio Arko-txa Martija»; «Frantzisko Tirapu Retegi»; «Marzelin Hegiaphal»; «Jose Basterretxea Matoni 'Oskillaso'».

3. *Euskaltzaindiaren Arauak*: 46. Hiztegi Batua: *almendra - arratsalde*; 47. Hizkuntza hilak eta klasikoak; 48. Hiztegi Batua: *arraun - azuzena*; 49. *-ari (-lari)* atzizkia; 50. *-ari / -ario*; 51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak; 52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak); 53. Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak; 54. Hiztegi Batua: *ba - belztura*; 55. Hiztegi Batua: *bemol - bidari*; 56. Hiztegi Batua: *bidaro - bizartsu*; 57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak; 58. Hiztegi Batua: *bizi - buztintsu*; 59. Ibaiak; 60. Aintzirak; 61. Hiztegi Batua: *C - diametro*; 62. Hiztegi Batua: *diapositiba - dotrina*; 63. Hiztegi Batua: *dozena - entzutetsu*.

4. *Euskararen tratamenduak: erabilera*. (Iker-9). Xabier Alberdi Larizgoitiak prestatua. Egileak, 1994an, Euskal Herriko Unibertsitatean irakurri zuen doktoretza-tesiaren laburpena da. Liburuki hau Euskal Herriko Unibertsitateak babestua da.

5. *Arrasateko Toponimia*. (Onomasticon Vasconiae, 15). Jose Luis Ormaetxea Lasaga jaunak paratua. Arrasateko Udalak eta KUTXA Fundazioak babesturiko liburukia.

6. *Juan Mateo de Zabalaeren Sermoiak (I)*. (Euskararen Lekukoak, 18). Luis Villante Kortabitartek prestatua. Liburuki hau Bizkaiko Foru Diputazioko Kultura Sailak babesturik argitaratua da.

7. *Hiru egun Larburun*. Luis M<sup>a</sup> Mujika Urdangarin. 'Txomin Agirre' nobela saria, 1995. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

8. *Hegazti errariak*. Juanjo Olasagarre Mendiuneta. 'Toribio Alzaga' antzerki saria, 1995. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.


8. *Hegazti errariak*. Juanjo Olasagarre Mendiuneta. 'Toribio Alzaga' antzerki saria, 1995. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

9. *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*. Pako Sudupe Elorza. 'Mikel Zarate' saio saria, 1995. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

10. *Artius*. Jose Felix Azkona Garzia. 'Felipe Arrese Beitia' olerki saria, 1995. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

11. *Nafarroako Errege Erreginak*. Patziku Perurena. 'Mikel Zarate' sariaren akzesita, 1994. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

12. *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia (1995)*. Erakundeak 1995. urtean buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak ematen dituen argitalpena.







### III.4.2. ARGITALPEN BANAKETA ZERBITZUA

#### Argitalpenen salmenta

Zerbitzu honek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskariari erantzunaz, 1990. urteaz geroztik argitaratutako 21 tituluren ezaugarriak, fitxetan zehaztuta eman ditu, idatzizko ikasmaterialaren EIMA katalogorako. Iker, Hiztegi, Gramatika eta Literatura klasikoari dagozkien bildumetakoak batez ere.

*Linguae Vasconum Primitiae 1545-1995*. Bernard Etxepare. Sei hizkuntzatan eta 2.000 aleko lehen argitaraldia. Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza, Euskal Herriko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiaren partaidetzaz burutua. Euskaltzaindiak eskuratutako liburuak berehalako banaketa-salmentaz ahitu ondoren, Euskaltzaindiak 1.000 aleko bigarren argitaraldia burutu du, eskariei erantzun ahal izateko.

*Euskaltzaindiaren Arauak* argitalpena ia 2.000 harpidetzara heldu da dagoeneko. Beste 300 batek liburudenden salmentaz eskuratzen dute.

Urte honetan, argitalpenen salmentari dagokionez, diru-kopuru hau jaso da: *Euskera* agerkariaren harpidetza eta ohiko liburu-salmentagatik 6.077.706 pezeta eta *Arauen* harpidetzagatik 9.425.136 pezeta. Argitalpenen salmentak, beraz, guztira, 15.502.842 pezetako emaitza izan du.

#### Dohaineko banaketa

Argitalpenen banaketa zerbitzuak 1996. urtean 2.200 liburu banatu ditu dohainik: euskaltzain, batzordekide eta Akademiaren zerbitzuetakoei. Horrezaz aparte berariazko igorketak ere egin dira eta *Euskera* agerkariaz trukea egiten duten zenbaiti, beste bildumetako argitalpenez osatutako igorketa bereziak egin zaizkie. Erakundeak lurraldez lurralde burututako harremanetan ere liburuak banatu dira Herri Aginteei oparituz.

#### Biltegia

Stockean dagoenari irtenbidea eman beharraz, argitaratutako materiala aztertuz eskaintza berezia bultzatu da: Akademiaren zerbitzuetakoei, Erakundearen harpidedunei, Euskal Herriko udal liburutegiei, unibertsitateetako fakultateei, hizkuntza eskolei, euskaltegiei, bigarren hezkuntzako ikastetxeei, herri ikastetxeei, ikastetxe pribatuei, ikastolei, kultur elkarteei, komunikabideei, diputazioei, udalei eta atab. Hona hemen, oraingoz zer arlo nagusitako argitalpenak banatzen hasi den: L. L. Bonaparteren *Opera Omnia Vasconice*, *Euskararen Liburu Zuria*, Pedro de Irizar-en *Morfología del verbo auxiliar*-en ale desberdinak, *Hitz egin metodoa*, eta beste.

## Azokak

- XXXI. Euskal Liburu eta Disko Azokan, Durangon, abenduaren 5, 6, 7, eta 8an bi saltokitan egon da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau: 1996. urteko argitalpen berrietarik *Euskararen tratamentuak: Erabilera* (Iker 9), *Arrasateko Toponimia* (Onomasticon Vasconiae 15) eta *Juan Mateo Zabalaren Sermoiak (I)* aurkeztu dira bertan.
- LIBER' 96 irailaren 25etik 29ra Bartzelonako Fira delako erakustazokan egin da. Azoka nagusi horretarako, EAEko beste erakunde eta elkarteekin batean, partaide izateko deia luzatu zaió Euskaltzaindiari. Horretarako Eusko Jaurlaritzak antolatu duen saltokian, 47 argitalpen tituluri dagozkien 72 liburu aurkeztu ditu Euskaltzaindiak, *1995eko Oroitidazkia* eta Erakundearen *Argitalpenen katalogoa*-rekin batera.

Bi egunez -28 eta 29an- bertan izan dira J. L. Lizundia idazkariordekudeatzailea eta Rosa Mari Arza argitalpenen banaketa zerbitzuko arduraduna. Besteak beste, Mercè Boronat Institut d'Estudis Catalans-eko kudeatzailearekin bi Akademiek duten argitalpen-stockaren arazoaz zer egin daitekeen mintzatu dira. Era berean, erakundeen argitalpen-banaketan aditua den Servei del Llibre enpresako Pedro-Giordano Marqués kudeatzailearekin harremana bideratu da eta hitzarmen edo akordiorako pausoak eman dira.

**III.5. Ekonomi zerbitzua:  
1996ko balantzea**



## DIRUZAINZA

Kopuruetan ematen den 1996ko aurrekontuaren kontu-errendapenak argibide batzuk behar ditu. Lehendabizi hau esan behar da, 1995eko uztailean onartu zuela Euskaltzaindiak hurrengo urterako aurrekontua, 332 milioi pezetakoa, eta 1996an gastuak murrizten ahalegindu delako, 310 milioira jaitsi dela benetako kopurua.

Herri Aginteei aurkeztu zitzairen bere garaian aurrekontu hura eta azken hiru urteetan ematen duten ia kopuru berbera ematea erabaki zuten, hots, 164 milioi (%49,4) aurrekonturako eta hemen sarturik dagoen mailegua kitatzeko 16 milioi (%4,8), beraz guztira, %54,2. Madrilera Hezkuntza Ministeritzatik 80 milioira jaso da (%24). Beraz, Administrazioetatik jasotako dirua kontuan izanik, %21,8 geratu zen beste diru-iturrietatik lortzeko.

Dena den, Euskaltzaindiaren helburuak betetzeko ez bada Administrazioetik behar den besteko laguntza lortzen ere, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioei, sinatutako Hitzarmenaren arabera diru-laguntza finko batzuk zihurtatu dituztenez, esker ona aitortu behar zaie. Estatuko Gobernuaren Hezkuntza Ministeritzako Ikerketa eta Unibertsitate Idazkaritza Orokorrari ere beste horrenbeste zor zaio.

Europako Kontseilua, Euskadi-Akitania eta Iparraldeko Herri Aginteeek ere 9,5 milioiko diru-laguntza eman dute, eta hurrengo urteetarako gehiago emango dutelakoan dago Euskaltzaindia. Euskal Herriko udalei ere eskerrak eman behar zaizkie, aurrekonturako laguntza eman dutenei, edo eginkizun jakin batzuetarako eman dutenei, hala nola, Durangoko Udaleri (IV. Herri Literatura Jardunaldietarako) eta Tolosako Udaleri (II. Jagon Jardunaldietarako). Argitalpenetarako laguntzak eman dituzteneri (kontuetan agertzen dira xehetasunak) esker ona aitortu behar die Euskaltzaindiak.

Baina azaldu behar da ere Erakunde honen ahultasun ekonomikoa. Lege-Ekonomia batzordea sortu zen Euskaltzaindian zeuden hutsuneak betetzeko lan egin zezan. Udalei, enpresei eta gizabanakoei dirua eskatzeko irtenbideak asmatu dira eta laster gauzatuko direla uste dugu. Ezinbestekoak dira laguntza horiek aurrekontuaren ia laurdena betetzea lortu nahi bada. Euskaltzaindia instituzio publikoa da eta Administrazioetatik edo/eta ekonomia pribatutik elikatu behar da. Hau da kontu-errendapenarekin barreiatzen den mezua.

## 1996. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

### IRTETEA

1. Epe Luzerorako zorra		750.000
2. Ibilgetu materiala		1.846.277
3. Epe laburrerako maileguen zorra		20.574.598
– Epe laburrerako mailegua	16.133.352	
– Maileguaren korrituak	4.441.246	
4. Kanpo zerbitzuak		48.681.596
– Ikerketa gastuak	15.279.065	
– Egitura batzordeak	9.367.772	
– Alokatzekak	883.859	
– Konponketak eta zaintzekak	5.091.617	
– Zerbitzu profesionalak alokatzea	1.846.540	
– Bidalketa gastuak	887.036	
– Aseguruak	812.557	
– Banku zerbitzuak	405.088	
– Kanpo harremanak eta zabalkunde lanak	873.461	
– Horniketarak	9.508.365	
– Bestelako funtzionamendu gastuak	3.726.236	
5. Batzorde eta egitasmoak		114.880.894
– Euskara Batua	1.243.416	
– Hiztegi Batua	4.449.846	
– Orotariko Euskal Hiztegia	53.239.728	
– Gramatika	2.538.516	
– Ahoskera	609.281	
– Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa	29.198.638	
– Onomastika	6.174.527	
– Herri Literatura	1.705.674	
– Literatura Ikerketa	1.053.447	
– Jagon	1.170.325	
– Argitalpenak eta Lege-Ekonomia	159.310	
– Azkue Biblioteka	13.184.186	
– LEF	154.000	
6. Zergak		197.365
7. Gizabanakoei ordainketak		115.090.917
– Arduradunen esleipenak	10.505.791	
– Langilego finkoa	82.358.406	
– Gizarte Asegurantzak	21.933.502	
– Bestelako gizarte gastuak	425.528	
8. Gastu finantzarioak		133.542
9. Horniduren zuzkidurak		8.125.921
		<hr/>
		<b>310.281.110</b>

## 1996. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

### SARTZEAK

1. Ustiaketarako sarrerak		274.918.147
1.1. Herri Aginteak	247.839.368	
– Hezkuntza Ministeritza	(80.000.000)	
– Eusko Jaurlaritza	(95.947.000)	
– Nafarroako Gobernua	(16.990.289)	
– Arabako Foru Diputazioa	(7.404.296)	
– Bizkaiko Foru Diputazioa	(26.952.494)	
– Gipuzkoako Foru Diputazioa	(16.990.289)	
– Iparraldeko Herri Aginteak	(2.500.000)	
– Udalak	(1.055.000)	
1.2. Gizabanakoak	441.350	
1.3. Batzorde eta egitasmoetarako laguntzak	15.881.326	
– Europako Kontseilua	(5.541.326)	
– Euskadi-Akitania	(1.500.000)	
– Durangoko Udala	(440.000)	
– Gasteizko Udala	(8.000.000)	
– Tolosako Udala	(400.000)	
1.4. Argitalpenetarako laguntzak	10.756.103	
– Bizkaiko Foru Diputazioa	(2.381.531)	
– Nafarroako Gobernua	(547.875)	
– Deustuko Unibertsitatea	(550.000)	
– Euskal Herriko Unibertsitatea	(4.000.000)	
– Nafarroako Unibertsitate Publikoa	(550.000)	
– Euskadiko Kutxa	(2.726.697)	
2. Kudeaketa sarrerak		18.960.290
2.1. Argitalpenen salmenta	15.502.842	
2.2. Bestelako zerbitzuak	3.457.448	
3. Sarrera finantziarioak		16.402.673
3.1. Korrituak	152.673	
3.2. Mailegurako laguntzak	16.250.000	
– Eusko Jaurlaritza	(9.490.488)	
– Nafarroako Gobernua	(1.680.575)	
– Arabako Foru Diputazioa	(732.387)	
– Bizkaiko Foru Diputazioa	(2.665.975)	
– Gipuzkoako Foru Diputazioa	(1.680.575)	

---

**310.281.110**





### **III.6. Prentsa zerbitzua**



### III.6. PRENTSA ZERBITZUA

1996an jarraipena eman dio Prentsa zerbitzuak bertoko nahiz kanpoko komunikabideekiko harremanak sendotzeari. Nerea Azurmendi kazetariaren ardurapean, Gasteizko bulego arduraduna den Itziar Rekalderen lankidetzaz, Prentsa Zerbitzuaren helburua Euskaltzaindiaren jardueraren berri zuzen eta zehatza ematea izan da, erakunde honen irudia zainduz eta kazetarien lana errazten saiatuz, hauen bidez Akademiaren lana gizartera hel dadin. Horretarako urtean zehar Euskaltzaindiak egin dituen bilkura, ekitaldi ireki, argitalpen-aurkezpen eta abarrekoetan sortu den informazioa kazetarien artean zabaltzea izan da bere betebeharr nagusia, beti ere lagungarri eta osagarri izan nahirik.

Euskaltzaindiaren 75. urteurrena zela eta 1994ko ahalegin bereziaren ondoren, 1995ean finkatu zen Prentsa Zerbitzua zerbitzu iraunkor bezala, eta bide horretatik jarraitu du 1996an, aurrekoa bezala ospakizun berezi handirik gabe joan baita urtea. Hala ere, 1995ean lortutako presentzia publikoari eutsi zaio prentsaurreko, aurkezpen eta ohar bidez, eta, batzaz beste, bi harreman zuzen izan ditugu hileroko komunikabideekin, eta horiekin genituen harremanak sendotu eta erabat normalizatu dira.

Prentsa zerbitzu bakar bat antolatu da aurten, Tolosan urrian egin diren II. Jagon Jardunaldietan, alegia. Jardunaldien egoitzan eratu da prentsa zerbitzua eta bi egunez handik banatu da Jardunaldietatik sortutako informazioa.

1996an aipagarria izan da komunikabideen eskarien gorakada. Geuk gure kabuz bidali dizkiegun oharrez gain, hamalau kronika berezi eskatu dituzte, Euskal Herritik kanpoko komunikabideek barne, eta kontsulta asko jaso dira Prentsa Zerbitzu honetan.

Garrantzitsua izan da, era berean, beste erakunde batzuen prentsa zerbitzu eta arduradunekin izandako harremana, urtean zehar egindako hainbat aurkezpen elkarlanean antolatu baitira.

Ondoko zerrendan biltzen diren jarduerak Euskaltzaindiak berak zerbitzu honen bitartez bultzatutakoak dira, komunikabide guztietara bidaliak, ezinezkoa baita komunikabideen eraginez burututako lanak eta zerbitzu bereziak laburbiltzea.

#### **Prentsaurrekoak, argitalpenen aurkezpenak eta ekitaldi irekiak**

- Euskaltzaindiaren 1996ko egitarauaren aurkezpena. Urtarrilaren 26a, Donostia.
- *Linguae Vasconum Primitiae* argitalpenaren aurkezpenak: Nafarroako Gobernuan, urtarrilean, Bilboko egoitzan, otsailean eta Baionako Trinquet Modernen, otsailean.
- M. Ángeles Líbanoren *Toponimia Medieval en el País Vasco* argitalpenaren aurkezpena. Otsailaren 26a, Gasteiz.

- Jose Luis Ormaetxearen *Arrasateko Toponimia* argitalpenaren aurkezpena. Maiatzaren 14a, Arrasate.
- Euskaltzain urgazle berrien arteko diploma banaketa. Maiatzaren 31, Bilbo.
- Hizkuntz Atlasaren CD-ROM formatuaren aurkezpena. Ekainaren 17a, Bilbo.
- II. Jagon Jardunaldien aurkezpena. Urriaren 2a, Donostia.
- Herri Literatura Jardunaldien aurkezpena. Azaroaren 21a, Donostia.
- Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskalzaindiaren arteko *Txomin Agirre, Felipe Arrese Beitia, Mikel Zarate eta Toribio Alzaga* literatura sarien banaketa. Abenduaren 13a, Bilbo.
- Aita Jose Ignazio Aranaren mendeurrena eta urteko azkeneko bilkura. Abenduaren 21a, Azkoitia.

Ekitaldi hauetan guztietan, deialdiaz gain informazio-oharrak bidali zaizkie komunikabideei.

### **Prensa oharrak**

- Euskaltzain urgazle berriak. Martxoaren 28an.
- *Euskaltzaindiaren Arauak* argitalpenaz. Otsailaren 23an.
- Euskaltzaindiaren ordezkariak Nafarroako Euskararen Kontseiluan. Apirilaren 26an.
- J. Belapeyrenen hirugarren mendeurrenaren ospakizuna Zuberoako Sohütan. Uztailaren 18an.
- II. Jagon Jardunaldiei buruzko informazio orokorra. Urriaren 16an.
- Euskaltzaindiak Kultura Ministroarekin izandako bilkurari buruzko informazio orokorra. Urriaren 29an.
- Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren berriztapena. Azaroaren 29an.
- Alfonso Irigoien euskaltzain zenaren heriotzari buruzko oharra. Abenduaren 16an.
- Euskaltzaindiaren batzordeen osaketa. Abenduaren 22an.

## **IV. Herri Administrazio eta erakundeekikoak**



## **IV.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia**





## **IV.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA NAFARROAKO HERRI AGINTEAK ETA EUSKALTZAINDIA**

### **Urteko protokolo-eranskina**

Urteko protokolo-eranskina sinatu dute 1996ko urtarrilaren 2an bost herri-agintariek eta Euskaltzaindiak. Herri Administrazioetako hauek: Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak; Federiko Tajadura, Nafarroako Gobernuaren Lehendakartzako kontseilariak; Mikel Mintegi, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak eta Koruko Aizarna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak.

Dokumentu honetan, Euskaltzaindiko egitasmo eta batzorde desberdinek urtean zehar egingo dituzten ekintzak eta Administrazio hauek urte horretan Euskaltzaindiari emango dizkioten diru-baliabideak ere jaso dira.

### **Jarraipen Batzordea**

Aipatutako agintariek eta euskaltzainburuak 1995eko urrian sinatu zuten bost urteko iraupena duen II. Hitzarmena. Hitzarmen hori urtero sinatzen den protokolo edo eranskinean gauzatzen da, eta horren jarraipena egiteko biltzen da Jarraipen Batzordea. Beronen osakera honela da: Herri Administrazioetatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta zuzendarietako bat, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kultura diputatuak; Euskaltzainditik, euskaltzainburua eta idazkaria botoarekin, eta buruordea, diruzaina, idazkariorde-kudeatzailea eta ekonomi eragilea. Aurten hiru aldiz bildu da batzorde hau:

- 1996ko maiatzaren 15ean bilera egin da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Bertan, Euskaltzaindiak 1995ean burututako ekintzei buruz Batzorde Teknikoak prestatutako txostena aztertu da.
- 1996ko urriaren 31n bildu da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Gaiak, Euskaltzaindiaren zenbait egitasmoren jarraipena egitea, Batzorde Teknikoaren txosten teknikoa aztertzea eta 1997rako Herri Administrazioek emango duten diru-laguntzaren lehen hurbilpena egitea izan dira.
- 1996ko abenduaren 27an bildu da Jarraipen Batzordea Donostian, HABEren egoitzan. Aztertu diren gaiak Batzorde Teknikoak prestatutako txosten teknikoa, 1997rako Euskaltzaindiaren aurrekontua, 1997ko protokolo-eranskina eta Herri Administrazioek 1997rako emango dituzten diru-baliabideak izan dira.

## **Batzorde Teknikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilerak**

Hitzarmenaren Batzorde Teknikoa, Herri Aginteez eta Euskaltzaindiak bost urterako sinatua duten Hitzarmenaren jarraipen-lanean aritzen da. Une honetan hiru teknikarik osatzen dute jarraipeneko batzorde hau: Joseba Alcaldek, Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailekoak, Mirari Alberdik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzakoak eta Joseba Erkiziak, Gipuzkoako Foru Diputaziokoak; Euskaltzaindiaren aldetik, Juan Jose Zearretak, ekonomi eragileak eta Pello Telleriak, eragile teknikariak parte hartu dute batzorde honekin izandako harremanetan.

Batzorde Teknikoak urtean zehar bederatzita bilera egin du Euskaltzaindiko ordezkariekin, eta gai hauek izan dira hizpide nagusiak bilera horietan:

- Batzordeen 1995eko urte osoko errendapen-txostenak aztertu dira banan-banan.
- Aurkeztutako Euskaltzaindiaren 1995eko ekonomia errendapen-txostena, diru-ordainketak egin ahal izateko Herri Administrazioek eta Euskaltzaindiak egin beharreko tramiteak eta diru-ordainketen egoera.
- Jarraipen Batzordearen bileretan egindako galderen erantzunak.
- Egitasmo eta batzordeen 1996ko hiruhilabetekako errendapen-txosten desberdinak.
- Aurreko bileretan tratatutako zenbait gairen erantzunak.
- Zenbait egitasmo eta batzorderen jarraipena egin da, informazio osagarria emanez.
- 1997ko aurrekontuak aurkezteko egitura eta irizpideak argitu dira; ondoren aurrekontuen behin-behineko aurkezpena egin da, ea esandako irizpideen arabera dauden, eta azkenik, 1997ko aurrekontuak aurkeztu dira.
- 1997rako egitasmo eta batzordeen ekintza-planak aztertu dira.
- 1997rako protokolo-eranskinaren testua aztertu da.

Honez gain bilera berezia egin da 1996ko maiatzaren 2an, horretan Josune Ariztondo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzaileak ere partu hartu dutelarik. Bertan, egitasmo eta batzorde zenbaiti buruz eskatutako informazioa eman du Euskaltzaindiak eta diru-ordainketen egoeraz hitz egin da.

## **IV.2. Udalak**



## **IV.2. UDALAK**

Irailaren 27an Gasteizko Udaletxean hitzarmena sinatu dute Jose Angel Cuerda Arabako hiriburuko alkateak eta Jean Haritschlelhar euskaltzainburuak. Hitzarmenaren arabera, Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzko ekitaldiak eratuko ditu eta hiritarrek hizkuntzaren inguruan egin ditzaketen kontsultei erantzungo die. Halaber, Akademiak hizkuntzari buruzko ikerketak eta argitalpenak prestatuko ditu. Horretarako, aurten Gasteizko Udalak zortzi milioi pezetako diru-laguntza eman dio Euskaltzaindiari eta aurrerantzean ere, urteko aurrekontuetan, diru-kopuru jakin bat jartzeko asmoa dago.

Iruñeko Udala Euskaltzaindiari diruz etengabe laguntzen ari bada ere, aurten sinatu du lehen aldiz laguntza-hitzarmena. Horrela, abenduaren 30eko dataz sinatu dute hitzarmena J. Javier Chourraut Burguete Iruñeko alkateak eta Jean Haritschlelhar euskaltzainburuak. Hasteko urtebeteko iraupena du hitzarmenak, eta Udalari, jasotako diru-laguntzaren truke Euskaltzaindiak hizkuntz aholkularitza eta argitalpenak emango dizkio.



### **IV.3. Euskal Herriko Unibertsitatea**






### IV.3. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskaltzaindiarekin 1996. urterako sinatuta duen hitzarmenaren tenorean, zazpi milioi pezeta eman du, hots, aipatuko diren argitalpenak eta lanak finantziatzeko kostuaren % 50a.

Diru horrekin lan hauek burutu dira:

1. *Euskararen tratamenduak: erabilera*: Xabier Alberdi; Euskaltzaindiaren Iker bildumako 9. zenbakia.
2. *Toponimia medieval en el País Vasco. B - G*: Ángeles Líbano Zumalacárregui. Liburu hau inprimategian dago, eta Onomasticon Vasconiae saileko 16. zenbakia eramango du.
3. *Morfología del verbo auxiliar laboriano*: Pedro de Yrizar (inprimategian).
4. René Lafon-en idazlan hautatuen prestaketa egiten hasi da.
5. *Erromintxela*-ren -ijitoen euskararen- ikerketa egin da, ondoren argitaratzeko.





## **V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia**



## **V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK**

### **EUSKALTZAIN OSOAK**

Patxi Altuna  
Jose Antonio Arana Martija  
Miren Azkarate  
Pierre Charritton  
Jean-Louis Davant  
Xabier Diharce «Iratzeder»  
Patxi Goenaga  
Jean Haritschelhar  
Xabier Kintana  
Endrike Knörr  
Federiko Krutwig  
Emile Larre  
Juan Mari Lekuona  
Beñat Oihartzabal  
Patxi Ondarra  
Txomin Peillen  
Pello Salaburu  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola  
Jose Mari Satrustegi  
Andres Urrutia  
Luis Villasante  
Patxi Zabaleta  
Antonio Zavala

## **ZUZENDARITZA**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua  
Endrike Knörr, buruordea  
Patxi Goenaga, idazkaria  
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

## **ORDEZKARIAK**

Gipuzkoa: Juan Mari Lekuona  
Araba: Patxi Goenaga  
Nafarroa: Andres Iñigo (\*)  
Iparraldea: Pierre Charritton.

## **ERAGILEAK**

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea  
Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea  
Pruden Garzia, bibliotekako zuzendaria (\*\*)  
Ricardo Badiola, argitalpen-eragilea  
Pello Telleria, eragile teknikaria

---

(\*) Euskaltzaindiak 1997ko otsailaren 28ko batzarrean izendatua.  
(\*\*) Zuzendaritzaren 1997ko martxoaren 18ko bileran izendatua.

## V.2. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEAK (\*)

### IKER SAILA

**Iker** sailburua: Beñat Oihartzabal

#### I. HIZTEGIGINTZA batzordea

Buru: Ibon Sarasola.

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da:

##### I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) lantaldea

Arduradun: Iñaki Segurola

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

##### I.2. Hiztegi Batuko lantaldea

Arduradun: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Jean Louis Davant, Koro Navarro, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia.

#### II. GRAMATIKA batzordea

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Jesus M. Makazaga

Kideak: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Piarres Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose M. Larrarte, M. Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Francisco Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

#### III. DIALEKTOLOGIA batzordea

Buru: Beñat Oihartzabal

##### Atlasgintza lantaldea

Arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak: Isaak Atutxa, Ana M. Etxaide, Jose M. Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

---

(\*) Izendapen hauek 1996ko azarotik 1997ko urtarrilera bitartean egin dira, 1997 eta 1998rako.

#### **IV. ONOMASTIKA batzordea**

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose M. Sartrustegi.

##### **Exonomastika kideak:**

Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Federiko Krutwig.

##### **Aholkulariak:**

Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Jose M. Jimeno Jurio, Jean Baptiste Orpustan, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren.

#### **V. LITERATURA batzordea**

Buru: Juan M. Lekuona

##### **V.1. Herri Literatura azpibatzerdea**

Arduradun: Juan M. Lekuona

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose M. Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus M. Etxezarreta, Jose M. Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Jose Ramon Zubimendi.

##### **V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea**

Arduradun: Juan M. Lekuona

Idazkari: Karlos Otegi

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorra Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis M. Mujika, Lourdes Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

#### **VI. BATZORDE SUNTSIKORRAK: EUSKARA BATUA ETA AHOSKERA**

##### **VI.1. Euskara Batuko batzordea**

Buru: Pello Salaburu

Idazkari: Miren Azkarate

Kideak: Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

##### **VI.2. Ahoskera azpibatzerdea**

Buru: Lourdes Oñederra

Idazkari: Pilartxo Etxebarria

Kideak: Jose Luis Alvarez «Txillardegia», Jean-Louis Davant, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Iñaki Gaminde, Jose Ignazio Hualde, Bernhard Hurch, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

##### **Lantaldea:**

Buru: Lourdes Oñederra

Lankideak: Pilartxo Etxebarria, EITBko aholkularia: Igone Etxebarria, (EAEko) IRALEko irakaslea (Araba): Jon Kortabarria, (EAEko) IRALEko irakaslea (Bizkaia): Jon Aurre, (EAEko) IRALEko irakaslea (Gipuzkoa): Juan Carlos Hernandez, (Nafarroako) IBiko irakaslea: Adelaida Kintana.



## JAGON SAILA

**Jagon** sailburua: Miren Azkarate

### VII. JAGON saila

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Xabier Mendiguren

Kideak: Dionisio Amundarain, Erramun Baxok, Joseba Butron, Piarres Charritton, Igone Etxebarria, Patxi Goenaga Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Daniel Landart, Juan M. Lekuona, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia, Jose Ramon Zubimendi.

## EGUTURAZKO BATZORDEAK

### VIII. ARGITALPEN batzordea

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Ricardo Badiola

Kideak: Endrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Patxi Altuna, Juan Luis Goikoetxea.

### IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea

Buru: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari: Pruden Garzia

Kideak: Andolin Eguzkitza, Sebastián Garcia Trujillo, Endrike Knörr, Jose M. Larrarte, Juan San Martin.

### X. LEGE-EKONOMI batzordea

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Patxi Goenaga, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija.

#### **Lege azpibatzerdea:**


Abel Muniategi  
Kepa Amezaga  
Andres Urrutia  
Patxi Zabaleta

#### **Ekonomi azpibatzerdea:**

Jon Castañares  
Xabier Erdozia  
Sebastian Garcia Trujillo  
Jose M. Makua Goienetxe  
Juan Jose Zearreta, idazkari



# EUSKALTZAINDIA



(Euskaltzaindiak 1995eko uztailaren 28an onartua)



## V.4. AURKITEGIA

### **EGOITZA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-415 81 55  
Faxa: 94-415 81 44  
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

### **AZKUE BIBLIOTEKA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-415 27 45  
Faxa: 94-415 00 51  
Zuzendaria: Pruden Garzia

### **GORDAILUA**

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km  
SAGA etxea, 1. solairua  
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)  
Telf.: 94-440 62 58  
Arduraduna: Rosa Mari Arza

## **ORDEZKARITZAK**

### *ARABA*

San Antonio, 41  
01005 GASTEIZ  
Telf.: 945-23 36 48  
Faxa: 945-23 39 40  
Ordezkarria: Patxi Goenaga

### *GIPUZKOA*

Hernani, 15  
20004 DONOSTIA  
Telf.: 943-42 80 50  
Faxa: 943-42 83 65  
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

### *NAFARROA*

Conde Oliveto, 2, 2.a  
31002 IRUÑEA  
Telf.: 948-22 34 71  
Faxa: 948-21 07 13  
Ordezkarria: Andres Iñigo

### *IPARRALDEA*

37, Pannecau karrika  
64100 BAIONA  
Telf.: 559 25 64 26  
Faxa: 559 59 45 59  
Ordezkarria: Pierre Charritton





